Datu ofizialen arabera, era berean, 2019an, azken egunetan jakin dogunez, kriminalidadea %6,1 handitu da barrira, 2018agaz alderatuta. Ordurako ia 10 puntuko igoera izan genduan arren. Kriminalidadea gorantza doa Euskadin beste erkidego batzuetan baino gehiago, egia da. Baina Euskadiko datuak kezkarriak badira, Bizkaikoak okerragoak dira. Zenbakiei buruz hitz egiteko eskatu zenduan, ez ehunekoei buruz; zenbakiei buruz hitz egiteko eskatu zenduan, portzentajeei buruz hitz egiteak esan nahi dauelako onartzea Bizkaian oraindik be handitzen doazen gabeziak dagozala. Baliteke gaur be zenbakiei buruz hitz egiteko eskatzea, eta ez ehunekoei buruz; nik, ostera, personei buruz hitz egingo deusut, ez zenbakiei buruz. 2019an, Bizkaian 3 pertsona erail dituzte, horietako bat Bilboko erdigunean, egun argiz: 15 hilketa, bahitutako 6 pertsona, sexu-erasoak jasan dabean 236 pertsona, larderiaz egindako lapurretak jasan dabean 880 pertsona, 15.055 ebasketa eta ibilgailua lapurtu deusien 400 pertsona baino gehiago.

Datuak horreek dira, Rementeria jauna, gordinak, ez ostendu, ez eskatu ezkutatzeko, egin aurre, datuek agirian ixten dabe Bizkaian kriminalidadea itogarria dala, Espainian okerren bizi garanak izateraino. Bizkaiko zenbait eskualdetan agiriko segurtasunik ezak eragiten dituan arazoak konpondu nahi izatea alarma soziala sortzea da? Ez. Datuak ezkutatzek segurtasun politika publikoen kudeaketa hobetuko dau? Ez. Aldun Nagusiaren erantzukizuna da delinkuentziaren kontrolerako arazo bat dagoal ikusten daben, ikusten dogun bizkaitarren bozgorailu izatea? Bai. Azkenengo osoko bilkuran, nabarmendu zenduan Bizkaiko segurtasuna lehentasunezkoa dala zure Gobernuarentzat, baina segurtasunaren eztabaida ganbera honetara ekarten dogunoi leporatu zeuntsien alarma soziala sortzea datuak azaltzeagaitik eta herritarren kezken barri emotegaitik. Gure salaketa publikoetarako osasun-lokarri bat be eskatu zenduan. Lehenik eta behin, Bizkaiko Aldundiak segurtasunaren gaineko eskumenik ez daukala ziurtatu zenduan, baina, jarraian, baietz esan zenduan. Tira, Aldundiak batu behar dituala Bizkaian segurtasuna bermatzeko gero beste erakunde batzuek erabilten dabean baliabideak, zeharkako eskumena be aitatu zenduan, eta taldean lan egiteko agindu zenduan, kalean lasai ibili gaitez blindatzeko. Begira, erraz ipiniko deusut. Benetan animatzen zaitut dana ondo doalako politikatik aldentutera, eta oposizioaren aurkako eraso sistematikotik haratago joatera. Dana txarto doala erostea leporatzen deutzazunari, oposizioa egiteagaitik bakarrik. Rementeria jauna, oposizioa funtzionatzen ez dauena ganbera honetako mahai gainean jartzea da, eta konponbideak eskatzea. Ez da tribuna honetara masajeak egitera igotzea.

Ganbera honetan oposizioa egiten dogunok honen moduko mozinoak ekarten ditugu hona helburu bakarragaz, egunero bizkaitar askok salatzen daben arazo bat konpontzen laguntzea. Bizkaitar horreek ez dabela ulertzen Bizkaian beren interesen ordezkari nagusiak zer esanik ez izatea edo zer proposaturik, Bizkaian delituak gora nabarmen egiten dabenean. Etxebizitzetan indarra erabiliz egindako lapurreten kopuruak gora egin dau: %59 Leioan, Getxon indarkeria eta larderia erabiliz egindako lapurreten kopuruak %64 egin dau

gora, edo Bilbon 2019an izandako sexu-erasoen kopuruak %50 egin dau gora. Horren aurrean Eusko Jaurlaritzak ez dala eragingarria segurtasun publikoaren kudeaketan kritikatzeko dogunean, ez dugu beste barik egiten, herritarren kritiken barri emoten dogu, eta Ertzaintzako sindikatuen etengabeko kritiken barri, bai eta Euskadiko kriminalidadearen gorakadari aurre egin ahal izateko baliabideak eta prestakuntza eskatzen hilabeteak daroezan agenteena be. Nik uste dot bizkaitarren ordezkari nagusiak zeresana izan behar dauela, honen guztiaren aurrean Eusko Jaurlaritzak esaten deuskunean patruila-autoak hutsik aparkauko dituela kriminalen asmoak aldatzeko. Amaitzen noa, Rementeria jauna, gaur zentzuzko 3 gai eskatzen ditugu. Lehenengoa, kriminalidadeari eta segurtasunari buruzko alkarrizketa-mahai bat sortzea, Foru Erakundeakaz batera beste erakunde batzuk be badagozala.

Bigarren, zigorrak gogortzeko behar diran lege-aldaketak bultzatzeko eskatu, zigorrak gogortzeko hilketa, bahiketa, sexu-askatasunaren aurkako delitu edo droga-trafikoko kasuetan behin baino gehiagotan egiten dabeneztat.

Eta, hirugarren, espetxealdi iraunkor berrikusgarriaren moduko neurriakaz konpromisoa hartzea, larritasun bereziko delituetarako eta gizarteratzeko pronostikorik ez dauken kriminalentzat. Zuen esku dago, eta hemen gagozan guztion esku be bai, politika arduratsua egitea, edo, bestela, oposizioaren lana barriro oztopatzen ahalegintzea, eta zenbakien dantzara jotzea, zure alderdiak, EAJk, gobernatzen dituan erakundeen jarduna justifikatzeko, Bizkaiko Foru Aldundi honegaz zerikusirik euki ez arren. Eskerrik asko. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Gracias. La representante del Grupo Elkarrekin Bizkaia, Sra. De Madariaga Martin, tiene la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora presidenta, y buenos días a todos. Alderdi Popularrak mozino bat aurkeztu dau, orain dala hilabete batzuk kontroleko osoko bilkuran egin eban interpelazioaren ondorio dana. Eta interpelazio horren eta mozio honen oinarria da herritarrei Bizkaian kriminalidadea areagotzeak eragiten deutesen kezka, eta Alderdi Popularrak, antza, kezka hori agertu gura dau. Guk a priori zuekazbat egin geinke segurtasunik ezak herritarrek kezkatzen dituan kontua dela, eta, halan agertzen da inkesta batzuetan. Baina zuekazbat egiten ez doguna da arazoa zelan bideratzen dozuen eta gitxiago proposatzen dituzuen urtenbideak. Zuek dinozue hau zentzun kontu bat dala, eta gaur hasi naz ulertzen zergatik dan hain zuzen sen ona zentzumenen artean ezohikoena. Izan be, begira, ez gatoz bat arazoa bideratzeko moduagaz hainbat arrazoigaitik; zuek kriminalidadearen gorakada segurtasun-faltagaz bakarrik lotzen dozue. Segurtasun hori, zuek planteatzen dozuen moduan, poliziaren presentzia handiagagaz, zigorrak gogortutaeta espetxealdi iraunkor berrikusgarria hedatzeagaz baino ez da beteten. Hori ei dazuretzat zentzun handikoa, eta benetan galdetzen deutesut ia uste dozun holan eragotziko dala Bizkaian kriminalidadea areagotzea. Eta gure taldean argi eta garbi ez dogu holan ikusiko, ezta holan ikusten be. Eta uste dogu, gainera, beste faktore batzuk eragiten dabela kriminalidadea handi daiten gure lurraldean, eta batzuk emongo dodaz, begiratu pobrezia, desberdintasunak, aukerarik eza, justizia sozialik eza. horreek bai, horreek zuzenean eragiten dabe kriminalidadearen gorakadan. Eta, bide batez, honi buruz Aldundiak bai badauka eskumena; zigorrak handitzeari edo ez igotzeari buruz, ba zalantza batzuk ditut, eta segurtasun ereduari buruz be bai. Eta hori dinot, ze, herritarren segurtasunean eta segurtasun-eredu honetan eskumen zuzenik ez izateak, Diputadu Nagusiak esandako moduan, ez dau esan nahi eragina izango daben politikak garatu ezin ditugunik, hain zuzen be, kriminalidadearen jaitsieran, eta, beraz, herritarrek dauken segurtasunaren pertzepzioan.

Baina esaten dodanaren haritik. Halan da be, zuek ondino be eskumenik ez daukagun horretan zentratu nahi dozue konponbidea, segurtasun-ereduan, polizia-agenteen

kopuruan eta tipologian, zigorrak gogortzean, edo espetxealdi iraunkor berrikusgarri horren hedapenean. Eta, izan be, hau kontu hau, segurtasun-ereduarena, nik dakidala, honezkero eztabaidatu da Eusko Legebiltzarrean, han dauke eta eskumena, 2019ko uztailean. Ia urtebeteko eztabaida bat egon zan Poliziaren Lege barria onartu zanean, eta horretan zuek parte hartu zenuen onartu eta babestuz, eta bertan sartu ziran zuek proposatutako zuzenketetako asko. Gure taldearen kasuan erabagi genduan ez babestea. Ez genduan lege-aldaketa hori babestu, uste gendualako polizia-eredu gero eta zigorgarriago eta gero eta zapaltzaileago baterantza jotea zala, eta badirudi hori dala Bizkaian be zabaldu nahi dozuna.

Uste dot eztabaida hori hona ekartzeak ez daukala bape zentzurik, baina pobreziaren aurkako, gizarte-desberdintasunen aurkako edo aukera-faltaren aurkako borrokaren bidez kriminalidadea gitxituten eragingo daben politikak garatzeko ekimenak aurrera eroatea askoz be zentzuzkoagoa da, gitxienez ganbera honetan eztabaidatzeko. Eta horregaz niri zalantza sortzen jat zein dan zure interesa ekimen honetan, ea nahi dozun alarma soziala sortzea, edo nahi dozun pobrezia-egoeran dagozan personak kriminalizau, gizarte-bazterketako egoeran dagozanak. Izan be, delitu oso zehatzak aukeratu dituzue, ez guztiak, eh! Zuek zuen proposamenean adierazi dozue kezkatuta zagoziela sexu-askatasunaren aurkako delituak hazi egin diralako; gure taldea be, oso kezkatuta dago, eta, gainera, ez dogu bat bera be gertatzea nahi.

Baina kontuan izan behar dozu beste kontu bat, guztiz gogoan hartzekoa, sexu-delituei buruzkoa. Kasu honetan segurtasunik eza ez da espazio publikoan gertatzen, espazio pribatuan baino. Bizkaiko emakume, neska-mutil, eta nerabe gehienentzat Bizkaian arriskua ez dago kalean, beren etxeetan dago. Espazio pribatuan gertatzen diran sexu gehiegikeriek edo espazio publikoan gertatzen dan alarma sozialean gertatzen danak bakarrik kezkatzen zaitu zu. Zure ekimenagaz zalantza handiak sortu jakuz, eta espazio pribatuan bada, ez dakit, zuk zelán hobetuko dozun egoera hori esparru pribatuan; ze gai horreek hobetuz edo proposatuz, niri neuri eraso guztiek kezkatzen nabe. Eta zuek benetan kezkatuta bazagozie holako sexu-delituakaz, eta urtenbide eraikitzaileak bilatu nahi badituzu eta datuekin zorrotza izan nahi badozu, familia-esparruan emakumeak, neskatilak eta mutikoak babestuko dabezan ekintzak proposatu zeinkez, horretaz hemen ganbera honetan be eskumena daukagu, eta horri buruz eztabaidatu eta hitz egin geinke. Eta, gainera, norbanako, komunitade eta gizarte mailan eragin handia dauken delituak dira. Zuk be lapurretak ugaritu egin dirala adierazi dozu, eta zigorrak gogortzea proposatu dozu, erripikatzeotan. Dirudienez, horretan bat zatozie diputadu nagusiagaz, harek be adierazi dau beharrezkoa izan ezker legeak aldatzea, aldatu egingo dirala, jakina, ez dalako normala 13 bider atxilotutako persona bat ordubetegarrenean kalean egotea.

Eta harrigarria egiten da ez zuek eta ez Diputadu Nagusiak berak, eta kasu honetan delitu handiagoa da oraindik, persona horreentzako legea aldatu beharraz harago, ez jartzea zalantzan non eta zelán huts egin dauen eta sistemak huts egiten jarraitzen dauen, hori ez dozue zalantzan jartzen ez zuek ez Diputadu Nagusiak. Horrexegaitik galdetu deusuet ia zer asmo daukazuen honegaz. Kontu handiz ibili, ze zuek delitu mota batzuk sortzen daben alarma soziala erabilten dozue, bereziki espazio publikoan egiten direnak, alarma biderkatzeko eta segurtasun-falta publiko jasanezinean bizi garelako ideia faltsua zabaltzeko. Nik ez daukat sentsazio hori, eta ia holan, imaginario kolektiboan, guztion artean hau dana nori leporatu topetan dogun. Ibili zuhur kontu honegaz, ze jentetzeari eragiteak ondorioak ditu, eta nekez kontrolau ahal izango dituzue gerora.

Badira beste delitu batzuk be, gu kezkatzen gaituenak eta segurtasun falta handia sortzen dabenak, ustelkeria- eta iruzur-delituak, ogasun publikoaren aurkakoak, eragin handia daukenak eta herritar guztien aurka egiten dabenak, eretxi- eta adierazpen-askatasunen aurka, zuek horren inguruan ondo dakizuenez. Lan-eskubideen, ingurumenaren edo giza eskubideen aurkako delituek, zuek horren ganean be asko dakizue, eragin oso negatiboa dauke gizartean, eta herritarren segurtasunik eza eragiten dabe Bizkaian, baina zuei delitu horreek ez jatzuez interesatzen, gure gizartearen profil oso zehatz batek egiten dituenak baino.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Tiene la palabra el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Rico Lezama.

El Sr. **RICO LEZAMA** jaunak: Egun on. Lehenengo puntuan esan dogun moduan, Alderdi Popularrak, Euskadin be, erabagi dau zorroztasunaren eta erantzukizunaren bidetik urrun dagoan norabide bat hartzea, demagogiari eta populismoari bidea emoteko, Vox eta Ciudadanosegaz lasterketa zoro batean, ikusteko ia nor dagoan eskuinerago. Lehen platererako, Alderdi Popularrak murrizketa sozialak proposatu deuskuz gaur, beherapen fiskalez moztortuta, eta, orain, bigarrenerako herritarren segurtasunik ezaren diskursoa aurpegira bota gura deusku, iradokitzeo espetxealdi iraunkor berrikusgarriaren eta zigorrak handitzearen kontra gagozan guztiok gaizkileen alde gagozan, eta ez biktimen alde, gorri arriskutsuak garela. Eta hau guztia, Fernández andrea, egiten dozue ondo baino hobeto jakinda erakunde honek ez daukala inolako eskumenik polizia-arloan edo legeria penalean.

Baina zuei bardin jatzue hori; izan be, zuen helburua da hemen erakustea Vox eta Ciudadanosegaz darabilzuen lehia horretan txapeldunak zariela herrialde honetako eskuinaren mezurik klasikoenak berreskuratzen. Baina begira, Alderdi Popularreko jaun-andreak, sozialistok ez gagoz prest milimetro erdi be emoteko, ez gai honetan, ez beste batzuetan, eta ez dogu onartuko guri ezer irakastea, ezta segurtasunarena be, jakina ezetz, ze ez da egia segurtasunaren aldeko borrokan eskuinak ezere irakaspenik emon leiken eremu bat danik, gehien gurata be. Eta hori frogatzeko datu asko emon neizuz, baina, begira, nahikoa da zuen ekimenak berak dakarren kontraesan handian fijaszea. Gogoratzen badozue, 2015ean PPK, bere gehiengo osoaren babes bakarragaz, espetxealdi iraunkor berrikusgarria onartu eban. Zure alderdia, PP, kalera atera zan esanez neurri horrek, zigor-kodea holan gogortzeak, jada eginda egozan beste batzuek bezala, gure herrialdeko delinkuentzian eta kriminalidadean disuasino-ondorio orokor bat izango ebala.

Zuen teoria ospetsu eta faltsua da, zigorrak gogortzeak zuzenean gaizkileentzat disuasino-efektua dakarrela. Zigor-kodean zentzu horretan egindako azken aldaketa, PPko jaun-andreak, 2015ean zuek erregistratu zenduen, eta gaur, 2020ko urtarrilaren 22an, kriminalidadea areagotzeari buruzko ekimen bat ekarri deuskuzu, Fernández andrea, ikusten dozu kontraesana? Zigor gogoragoakaz kriminalidadea areagotu bada, zer disuasino-ondorio izan dabe urteetan zehar zigor-kodean sartu dituzuen aldaketek, espetxealdi iraunkor berrikusgarria barne? Neuk esango deutsut, bat be ez, bat be ez. Beraz, zuek defendatzen dozuen eredu birgizarteratzearen printzipio konstituzionalaren aurka doa, guk bai defendatzen doguna. Egia esan, eredu, zuen eredu, jada frogatua izan da eta, antza danez, zuk esaten dozun moduan kriminalitateak gora egin badau, zure eredu erabateko porrot gisa geratu da. Hau da, Fernández andrea, zure proposamena ez da beharrezkoa, eta, asko jota, kartzelak beteko dituna, baina biktimen justizia- eta erreparazino-beharrei erantzuten deutse, ez dau delituak egitea eragozten, eta ez dau eragozten gertaeren damurik gabeko kriminalek kalean amaitzea. Eta hau, berez, oso arrazoi ona da zuen ekimenaren aurka bozkatzeo.

Eta, PPko jaun-andreak, nire interbentzinoaren hasieran esan dot, badakizu erakunde honek ez dauela inolako eskumenik polizia-arloan edo legeria penalean? Eta, halan ta be, kriminalidadeari eta segurtasunari buruzko alkarrizketa-mahai bat sustatzeko eskatzen deuskuzu. Aizu, oker egon neinteke, inor ez dalako perfektua, baina nik Eusko Legebiltzarrean PPrek ekimen bat bilatu dot, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari antzeko zeozer eskatuz, horretan eskumena daukan ezker, eta ez dot aurkitu. Ikusten dozue? Esan deutsut, beste froga bat zuek berez ardura gitxi daukazu benetako urtenbideak bilatzeko, eta titularrak baino ez dozuezala bilatzen. Ze, Fernández andrea, horretan be ez gara bat etorriko, zure ekimenean zuk esan dozu erakunde betebeharra dala herritarren bozgorailu izatea. Gure ustez, erakundeen lana, eta erakundeotan herritarren ordezkari garen aldetik gure lana, jentearen arazoei urtenbideak eskaintzea da, horretarako jartzen gaitue hemen Bizkaiko herritarrek. Eta gaur Alderdi Popularra lan hor baztertuten dabil, segurtasunari buruzko ekimen bat proposatuz arlo

horretan eskumenik ez daukan erakunde baten, eta honezkero ez dauela balio frogatu dan eredu bat proposatuz, guk erakutsi dogun moduan.

Begira, Fernández andrea, datu objektibo bat da arau-hauste penalak, arau-hauste penalak, ugaritu egin dirala Bizkaian 2018. urtean, 2017. urtearen aldean, eta erakunde eskudunek datu horreek murrizten ahalegindu behar dabela, jakina, baina kontua da honezkero horretara dagozala. Nik aitortu deusut hori, baina zuk ezin deustazu niri eztabaidatu datu objektibo bat dala 2018ko arau-hauste penal horreek Bizkaian, adibidez 2013an, emon ziranen azpitik dagozala, eta badakizu zer gertatzen dan? 2013an Espainian Rajoy dalako bat egoala gobernatzen, seguru entzuna egiten jatzula. Eta jaun horrek Jorge Fernández Díaz izeneko barne-ministro bat eukan, urte horretako Barne Ministerioaren kriminalidade-balantzea aurkeztu ebanean esan ebana datuek egiaztatzen aabela Espainia herrialde segurua dala, 2014ko urtarrilaren 29an, bilatu nahi badozu.

Begira, Fernández andrea, Alderdi Popularreko Barne ministro batek esan eban Espainian 1.000 biztanleko 46,1 arau-hauste penaleko kriminalidade-tasa arrakasta biribila zala, Espainia herrialde segurua bihurtzen ebala, eta zuk gaur esan deuskuzu Bizkaian 1.000 biztanleko arau-hauste penalen ehuneko txikiagoagaz segurtasun-gabeziako muga-egoeran bizi garala. Benetan uste dozu hori dala Bizkaiko herritarrek eskatzen deuskuen lana? Ba, PPko jaun-andreok, jarraitu demagogiaren eta populismoaren joko errazean jokutzen, beste batzuk herritarren arazoei urtenbideak emoten saiatuko gara eta. Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Duque Santacoloma.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Gracias, buenos días a todos y a todas. Bueno, tenemos que decir que estamos de acuerdo con casi todo lo dicho tanto por Ekain como Eneritz, casi todo está dicho, estamos dando un bonito repaso a la propuesta realizada por el Partido Popular, pero bueno, yo también intentaré explicar cuál es nuestra postura respecto a este tema.

Tal y como se ha mencionado, en la interpelación realizada por el Partido Popular en el pleno de noviembre al Diputado General se analizó el aumento de los casos de robo, tráfico de drogas y agresiones machistas. Como bien señaló el señor Rementeria, en lugar de hacer una lectura integral de los datos, la señora Fernández realizó un análisis parcial e interesado en base a porcentajes, en lugar de basarse en cifras totales.

Eztabaidaren hasieran ikusi ahal izan dogu zifren gaiari buruz be eztabaida ero samarra egingo dala, gu ez gara horretan geratuko. Uste dugulako manipulazino horrek estrategia klasiko bati erantzuten deusala, nik uste dot dagoeneko politikan klasiko bat dala, eskuinaren eta eskuin muturraren estrategia bat, shockaren doktrina deitzen dana, biztanlerian beldurra arma politiko gisa erabiltea. Kontua da krisi edo hondamendi batek herritarrengan sortzen dauen bildurraz, segurtasunik ezaz eta nahasmenaz baliatzea, eta ganera sentsazino hori handitzea. Eta zein da helburua? Ba, beste une baten gauzatu ezin izango lirátekeen neurri inpopularrak ezartzea, kasurako aitatu barri dan biziarteko kartzela ezkutua, edo espetxe iraunkor berrikusgarria, zure alderdiak, gogoratu izan dan moduan, 2015ean bakarrean onartu ebana, eta gaur bee horren alde egiteko eskatzen deuskuzuen.

Gogoratu gura dot, ze hemen be gorpuztu da, esan daigun, doktrina hau edo estrategia hau, Zigor Kodearen erreformarako Kongresuan egin zan eztabaidan, Sandra Palo, Marta Del Castillo eta Mariluz Cortes biktimen elkarteetako ordezkariak eta senitarteak ikusi ebana. Horrek argi eta garbi adierazten dau zeintzuk diran mina manipulatzeko eskuinak eta eskuin muturrak erabilten dituan estrategiak.

En los últimos años hay una tendencia a hacer reformas penales en el Estado español, en los 20 años en que ha estado en vigor el Código Penal español se han hecho más de 30 reformas, es decir, más de una reforma del Código Penal al año. La mayoría han aumentado el rigor penal, ampliando los tipos penales y elevando las penas.

Esan dodan moduan, Espainiako Estatuan azken 20 urteetan erreforma penalak egiteko joera argi bat egon da, 30 baino gehiago egin dira, zorroztasun zigortzaileak tipo penalak zabaldu ditu eta zigorrak handitu. Zientzia politikoaren azterketatik, shockaren doktrina honi fenomeno politiko eta penala deitu izan jako, eta populismo zigortzailea. Arazo sozialei emoten jaken erantzun neoliberal eta neokonserbadorea da, eta horren urtenbidea pobrezia kriminalizatzea, arazoak indibidualizatzea eta zigortzeko eta errepresiorako estrategiak hartzea da.

Es importante recordar, porque el Partido Popular no lo hace, que las políticas penales y penitenciarias en el Estado español son ya muy punitivas, nos encontramos con una paradoja. Aunque las tasas de criminalidad son de las mejores de la zona, las penas y su ejecución son de las más duras, sobre todo en lo que se refiere a los delitos menores o a los denominados "delitos de los pobres". La tasa de encarcelamiento en España es de las más altas de Europa, sólo superada por Reino Unido y Portugal. Ustedes conocen estos datos, saben ustedes que este sistema judicial y penitenciario punitivo español no baja los índices de criminalidad, a pesar de todo, vienen con las mismas recetas para ofrecer una mayor seguridad a Bizkaia. Y si les dejamos, seguramente también nos propondrán la pena de muerte. En el pleno anterior también surgió un interesante debate sobre la conceptualización de la seguridad. Este debate está relacionado con la estrategia del miedo de la derecha.

Esan dot azkenengo osoko bilkuran be eztabaida interesgarria sortu zala segurtasunaren kontzeptualizazioari buruz. Eta ziur nago horrek bat egiten dauela lehen aitatu dodan strategiagaz, eskuinaren strategiagaz. Eta, nire ustez, ezin hobeto egokitzen da estrategia horregaz; izan be, segurtasunari buruz edo segurtasun faltari buruz egiten dozuen definizioak definizino hori herritarren segurtasunaren kontzeptura mugatzen dauelako, edo Fernández andreak lagunartean adierazi eban moduan, "libre ibiltera kalean".

Y usted utilizó este tipo de expresiones en el anterior pleno, y me llamó la atención que la señora Fernández subrayara la preocupación de las mujeres y utilizara en su argumentario algunas de las ideas que el movimiento feminista ha tachado de lemas, como: "Para llegar a casa no quiero ser valiente, quiero ser libre".

Egia da etxera bildurrik barik itzultzeko eskubidea aldarrikatzen dogula, baina jakin badakigu, gogorarazi deutsuen moduan, sexu-eraso gehienak ez dirala kalean gertatzen, 5 haurretatik lek sexu-indarkeria motaren bat jasaten dau 18 urte bete aurretik, eta erasotzaileen %85 biktimak maite eta errespetatzen dituan personak dira, zer proposatuko deuskuzu, ikastetxeetan be polizia gehiago jartzea? Kirol klubetan, gure etxeetan? Hau ez da delinkuentzia, hau patriarkadua da.

Además de sumarse a las declaraciones institucionales en los espacios marcados en morado, si ustedes escucharan lo que el feminismo lleva reivindicando desde hace años, no vendrían aquí con este tipo de propuestas. El manifiesto leído por el movimiento feminista al término de la movilización que el pasado 25 de noviembre recorrió las calles de Bilbao fue contundente, con el lema de este año: "Todo está dicho, todo está por hacer". Y, ¿qué queda por hacer? Presupuestos con perspectiva de género, incremento de la inversión en políticas sociales, inclusión de la coeducación y el lenguaje afectivo sexual en los currículos escolares, mejora de la RGI, derogación de la ley de extranjería, acabar con la brecha salarial y una justicia feminista. Pero en lugar de eso, ustedes criminalizan un programa como Scolae, que promueve la educación afectivo-sexual y que ha sido premiado por la Unesco, o establecer un pin de paternidad, por cierto, el de maternidad se les ha olvidado por el camino, Esa es su receta,

combatir la inseguridad con miedo, represión y desinformación. Ante la doctrina del shock nosotros lo tenemos claro, no tenemos miedo.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Es el turno del representante del grupo Euzko Abertzaleak. Tiene la palabra el señor Atutxa Sainz.

El Sr. **ATUTXA SAINZ** jaunak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días a todos y todas.

La verdad es que el discurso de la señora Fernández hoy no nos ha sorprendido. También en la campaña electoral de mayo vimos a la candidata del PP hacer de la seguridad de Bizkaia una reivindicación en su discurso. Y tenemos que decir que allí nos sorprendió un poco, pero hoy no.

Porque la Diputación Foral y estas Juntas Generales no tenemos ninguna competencia ni responsabilidad en materia de seguridad.

Ez Foru Aldundiak ez Batzar Nagusiek ez daukagu eskumenik segurtasunaren arloan.

Baina tira, hau zuek, Fernández andrea, ondo be ondo dakizuena da. Baina tira, zuek Alderdi Popoularretik erabagi dozue gai hau aireratzea, ze badakigu geuk be hil edo biziko kontua dala, jakina. Entzun deusugu, entzun dogu zure interbentzinoa, eta ez da asko urruntzen, lehen gogoratu deusudan moduan, Batzar Nagusietarako hauteskundeetarako kanpainan nahiko harritura entzun ahal izan gendunetik. Eztabaidetan entzuten deusugu, nolabaiteko harriduraz, ze gai bati buruz hitz egitea Ganbera gisa horretarako ez bape eskumenik ez daukagunean, ba, esan bezala, bere garaian harritu egin ginduzan, gaur ja ez.

Begira, guk, Euzko Alderdi Jeltzaletik, ez gure diskursoa, ez gure segurtasunaren esparruko politika ez dogu oinarritzen esku gogor, makila eta eta artez egoteko joera eta populismo zigortzailean bakarrik, hemen gogorarazi jatzun moduan, eskuin muturraren diskurtoak arrastaka eroaten zaituen populismo zigortzailean.

Ondo be ondo dakizue espetxealdi iraunkor eta berrikusgarriaren kontra gagozala. Zentzuz, zuk esaten zenduan moduan, espetxealdi iraunkor eta berrikusgarriaren kontra gagoz. Eta, zuk ez dozu zalantzarik egin zure legez besteko proposamenaren funtsezko puntuetako moduan sartzeko. Hau da, norbaitek puntu bat sartzen dauenean jankinda gainerako taldeok guztiz kontra gagozala, bistan danez, bilatzen ez dituen babesak dira, eta bilatzen ez dituen adostasunak dira. Ez dau egiten.

Los índices de criminalidad en nuestro país no son desproporcionados, está por debajo de la media estatal y europea. Pero yo no voy a usar estadísticas. Mire, a pesar de que las estadísticas son muy bajas, no ayudan, no sirven para consolar a las personas que entran en esas estadísticas, eso es cierto. Además, en temas de seguridad, a menudo, la percepción de inseguridad es la que prevalece sobre las estadísticas reales.

Guretzat herritarren segurtasuna berebiziko kontua da. Eusko Jaurlaritza eta gure udalak ahalegin handia egiten dabilz gure segurtasuna zaintzeaz arduratuko diran gizon- eta emakume-plantillak ugaritzeko eta gaztetzeko.

Y recuerde, señora Fernández, que ese proceso de renovación recibió inconvenientes en los últimos tiempos en los que el Partido Popular estuvo en el gobierno.



Ahora sí, debemos tener claro que es imposible poner un policía en cada rincón. Eso es totalmente imposible. La seguridad absoluta, mientras haya personas para delinquir, es absolutamente imposible, es absolutamente imposible.

Argi daukaguna da gure segurtasuna zaintzen daben poliziek, dala tokikoa, dala Ertzaintzakoa, eta abar, modu koordinatuan lan egin behar dabela, eta adi egon behar dabela gure kaleetan agertu daitekezan delinkuentzia-modu barrietara. Eta ados gagoz, era bereran, hitza aurretik hartu dabenek egindako ohar batzukaz, hau da, askotan segurtasunik ezaren eta delituaren esparru hori ez dagoala kanpoan bakarrik, etxean be badagoala.

Argi daukagu, baita be, amaitzeko, ez goazela estrategia horretan parte hartzen, barriro esango deutsut, populismo zigortzailearen estrategian, Talde Popularretik, Alderdi Popularretik bultzatzen zabiziena. Eta, horrenbestez, gure botoa arauz besteko proposamenaren aurkakoa izango da. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Gracias, y pasamos al turno de respuestas, para eso la representante del Grupo Mixto Partido Popular Bizkaia, señora Fernández Angulo, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Egun on barriro. Ba begira, nik proposamen hau aurkeztu neban adostasunerako asmoz, jakina, hainbestearaino ze, adi-adi entzun neban joan den hilean aurkeztu neban interpelazinoari emondako erantzuna, eta proposamen hau egin dot zuek populismo zigortzailea deitzen deutzazuela jakin barri dodan horretan pentsauta.

Nik zure talde-buruari, Atutxa jaunari, entzun neutsan eta eskatu eban, eta, gainera, hedabideek primeran jaso eban, hau da, hemerotekan dago, eskatu ebana da zigorrak gogortzea, oso kezkatuta egoalazko delituetan barriro jausteagaz. Beraz, informazio-batzordean jorratzeko hasieran planteatu neban proposamena errepikatu banau, zuk esango zeustanimobilista nazela eta ez dudala inolako gaitasunik zure taldeak onartzeko moduko proposamenik egiteko; eta iragazkorra nazenean, proposamena aldatzen dot, eta zure taldeko buruaren hitzaldira hurrerutzen dot. Izan be, zuk inoiz esan deustazunez, jeltzale ordenatuak zariela, nik ulertu neban, zuen taldeburuak legedia gogortu behar dala esaten badau, batez be delituak barriz egiten dabezenentzat, eta hori, gainera, Alderdi Popularrak be partekatzen duen kontua da, eta adibide gehiegi emon doguz; ba nik uste neban babes emongo zenduela. Baina gauza bat egiten badot, immobilista nazela esaten deustazu, eta zure taldeburuaren hitzaldira egokitzen banaz, zuk populismo zigortzailea leporatzen deustazu.

Begira, Podemoseko bozeramailearen hitzaldiari jagokonez. Nire proposamenaren lehenengo puntua elkarrizketari buruzkoa da, parte-hartzeari buruzkoa, guk ez dogu zuk planteatu dituzun bezalako eztabaidak eten gura. Onartzen ez dodana da, eta hemendik esaten deutsut, zuk zalantzan jartzea talde honek esparru pribatuan gertatzen diran sexu-delituakaz daukan konpromisoa. Baina, logikoa danez, zuk oso ondo dakizu, talde honek estatu-itun bat bultzatu ebala arlo horretan, eta gai horri be heltzen deutzala. Orduan, ez deutsut onartzen, eretxi publikoaren aurrean nire taldearen irudi hori emon gura izatea, ze zuk ondo dakizu hori ez dala holan.

Beraz, alkarrizketa eta parte-hartzea, ez bakarrik arduradun politiko eta instituzionalena, mahai horretan be esaten genduan herritarrek parte hartuko dabela, eta gastu soziala handitzeko premia berba egin eitekeala. Gauza bat gertatzen da, estadistiketara goazenean, aurrekontua gauzatzeari buruzko emaitzak ikusten doguzanean, argi ikusten da urtez urte gastu soziala handitzen doala. Baina kriminalidade-estatistikek adierazten dabe ez dagoala

lotura argirik gizarte-arloan gehiago gastatzearen eta kriminalidadea gitxitutearen artean. Baina nik ez deusat uko egingo eztabaida horri, niri eztabaida hori be interesgarria egiten jat. Eta, beraz, pentsau dot mahai honetan be tratau eitekeala aukera bat zala, ea beharrezkoa dan sakontzea. Zuk atea ixten dozu. Eta hori holan da.

Zuek esaten dozue zuen asmoa alarma soziala sortzea da. Nirea ez, nik Bizkaiko herritarrek zer pentsetan daben ikusi besterik ez dot egiten. Aizu, zuek orain dala gitxi azterlan soziologiko bat helarazi deuskuzue, talde nazionalistako bozeramaileak gai hori hil edo bizikoa dala esan eban. Hain da funtsezkoa, zuek oraintsu taldeari bialdu deuskuzuen azterketa soziologiko horretan adierazi dozue bizkaitarrentzat hirugarren arazo garrantzitsuena delinkuentzia eta herritarren segurtasunik eza dala. Lehenengo jarduera ekonomikoa eta lana dagoz, gero enpleguagaz zerikusia dauken arazoak, baina oso gertu arazo hau aitatzen da.

Baina azterketa horretan badago niretzat gauza inportanteago bat, ze batzutan esaten dozu, zeintzuk dira arazorik garrantzizkoenak? Eta baliteke Bilduko bozeramaileak esaten eban alarma sozialaren kontu horretan iragazkorrak izatea. Baina azterketa horretan hurrengo galdera hau da: zein da zuri pertsonalki gehien eragiten deusun arazoa? Eta hor konplikatuagoa da alarma sozialaz hitz egitea. Bizkaitarrentzat hirugarren arazoa. Nik badakit, eta zeuk be bai, segurtasun eredu bat dala, eta Alderdi Popularrarena oso urrutikoa da, eta nik seguru dinotsut orain lasaiago joaten nazela kaletik. Orain dala 10 urte artegago joaten nintzat, orain lasaiago noa, zuk ulertzen deustazu, ezta? Argi dago politikaren eta segurtasunaren ikuspegi bat dakugula antipodetan dagoana, hori holan da, zorionez mundu guztiak daki.

Herritarrok kontziente izan behar dogu Batzar Nagusiotan zeintzuk diran herritarren kezkek. Baina kontua da hemen, antza danez, edonork berba egin leike bizkaitarren arazoez, PPK izan ezik. Izan be, zuei gogaikarria egiten jatzue bizkaitarren kezkei buruz hitz egitea, eta noski, baliagarria izateko, Rico jauna, zuei arazoia emon behar jatzue. Batek egiten badu Alderdi Sozialistarena ez dan proposamen bat, baliagarria ez den Alderdi bihurtzen da. Tira, goia jo dozu Vox sistematikoki aipatu dozunean; Bizkaian gagoz, eta hemen ez dauke ordezkartzarik. Baina, era batera edo bestera, begira, zuk hareek gogoratu deustazuz, eurak gogoratu deustazuz zure interbentzinoan, badakizu zergaitik? Eurak be niri oso arriskutsua iruditzen jatan gauza bat egiten dabelako, eta zuk gaur espetxealdi iraunkor berrikusgarriaren gaiagaz egin dozuna, esanez: aizu, oraindik be kasuak dagoz, beraz, zuek mahai gainean jarri dozuen urtenbidea ez da egokia. Badakizu, hareek be halan egiten dabe.

Genero indarkeriaren aurkako itunagaz egiten dabe hori, eraildako emakume bat dagoan bakotzean gainerako demokratei itun hori aurpegira botatzen deuskue, niri arduragabekiaz jokutzen egiten jat. Neurriek, legeek ez dabe berehalako ondoriorik sortzen, baina niri positiboa iruditzen jat, bai, kriminal batek larritasun bereziko delitua egin dauenean, profesionalek, ez politikariek, birgizarteratua ez dagoala esaten dabenean, nik uste dot arduradun politikoek gizartea babesteko ardurea daukagula, eta, beraz, birgizarteratuta ez dagozanak, eta larritasun bereziko delituak barriro egin leikezanak, gizartea babestu egin behar dogula gizartera itzultzeko, eta, beraz, gizartera itzultzen diranean bermatu ez dirala barriro horretan jausiko. Baina, benetan, ez egin hori, ez egin hori, zure diskurtsoaren antz handia daukaako eta hareek dauken arduragabekeriaren antz handia daukalako. Nik bai uste dot neurriek ez dabela ondoriorik izango epe laburrean, jakina, epe ertainean edo epe luzean hori posible da.

Zuek esaten dozue, ez daukagu eskumenik, eta nik uste dot erantzukizun bat daukagula zerbitzu publiko baten truke ordaintzen badogu, eskubidea izango dogu exijitzeko...

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Señora Fernández, por favor, vaya finalizando.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Ontxe amaituko dot. Eraginkortasunari eta efizientziari jagokonean, eta hori da proposamen honetatik lortu gura dana. Tira, sentitzen dot aurrera ez ateratzea, baina uste dot horrek ez dauela ekarriko bizkaitarrek herritarren segurtasunaren arloan arduratuta jarraitzea eta lurraldeko erakunde-arduradunei arazo honen aurrean urtenbideak bilatzeko konpromiso handiagoa eskatzen jarraitzea. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Gracias. Señora De Madariaga Martín, representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, tiene la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora presidenta. Ondo ikusten dot zuk ez onartzea. Onartu egin zeinke edo ez, baina, benetan, irudia zeuk bakarrik emoten dozu, nik ezertan lagundu behar barik; izan be, zuri apur bat entzun besterik ez da behar. Laburra izango naz. Lehenengo interbentzinoan esan deusut, zure diagnostikoa ez da zuzena, gizartean alarma sortzeko interes argia daukan diagnostikoa da, bai zeu bai zure alderdia horretatik bizi zarie-ta. Zuk erasoia persona jakin batzuegan zentratu gura dozu, hain zuzen be, gure gizarteko persona ahulengana. Eta esan deusudan moduan, horrek arrisku bat dauka, eta zuek onartu beharko dituzuen ondorioak, diskurtso horrerri eusten badeutsazue.

Eta planteatzen dozun urtenbidea be ez da baliagarria, zigor eraginkorrenak espetxe zigorrak diralako idea zabaldu dozu, eta zenbat eta luzeagoak hobeto. Eta, itxidazu, badakit zuk ez dozula esan, baina nik lerro artean irakurriko dot, ze zuek esan nahi dozuen eta esaten ez dozuen da, kartzelak edukiontzizat erabili nahi dituzuela, zuek personatzat barik giza zabortzat hartzen dozuezanen edukiontzizat. Izan be, zuentzat, gizarte-bazterketako egoeran dagozan personak horixe dira antza. Eta uste dot gizarteratzeazeezer entzungo zenduala, zuk horretaz hitz egiten dozu orain, konstituzioaren 25.2 artikuluan agertzen dala-ta, baina esango deustazu, benetan, espetxealdi iraunkor berriusgarriak zelan bermatzen dau hori? Ez? Askatasunaz gabetzeko zigorrak eta segurtasun-neurriak berreziketara eta gizarteratzerara bideratuta egongo dirala dino. Funtzio horreek, gainera, nekez eta urrutitik baino ez ditu beteten gure espetxe-sistemak. Fernández andrea, esaidazu, zelan bermatuko dau espetxealdi iraunkor berriusgarriak kriminaltasun-maila jaisteia eta, gainera, presoan gizarteratzea hobetzea?

Itxidazu esaten, ez dau ezer bermatzen. Portugalekoa bezalako esperientziak hurrean daukaguz, Espainiakoak baino askoz zigor baxuagoakaz, eta kaleetan ez dago hemen baino segurtasun gabezia handiagoa. Eta badira beste herrialde batzuk, beste adibide batzuk, hala nola Holanda, presondegiak ixten jarraitzen dabena. Begira, 2017an 19 espetxe itxi ebezan. Norvegia da beste adibide bat espetxe-sistema desberdina daukana, hain zuzen be zuk planteatzen dozunaren kontrakoa, espetxe-sistema ireki bategaz, konfiantza- eta erantzukizun-mailetan oinarritzen dana. Hain zuzen be, hor lantzen dabe gizarteratzea, eta munduko jauste-tasarik txikienetako bat dauka, begira, ikusten dozu.

Badira zuk proposatzen dozuna baino eredu askoz eraginkorragoak, baina horrek beste mota bateko neurriak artikulatzea eskatzen dau, eredu sozial eta kultural oso bat eskatzen dau, eta, baina zu ez zagoz horren alde lan egiteko prest. Eta gero, baditugu beste adibide batzuk, zuei gustatzen jatzuezanak: Estatu Batuetakoa, zuek gura dozuen, ea ia zeezer inketan jakun, ezta? Kriminaltasun-maila oso handia daukana, eta estatu batzuek, gainera, biziarteko zigorrak ganera, heriotza-zigorra bera be ezarten dabe, eta ikusten dozunez, ez dakit, eraginkortasun-maila bikaina izan behar dabe, ez, emaitzei erreparatuta.

Begira, Fernández andrea, herritarren segurtasun-pertzepzinoa hobetu nahi badozu, altxau eta euskal erakundeen eta estatuaren aldetik erantzun sendo eta irmoa eskatu, baita be ha osatzen daben sistema guztien aldetik be, herritar guztiok bizitzeak merezi daben bizitza euki daigun. Ganbera honetan denoi ahoa beteten jakunean inor atzean ez izteaz hitz eginez, errealidadeak esaten deusku politika publikoak kasu gehienetan aringarri bat dirala eta ez deusela arazoaren funtsari helduten. Eta horregaitik jarraitzen dogu desberdintasunean gora egiten eta horregaitik jarraitzen dogu pobrezian gora egiten. Beraz, nire ustez egokiena izango litzateke eztabaida eroatea bete puntu honetara, zer gizarte-eredu gura dogun, lehenik eta behin, eta poliziaz eta segurtasunaz hitz egin behar bada, hain zuzen be hausnarketa egin zer eginkizun izan behar dauen poliziak eregi gura dogun gizarte-eredu horretan, eta ez alderantziz, zuek egiten dozuen moduan.

Baina horri buruz, lehen esan deusut, luze eta zabal berba egin da Eusko Legebiltzarrean, eta guk jarraitzen dogu pensatzen segurtasuna ez dala polizien, epaileen edo espetheen kontua bakarrik, alkarte eta erakunde guztiena, sakoneko arazoei eta egoerei erantzunak eskaintzean datza, gehienetan adikzioei, gaixotasunei, pobrezia, desberdintasunei. Beraz, gure ustez, gizarte-politikek, politika ekonomikoek eta kultura-politikek osatu behar dabez segurtasun-politikak, besteak beste, eta ezinbestekoa da leheneratzeko justizia proposamenak sartzea, kasurako bitartekaritza, eta ez zigorrak areagotzea, ezta espetxealdi iraunkor berrikusgarria zabaltzea be, eta lehentasuna emotea askatasunen, justizia sozialaren eta bardintasunaren eta jasangarritasunaren aurkako delituak prebenitzeko eta jazartzeko estrategia gehiago eta hobeak garatzeari.

Horreek dira gure lehentasunak, guztion ongizatearen eta eskubideen alde egitea, eta ez ditugunez partekatzen ez mamina ez azala, ulertzen dogu zuk be ulertuko dozula ez dogula mozino honen alde egingo.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Tiene la palabra el representante del Grupo Socialista, señor Rico Lezama.

El Sr. **RICO LEZAMA** jaunak: Eskerrik asko. Fernández andrea, Voxen antza daukagula? Mutur ederra, aurpegia behar da, ezin deusut beste era bateraesan, aurpegia euki behar da hona etorri eta lehen interbentzinoan bota dozunabotateko eta bigarren interbentzinoan bardin. Begira, zuk esandako gauza bat gogoratuko deusuu, nahiko grazia euki eban: ahatearen moduan hegaz egiren badau, ahatearen moduan badabil, eta ahatearen moduan berba egiten badau, Vox da.

Fernández andrea, Vox da, sigla Alderdi Popularra izan arren, aurretik izan ditudan askok gogorarazi deusuen moduan. Barrua behar da hona etorri eta besteok Voxen antzekoak garala esateko. Eta nik lehen esan deusudana errepikatuko deusut, uste dot Alderdi Popularrak Euskadin ezezagunerako bidea hartu dauela. Eta nik asko sentitzen dot benetan, asko sentitzen dut utzikeriagatik, zure alderdia egiten dabilen utzikeriagatik.

Gaira itzuliz, begira, argi eta garbi esan deusut, eta gauza batek harritzen nau, harritu egiten nau nik esan deusudazan puntuetatik bateri be ez deusazula erantzun edo kontra egin, bateri bez, ezin dozulako, ezin dozulako kontra egin, eta harritu egiten nau. Datuak be emon deusudaz, arin-arin egiaztatu daizun esan doguna egia ete dan, halantxe da ta. Eta harrigarria da, hiru puntuen oinarrietako bakotxa kenduta, zuk erabaki izana hona urten eta besteei leporatzea Voxen antza daukagula, zure ekimeneko puntuak defendatu beharrean.

Nik esan deusut arau-hauste penalak gehitu ahal izateko beharrezkoa dala erakunde eskudunek lanari ekitea, eta esan deusut, datu objektiboa da, 2018. urtean igoera bat egon zala arau-hauste penaletan 2017. urtearen aldean. EH Bilduren ordezkariak primeran esan

deutsu, zuk datuekin jolastu egiten dozu, zuk arau-hauste penalak nahastau egiten dituzu, delituak eta faltak barruan dirala, eta, nahi dozunean pilotatxoa erabilten dozu delituez bakarrik hitz egiteko, eta beste batzutan pilotatxoa erabilten dozu hutsegiteez bakarrik hitz egiteko, eta dana nahastau egiten dozu. Zuk aitatu dituzun txostenak, badakizu arau-hauste penalak barruan hartzen dabezala, delituak gehi faltak direla. Arau-hauste penalei buruz hitz egiten badozu, eutsi konparazino horri zure interbentzino osoan, betela tranpak egitea da, tranpak egitea da. Ez dau balio arau-hauste penalakaz hasi eta gero delituakaz amaitzea, gero faltetara joateko, komeni jatan datuaren arabera, eta ezin hobeto esan deutsu EH Bilduren ordezkariak, ez dau balio, tranpak egitea da, eta jakina, ez da mesedegarria. Eta ez Alderdi Sozialistagaz ados ez dagoalako, hori logikoa da, ikusi, Alderdi Sozialistagaz ez dagoz ados ganberako beste talde batzuk, baina baliagarritasuna, gure ikuspuntutik behintzat, eta ez daukazu horretaz zertan arduratu, ezta modu batera edo bestera izan beharrik be, baina baliagarritasuna, bistan danez, datu errealakaz behar eginda lortzen da, eta ez datuak manipulauta nik gura dodan emaitza lortzeko. Horrek ez dau balio.

Eta gogorarazi deutsut 2018ko datu hori objektiboki 2013ko datua baino hobe dala, nik prestatuta euki dot, batzuetan datuak be zalantzan jartzen dituzu ta, Jorge Fernández Díaz jaunak azaldu ebanean Espainia zala Europako txapelduna segurtasunean, 1.000 arau-hauste penalen gaineko 46,1eko datuagaz. Eta Bizkaian 2018an datu horren azpitik gagoz, Fernández andrea, noiz esaten eban guzurra PPK, 2014an edo gaur ganbera honetan? Noiz esaten eban guzurra PPK? Momenturen baten guzurretan ebulan eta. Nik erabat argi geratzea nahi dot, Alderdi Sozialistak segurtasun integralagaz daukan konpromisoa argia eta agirikoa dala, herritarren segurtasunik ezari buruzko datuak gehitu ezker erantzun argia eta agirikoa eskatzen dabe erakunde eskudunen aldetik.

Nik barrero esango deutsut. Herritarren bozgorailu izan beharraz hitz egiten dozu; bain ez, herritarrei primeran entzuten jake, hemen jartzen gaitue beren arazoak konpontzeko, gure eskumenetan oinarrituta. Non dago ekimen hau Eusko Legebiltzarrean? Ez dago, ez dozuelako nahi, ez jatzue bape ardura arazo honeri benetako konponbidea emotea, nahi dozuena da titular bat komunikabideren baten, kito. Eta horregaz ez da jolasten, ez da jolasten, hori baita, benetan, herritarrei mesederik ez egitea. Eta lehen be esan deutsut, eta ondo ulertzea gura dot. zuen eredu porrot egindakoa da. Porrot egindakoa, esaten deuskuzuean delinkuentziaren urtenbidea zigorrak igotzea dala, De Madariaga andreak ondo esan dauen moduan, Espainian zigorrak Europar Batasunaren gainetik dagoz honezkero, eta, bide batez, nik gogorarazi nahi deutsut, uste dot Euzko Alderdi Jeltzalearen ordezkariak be esan dauela, Espainia munduko herrialde seguruenetako bat dala, munduko mailan, eta Bizkaiko datuak batez bestekoa baino hobeak dira.

Beraz, Fernández andrea, nik eskatzen deutsudan gauza bakarra da hona arazo bat ekarten deuskuzuean, ahal izan ezker, Batzar hauen eskumena izatea, eta, bigarren, datuei buruz hitz egiten dogunean, konparazinozko termino bera erabiltea tranparik ez egiteko. Besterik ez eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Duque Santacoloma.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Gracias. Si antes he dicho que casi todo estaba dicho, esta vez más aún. Bueno, tal y como he explicado antes, hoy estamos profundizando también en el debate de la percepción versus datos objetivos. Y ustedes no inciden en los datos objetivos, hacen una lectura parcial, eso sí, pero los datos son datos en definitiva, y no se pueden manipular. Podemos estar en el debate de la lectura de esos datos, pero podemos estar aquí, quizás en torno a ese largo quizás.

Pero lo que está al otro lado de ese versus, lo que he mencionado, en la medida en que la percepción, la percepción del miedo es subjetiva, eso sí que se puede manipular, y eso es, como he dicho antes, lo que ustedes hacen. Eso es ampliar la doctrina del miedo.

Esan dodan moduan, lehen aipatu ditudan zigor-aldaketen ondorioetan sakondu beharrean, ondo dakizuen bezala, hemen gogoratu izan dogu, ez dirala delituen kopuruetan igarten. Izan be, hemen eztabaida bat planteatzen da hiru proposamenegaz, hiru neurri dira zuek proposatu dituzuenak. Gai horreei buruz hitz egiten da nahiko arintasunez, esango neuke nik, eta neure buruari galdetzen deitsat ia ezagutzen dozun hilketa-kasuetan dagozan berrerortzeen ehunekoa. Zenbat personak hilketa bat egin eta aske geratu eta ostean egin dabe barriro delitu hori? Badakizue? Espetxeetako biztanleriaren ze ehunekok beteten dau gaur aipatzen zabizien profila, giza hilketa, bortxaketa eta abarren kasuetan? Une honetan espetxean dagozan presoen zein portzentajek erantzuten deutso profil horrerri? Zenbat aldiz aplikatu da espetxealdi iraunkor berrikusgarria 2015ean onartu zanetik? Bat, bi, bapez? Zein da ezarri daiteken kondenarik handiena edo zein zan aitatutako biziarteko zigorra onartu aurretik? Zenbat urte igaro leikez persona batek hilketa-kasu batean? 20, 25, 30, 40 urte akaso? Galdera horreen erantzunak ete dakizuezan jakin nahiko neuke.

No me voy a volver a enredar en el mismo debate, porque, como hemos dicho, ustedes vienen con la misma receta, sin profundizar realmente en el tema y en la problemática, y su receta, como he dicho, es la represión, la difusión del miedo y la desinformación, y me gustaría saber, yo en mi primera intervención he mencionado dos ejemplos claros, concretamente la criminalización del programa Skolae, me gustaría saber cuál es su opinión sobre este programa. o cuál es su opinión sobre la iniciativa del Pin parental que acaban de aprobar en Murcia.. Si creen que este tipo de medidas ayudan o no, para hacer frente a los casos de violencia machista. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Y el representante del grupo Euzko Abertzaleak, señor Atutxa Sainz, tiene la palabra.

El Sr. **ATUTXA SAINZ** jaunak: Si, gracias señora presidenta.

Oso labur, Fernández andrea, leidu eizu Ahaldun Nagusiak esan ebana, lehenenego eskutik, jatorrizko bersinoan, merezi dau, leidu eizu. Hori alde batetik; bestetik, populismo zigortzaileari jagokonez, ez baita bozeramaile honek asmatutako termino bat, ezta gitxiagorik be; gustauko litxakit, gustauko litxakit. Termino hori erabili eban Mikel Legarda gure kideak Diputaduen Kongresuko eztabaidan, hain zuzen be, espetxealdi iraunkor eta berrikusgarriaren gaia eztabaidatzen ibili ziranean; beraz, ez da barria.

Amaitzeko, Fernández andrea, eskerrak emon gura deusudaz; izan be, ni gaur animoz apur bat makal nentorren, eta irribarre bat ateratea lortu dozu hitz egin dozunean eta esan dozunean zure ekimena akordiorako gogoan planteau dozula. Aitortzen deusut, luzaroan entzun dodan onenatarikoa da, onenetakoa, ikusiko dogu akordiorako asmo bakoa dan zerbait planteatzen dozunean, ikusiko dogu zer izango dan. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Una vez finalizado el debate, someteremos a votación la moción.

Podemos votar.

El resultado es el siguiente, se han emitido 49 votos en total, 2 afirmativos, 47 negativos, no ha habido abstenciones, por lo tanto, no se ha aprobado.

Tercer punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO/IDAZKARI** jaunak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Moción derivada de Interpelación ([R.E.11/E/2019/0002539](#))

**Autor:** Ilardia Olangua, Beatriz (EHB)

**Asunto:** Medidas para el no empleo del Síndrome de alienación parental por parte del Servicio de Menores.

**Documento Principal:**  
([R.E.11/E/2019/0002539](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (5A)

**Expediente:** ([11/B/20/0000555](#))

3.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta bozkatzeari:

**Jatorrizko ekimena:** Itaunetik eratorritako Mozinoa ([11/E/2019/0002539SE](#))

**Egilea:** Ilardia Olangua, Beatriz (EHB)

**Gaia:** Umeen Zerbitzuak Guraso Alienazioaren Sindromea ez erabiltzeko neurriak

**Dokumentu Nagusia:** ([11/E/2019/0002539SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (5A)

**Espediente:** ([11/B/20/0000555](#))

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de la juntera que ha presentado la iniciativa, la señora Ilardia Olangua andrea. Tiene la palabra.

Decir que los grupos han logrado una enmienda intermedia, y eso será lo que finalmente se someterá a votación.

Tiene la palabra, señora Ilardia Olangua.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Señora presidenta, miembros de la mesa, apoderados, apoderadas y trabajadores, buenos días.

El tema grave y sensible que he tratado en varios plenos anteriores nos ha llevado de nuevo a interponer la moción derivada de la pregunta que hicimos. El objetivo de la petición de nuestra moción es el siguiente: que el servicio de los niños de la Diputación, basado en el síndrome de alienación parental o cualquier otro eufemismo del mismo significado, como instrumentalización, manipulación, no retire a ninguna madre una custodia más. Ese era el objeto de nuestra moción. Una de las claves creemos que es la herramienta Balora, aprobada por Decreto.

Balora tresna bestelako helburuagaz diseinatuko zan segurutik, eta ez lortzen dituan emaitzak aterateko, eragin dauen eta mozino honen gaia dan arazo serio honeri jagokonean behintzat, modu leun baten esateko. Tribuna honetatik behin baino gehiagotan berba egin dot SAPari buruz, guraso-alienazioaren sindromea deritxonari buruz. Richard Gardner mediku estatubatuar psikoanalista asmatutako konstrukto horretaz, eta ezagutzen ez dauenari

webgunean irakurteko aholkatuko neuskio. Richard Gardnerrek 1985ean asmatu eban termino hori, intzesto eta abusuakaitik salatutako gurasoen defentsarako tresna gisa erabilteko. Gardnerren arabera, guraso-alienazioaren sindromea garun-garbiketa bat da, eta gurasoetako batek, normalean amak, beste gurasoaren aurka, normalean aita, egiten deutsana semeari edo alabari, eta, holan, aita alienatzea lortzen dau, aita hori semearen edo alabearen bizitzatik kentzea, desagerrarazteko, eta haurra bere aitak sexualki abusatu ebala uste izateraino iritsi daiteke. Horixe uste eban berak eta bere teoriak, eta jaun horrek, eta, beraz, bere teoriak, mehatxuaren terapia proposatzen eban, hau da, haurrok jasaten daben ustezko programazino horregaz amaitzeko, amengandik aldentzeko mehatxua egin. Horrek behartu egiten ditu, arrazoi handiren bategaitik, hartu-emonik euki gura ez eben gurasoagaz hartu-emonia onartzera.

Como decía, este instrumento de Balora, regulado por decreto de seguros, no tenía seguramente, no tenía el mismo objetivo que Richard Gardner con la teoría de su SAP, pero tenemos que decir que si no era ese el objetivo, sus efectos han sido los mismos en muchos casos. La privación de la custodia de la madre y la entrega a menudo al progenitor denunciado por violencia o abuso sexual, sin realizar una investigación previa exhaustiva sobre las causas de exclusión paterna del niño o niña y sin tener en cuenta los antecedentes por violencia en la pareja.

Horrek hausnarketa serio batera eron behar gaitu, eta uste dot, benetan uste dot, horretan gagozala azkenean lortu dogun akordioa bideratu dogun indar politiko guztiak, eta bihotzez dinot. Uste dot erantzukizunez jokatzeko gabizala, parkatu, eta aurrez aurre begiratzen lurralde honetan neska askok, adingabe askok eta ama askok bizi daben errealdetari. Alde horretatik, Euskal Herrian Bildukoak poztu egiten gara, eta gure esker onik zintzoena erakutsi gura dogu, azkenean gaur hona ekarriko dogun akordioa lortzeko gainerako indar politikoengan aurkitu dogun ahalegin eta prestutasunagatik eta sintonia onagatik.

Medidas acordadas para reforzar el trabajo de los profesionales del servicio infantil, ofreciendo formación específica y continuada en materia de abuso sexual infantil y violencia machista. Analizar la influencia y/o consecuencias de este ítem de instrumentalización que aparece en la herramienta de distribución parental Balora.

Y tres: realizar, junto con Emakunde y el resto de agentes de la comunidad científica, una reflexión sobre el sistema de respuesta que se ofrece actualmente en materia de abuso sexual infantil. Estudiar proyectos piloto como el Barnahus o la casa de los niños de Cataluña .

Adostutako neurri, gogoeta eta jarduketa guztiak oso urrats garrantzitsua dirala uste dogu, eta Euskal Herria Bildutik nahi genduan bidean kokatzen dira. Nire esku-hartzearen hasieran esan dodan moduan, Haurren Zerbitzutik, gure Aldundiak ez dagiola tutoretza bakar bat be kendu haur baten babesgabetasuna babesten dauen ama bati, ustez, amaren instrumentalizazioan oinarrituta.

Lortutako akordioa zentzu egokian doa gure lurraldean haurren sexu-abusua hautemateari jagokonez; eta emakumeak, neskatoak eta mutikoak gure lurraldean indarkeria matxistatik babesten saiatzeari jagokonez; eta, batez ere, ziur nago lortu dogun akordio honek inflexio-puntu bat ekarriko dauela, inflexio-puntu bat eta modu inkontzientean laguntzeari ixtea. Ez nahita, ez dot inolako zalantzarik horretaz, baina sistema gaizto batez, aitek beren seme-alabak izateko dauken eskubidea lehenesten laguntzeari, horrek aurre egiten deutsalako haurren interes gorenari. Eta hori, hori izugarria da halako gertakariakaitik kondena judizialen kopurua hutsala dan gizartean, eta izugarria da gure haurren %20 inguru familia barruko sexu-abusuen biktima diranean. Zalantzarik gabe, egun handia da bizkaitar askorentzat, eta funtsean gure lurraldeko neska-mutil askorentzat. Eskerrik asko.



La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Siguiendo con el turno de grupos, tiene la palabra la representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señora De Madariaga Martín.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora presidenta.

Esta enmienda que traemos hoy la hemos elaborado entre los dos partidos del equipo de Gobierno y otros dos de la oposición.

Esta enmienda, está elaborada entre diferentes pero persigue los mismos objetivos, es decir, dar los primeros pasos para acabar con este "pseudo-síndrome" que cada día hace mucho daño a tantos niños y madres.

Estas consecuencias adoptan la forma de violencia institucional cuando se aplica el síndrome SAP, a los niños y a las madres que han sufrido violencia sexual y machista.

Esaten neutsuen ondorio horreek indarkeria instituzionalaren itxura hartzen dabela, batez be gurasoen alienazinoaren sindromea aplikatzen danean indarkeria matxista eta haurrek eta euren amek jasandako sexu-abusua kontuan hartu barik.

Eta halango kasuetan, erakundeak batzuetan barriz biktimizatzeko agente bihurtzen dira, indarkeria matxistaren biktima diran emakumeen babesaz eta arretaz arduratzen direnak, eta haurren babesa be zaindu behar dabenak eta adingabearen interes gorena zaindu behar dabenak izan arren.

Kontuan hartu behar da egitura argi eta garbi patriarkalizatua daukan gizarte baten parte garala. Hau da, gizonari funtzino, rol, gaitasun eta ezaugarri jakin batzuk emoten jakozan gizarte bat, gizonei mesede egiten deuten eta emakumeak diskriminatzen dituan joera daukana. Joera hori gizarte-maila guztietan dago, gizartea antolatzeke sistemetan, eta, beraz, baita sistema eta erakunde desbardinak osatzen dabezan persona eta profesioaletan be. Joera horrek hainbat egoera eragiten ditu, hala nola emakumeen aurkako indarkeriaren erabilera legitimatzea, indarkeria matxistaren biktima diran emakumeak zalantzan jartzea eta erruduntzat jotea, eta hori polizia-sistematik sistema judizialeraino egiten da.

Joera bat sinesgarritasun handiagoa emoten deusena gizon baten hitzei emakume baten hitzei baino, edo bere seme-alaben hitzei baino. Gizona izategaitik bakarrik.

Joera horrek, gainera, andrei bakarrik egozten deutse seme-alabak manipulatzeko eta instrumentalizatzeko gaitasuna. Instrumentalizazioaren genea, historiarena bezala, emakumeen parte baino ez da antza.

Esta es una tendencia que está en todos nosotros. Y cuando nos damos cuenta del empoderamiento de esta tendencia, sólo podemos afrontarla. Y por desgracia esta tendencia que nos hace a todos nosotros también cambia el modo en que percibimos el mundo. Por lo tanto, está en la forma en que valoramos las situaciones y también en nuestras decisiones, y es importante reflexionar sobre cómo las aplicamos en nuestro día a día. Sólo así avanzaremos.

Eta esaten neutsuen joera hori oso presente dagoela gure bizitzetan eta, beraz, presente dagoela egoerak baloratzeko orduan eta gerora hartzen ditugun erabakietan. Eta era berean, indarkeria matxistaren biktima izan dan edo sexu-abusuaren biktima izan dan haurtzaroak ondorio berberak jasaten ditu: eta halan jasoten da Istanbulgo hitzarmenean. Ez dira indarkeria matxistaren ikusleak bakarrik, beren amengan eta batzuetan beren buruarengan be

erabili dan indarkeriaren biktimak dira. Logikagaitik bakarrik be aplikatu beharko litzateke, Istanbulgo Hitzarmenekoia dan moduan, edo haur eta nerabeen eskubideen Konbentziona. Baina halako kasuetan, batzuetan, errealdadeagaz daukan loturea kasualidade hutsa da.

Y la administración, en vez de favorecer el interés de los menores, se convierte en agente en defensa de los derechos de los padres.

A favor de los derechos de visitar al niño y seguir siendo padre, legitimando al mismo tiempo la amenaza y violencia de la madre y del niño.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren arabera, 2018an indarkeria matxistaren kasuetan emondako babes-neurrietan, %2,9an baino ez zan eteten tratatu txarren egilearen eta haren seme-alaben arteko bisita-erregimena. Oraindik asko dago egiteko gizarte honek, bere osotasunean, indarkeria matxisten biktima diran haurren eta emakumeen eskubideak errespetatu eta defendatu daitezcan. Eta horregaitik dauka akordio honek hainbesteko garrantzia, eta gainerako taldeek be akordioan zer neurri adostu ditugun adieraziko dituenenez, nik eraginik handiena daukela uste dudana bi neurri horreetan zentrauko naz.

Eta lehenengoa da etengabeko prestakuntza emotea haurren zerbitzuko profesionaleri, haurren sexu-abusuei eta indarkeria matxistei jagokenez.

Eta bigarrena, balorazino-tresnaren eraginaren azterketa. Azterketa hori, gainera, hiru lurraldeetara zabaltzea proposatzen da, eta aurreratu daitekeen lanagaz batera, Eusko Legebiltzarrean jada hasita dagoana, arreta- eta babes-mekanismoak hobetzeko atea zabaltzen dau, bai haurrei jagokenez, bai indarkeria matxisten biktima diran emakumeei jagokenez.

Esan deitsuedan moduan, desbardinaren arteko akordioan oinarritutako zuzenketa da, baina mina eta sufrimendua baino eragiten ez daukan "sasi sindromea" aplikatzen amaitzeko lehenengo pausoak emoten hasteko helburua daukana.

Akordioa, bozkatu eta gero, konpromiso bihurtuko da. Gaur lehenengo pausoa egingo dogu, eta gure taldea adi egongo da ez bakarrik hori garatzen jarraitzeko, baita be indarkeria matxistaren biktima diran emakumeak zein haurrak babesten eta artatzen jarraitzeko, Aldundi honek eskumena daukan esparru guztietan.

Akordio horretara heltzeko, gure taldeak amore emon dau puntu batzuetan, egoerak halan eskatzen dauela uste dogulako. Asmo eraikitzaileagaz lan egin dogu, jarrera zintzoagaz, eta holan izaten jarraituko dau, baina ekinak be izango gara, eta horixe aurkitzea espero dogu, ez bakarrik gobernuari eusten deitsien taldeetan, baita be Foru Gobernuaren arduradunengan gaurtik aurrera gai honetan. Hauxe da dana. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. El representante del Grupo Socialistas Vascos, señor Otermin Eraso, tiene la palabra.

El Sr. **OTERMIN ERASO** jaunak: Mahaiburu andrea, batzarkideak, buenos días a todos y a todas. Nire hitzaldian, gaur egun guztiz garrantzitsuak iruditzen jatazan hiru elementu nabarmendu gura dodaz. Alde batetik, azaroaren 27an areto honetan Gizarte Ekintzako diputadu Murillo jaunak esan euskuzan gauza batzuk berreskuratu nahi ditut. Bestalde, azpimarratu behar dot legebiltzar-taldeak gai izan garela proposamen bat adosteko, Adingabeen Zerbitzuak arazo horri aurre egitean guraso-alienazioaren sindromea ez erabiltzeko neurriei buruz. Eta, azkenik, Gizarte Ekintza Saileko profesionalen lanari balioa emon nahi

deutsat arazo honi aurre egitean, konplexua eta neketsua iruditzen jatalako, eta kasu bakoitzean benetako erronka bat dalako, bai profesionala, bai etikoa. Eurei, eskerrik asko.

Murillo jaunak argi esan euskun, holango gai sensible baten, Haurren Zerbitzuak ez dauela gurasoen alienazioaren sindromea erabilten adingabeen babesari buruzko erabakiak hartzeko, eta ez dauela erabilten ebidentzia zientifiko gisa onartuta ez dagoalako eta, ondorioz, ez dagoalako jasota Euskadiko adingabeen babesari buruzko erabakiak hartzeko araudietan, eta, beraz, Bizkaian. Beraz, haurrak babesteko edozein neurri egokitzeko jakon lege-esparrua Haurren Eskubideen Konbentzioa, Kode Zibila, Adingabeen Babes Juridikoari buruzko Lege Organikoa, Euskal Haur eta Nerabeen Legea eta BALORA Balorazinarako Tresna Bateratuaren Dekretua dira.

Lege-esparrua osoa da. Eta tresna komun hori, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua, lege-esparruaren parte da. Haur Zerbitzuak nahitaz bete eta erabili beharrekoa, arrisku- edo desanparo-egoerak baloratzeko. Eta, bertan, adierazleetako bat da guraso-figuren arteko gatazkako instrumentalizazioa eta guraso-figuren eta bizikidetzan nukleoko haur edo nerabearentzat esanguratsuak diran beste senide batzuen arteko gatazkak. Beraz, BALORA dekretua da instrumentalizazioaz hitz egiten dauena.

Zure hitzen argitasuna eta sendotasuna eskertu nahi dogu, batez be kontuan hartzen badogu guztion alkartasuna gehien behar dabenen babesari, eta kasu honetan adingabeena, dala gure zeregin instituzionalaren eta politikoaren arrazoi nagusia.

Era berean, Biltzar honetan talde politiko guztien jarrera argia, zintzoa eta proaktiboa azpimarratu behar dot; izan be, jakitun gara gai hau hain sentikorra izanik jendaurrean gitxiago erabili behar dala, eta, horregaitik, uste dogu berezko zerbait dala akordio batzuk egitea, tartean diran adingabeentzat eta zeregin profesional eta instituzional ezezagun bezain desatsegina egin behar dabeneztat ongizate handiagoa lortzeko.

Eta zentzu horretan, eta nik behintzat labur, argi eta sinple nahi dodan gogoetan askoz gehiago sakondu barik, nabarmendu egiten ditut, Bilkuren Egunkarian horren barri emoteko bada be, gure akordio-proposamenaren oinarri diran bost puntuak.

Gizarte Ekintza Sailari gauza bi eskatzen deusaguz: batetik, Haurtzaro Zerbitzuko profesionalen lana indartzea, haurren sexu-abusuaren eta indarkeria matxistaren arloan Haurtzaro Zerbitzuaren menpeko langileei zuzendutako berariazko prestakuntza eskainiz, besteak beste.

Bigarrena. Haurren Zerbitzuan BALORA tresnaren bidez identifikatutako babesgabetasun-egoerak aztertze hurrengo 6 hilabeteetan, eta "gurasoen arteko gatazkan instrumentalizatzea" itemak euki dauen eragina, Eusko Jaurlaritzara eta Bizkaiko Batzar Nagusietara bialtzeko.

Eta Eusko Jaurlaritzari hiru gauza eskatzen deusaguz.

Aztertu dagiala 230/2011 Dekretua, azaroaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna baloratzeko BALORA tresna onartzen dauena.

Azterketa hori Bizkaiko Foru Aldundiak bialdutako informazioaren eta analisiaren argitan egin beharko da, mozino honen bigarren puntuan azaldutakoaren arabera, gainerako foru-aldundiek eta udalerriek, eta Eusko Legebiltzarrean garatzen dabilzan ponentziaren ekarpenak jasoz, arreta berezia jarriz babesgabetasun-egoera motak aztertze erabilten dan "gurasoen arteko gatazketan instrumentalizatzea" itemaren eraginezn. Eta, halan bajagoko, prozesua Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak artikulauta dituan organo eta

kontseiluen baitan kokatu dagiala, besteak beste eta bereziki, Haurren eta Nerabeen Behatokia (3/2005 Legearen emaitza) eta 12/2008 Legearen bidez sortutako Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoa.

Eta, azkenik, Emakundegaz eta arlo horretan espezializautako eragileakaz batera, aitaturako lanak osatzeko, gogoeta-prozesu bat egin dagiala haurren sexu-abusuaren arloan gaur egun eskaintzen dan erantzun-sistemari buruz, eta aztertu dagiala, adibidez, Katalunian Save The Childrenen laguntzagaz ezarrirako BARNAHUS eredu.

Amaitzeko. Eskerrik asko Ganbera honetako talde politiko guztiei akordio hau lortzeko egin daben ahaleginagaitik, eta eskerrik asko, era berean, profesional eta gainerako arduradun instituzional guztiei, hain gai delikatu eta etikoki zorrotzei aurre egiteko orduan dauken profesionaltasunagaitik eta ahalegin ekinagaitik. Nada más. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, tiene la palabra la representante del grupo Euzko Abertzaleak, la señora Coria Yanguas.

La Sra. **CORIA YANGUAS** andreak: Buenos días a todos y a todas, muchas gracias señora presidenta.

Lehenengo eta behin, talde politikoen eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren prestutasuna eskertu nahi dogu, hizpide dogun gai hain delikatuak akordio batera heltzeko erakutsi daben borondateagaitik. Behin eztabaida politikora ekarrira, egindako ahalegina eta akordiorako borondate ona aitortu behar dira. Horren guztiaren aurrean, gure taldeak erabateko konfiantza adierazi nahi dau, eta gure errespetu eta errekonozimendua adierazi gura deutse Euskadin gizarte-zerbitzuetan lan egiten daben persona guztiei, eta, zehazki, hizpide dogun kasu honetan, Bizkaiko Foru Aldundiko Adingabeen Zerbitzuari. Mozino hau aprobetxatu nahi dogu aitortzeko eta balioesteko, ez bakarrik euren lana, baita be persona horreek beren jarduera profesionala gure gizartearen esparru delikatu eta sentikorrenera bideratzeko hartu daben erabagia. Gai hori landu behar dogu, ahaztu barik eta beti kontuan hartuta Gizarte Zerbitzuak dirala Administrazio Publikoak eskaintzen dauen zerbitzurik bereziena, eta, zerbitzuon barruan, adingabeak babestera bideratutakoak dirala delikaduenak, eta, ondorioz, guk guztiok babestu, baloratu eta indartu behar dugula, erantzukizun politikoa eta kudeaketakoa oinarri hartuta.

Gainera, azpimarratu nahi dogu Gizarte Zerbitzuetako langileek beti egiten dabela beren lana lehendik dagoan araudi bati lotuta, kasu eta egoera bakoitxak merezi dauen zorrotzasunagaz eta dedikazioagaz. Adingabe bati buruzko edozein erabagi hartzeko, araudi zabala behar da, eta adingabearen interesak lehentasuna izango dau beste edozein interesen aurrean. Halan azaldu eban zehatz-mehatz Gizarte Ekintzako diputaduak berak osoko bilkura honetan, 2019ko azaroko kontrol saioan. Beraz, lehenengo eta behin adierazi Bizkaiko Foru Aldundiko Adingabeen Zerbitzuan lan egiten daben profesionali zor deutsegun errespetua eta esker ona. Erabateko bokazio eta profesionaltasunagaz lan egiten dauen sektorea da, eta legezko arau-esparrua aplikata adingabearen interes goren kontuan hartuta.

Edozein kasutan, mozino honegaz lortu dogun akordio honek agirian ixten dau gure taldetik beti adierazi doguna: ez dogula autokonplazentzia jausi gura, eta beti dagoala hobetzeko modua, inolako zalantzarik gabe, eta akordio hau horren froga dala.

Hemendik gure babesa helarazi nahi deusagu Foru Gobernuari, behar dan guztirako, Gizarte Ekintza Arloak zein Adingabeen Zerbitzuak Bizkaiko gizarte politikaren harrotasuna izaten jarraitu dagien. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. El representante del Grupo Mixto Partido Popular de Bizkaia, señor Andrade Aurrecoechea, tiene la palabra.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Ez naz luzatuko gai interesgarri honi buruz talde guztiek azaldu dabena baino askoz gehiago. Alderdi Popularretik proposamen hau babestuko dogu, are gehiago alderdi guztiek eta Diputazinoa gobernatzan daben alderdiakaz adostasun bat lortu eta gero, eta, beraz beteko dala bermatuta dago. Azkenean onartuko dogun proposamenak zentzun osoa daukala emoten dau. Haurren Zerbitzuetako profesionalen lana indartzea, etengabeko prestakuntza eskainiz, ba, zentzu osoa dauka. Datozen 6 hilabeteetan Balora tresnaren aplikazinoa aztertzea eta txosten bat egitea Eusko Jaurlaritzari bialtzeko, zentzun osoa dauka. Era berean, Eusko Jaurlaritzari eskatzea tresna hori azertu dagialaeta kontuan hartu dagiala Aldundiek eta udaletako gizarte-zerbitzuek egindako txostena, horrek be zentzun osoa dauka. Danak dauka zentzua, arraroena da gaur egunera arte aplikatu ez izana. Azken baten, haurrak babestea ganbera honetara etorri diran ekimen honetan eta beste batzuetan, hoba ez, ganbera honetako alderdi guztiok ados gagozann puntu bat da. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Empezamos la segunda vuelta. La representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Ilardia Olangua, tiene la palabra desde el escaño.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Sí, muy brevemente. Cuando hace dos meses Euskal Herria Bildu trajo este tema a debate, se puso de manifiesto la gravedad del problema que padecemos. Hay que solucionar este problema que tanto daño ha causado. Tenemos que reflexionar, tenemos que reformular, tenemos que enfrentarnos y actuar. Y eso también está en nuestras manos. Pero también se ha puesto de manifiesto que existe una cuestión de voluntad política. Hoy hemos dado un paso importante para que los servicios de la infancia dejen de detectar desprotección en base a instrumentalizaciones, manipulaciones y en definitiva en base a falsos síndromes, y dejen de quitar tutelas a las madres.

Eta urrats hori egin dogu, Alderdi Popularreko bozeramaileari entzun ondoren, hemen ordezkaturata dagozan talde guztien ahobatekotasunaz. Hain gai delikatu eta mingarri baten bat egitea erabagi dogu. Balioan jarri behar da, nik halan egiten dot, halan izan behar dauela pentsetan dot, orain dala hile bi Euskal Herria Bildutik ohartarazi genduala eskua luzatuta gentozala konponbide baterantz pausoak emotea ahalbidetuko eban akordio bat lortzeko. Eta halan izan da. Gaur emon dogu lehen urrats hori. Muchas gracias a todos y todas, de verdad.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. No sé si el resto de grupos... No... No... La representante del grupo Euzko Abertzaleak, señora Coria Yanguas, tiene la palabra.

La Sra. **CORIA YANGUAS** andreak: Si, gracias. Bai, errepikatu baino ez dot egingo, labur-labur, balioetsi, barriri balioetsi, araudiaren menpe dagoan profesional gaituen lana, esan dodan moduan, profesionaltasun zorrotzagaz egiten daben. Era berean, adostu dogun akordioa balioestea, eskudun mailetan eta erakunde eskudunetan berrikustekohaur eta nerabeetan arrisku- eta desanparo-egoerak detektatzeko eta esku hartzeko tresnak eta prozedurak aztertzeko.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Supongo que el representante del Grupo Mixto no participará, por lo tanto, terminado el debate, se procede a la votación de la moción. Podemos votar.

El resultado es el siguiente, se han emitido 47 votos en total, 47 a favor; por lo tanto, se aprueba por unanimidad

Segundo punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO/IDAZKARI** jaunak:

4.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Proposición no de norma ([R.E.11/E/2019/0002060](#))

**Autor:** Escalante Mesón, Israel (EB)

**Asunto:** Las Casas de Apuestas.

**Documento** **Principal:**  
([R.E.11/E/2019/0002060](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (22A), [Enmiendas: No presentadas](#) (22B)

**Expediente:** ([11/B/26/0000441](#))

4.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak azertu, eztabaidatu eta bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Arauz besteko proposamena ([11/E/2019/0002060SE](#))

**Egilea:** Escalante Mesón, Israel (EB)

**Gaia:** Apustu-etxeak

**Dokumentu Nagusia:** ([11/E/2019/0002060SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (22A), [Zuzenketa-eskeak: Ez dagoz](#) (22B)

**Espediente:** ([11/B/26/0000441](#))

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de del grupo que ha presentado la iniciativa, en este caso del juntero que la ha presentado. Por lo tanto, tiene la palabra el señor Escalante Mesón.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Muchas gracias. Sí, muchas gracias y buenos días a todos y todas. Berandu heldu garala emoten dau. Orain dala hiru hilabete inguru "Ausazko jokorik gabe" eguna zala eta aurkeztu genduan ekimen hau, eta, tira, azkenean eztabaidatuko dogu.

Hasteko, esan behar dot ekimena ez dala gurea, guk hainbat gizarte-erakunde proposatutako ideak batu baino ez doguz egin. Erakundeon artean dagoz Eragin, harian, edo Ekintza Lubis, ludopatiaren biktimakaz behar egiten dauena. Guk eurek egiten dabezanproposamenak batzen ahalegindu gara, lege-forma emon ahal izateko, beste barik.

Azken urteotan apustuen eta ausazko jokoen negozioa modu esponenzialean zabaltzen doa gure kale eta auzoetan, tabernetan eta internet bidez. Edonork ikusten dau gero eta saltoki eta terminal gehiago dagozala, makinak tabernetan, bereziki langile klaseko auzoetan. Ikusten dogu, era berean, gero eta enpresa gehiagok egiten dabela negozioa sektore horretan. Eta ez da buru argiegia izan behar hori holan dala hemen negozioa dagoalako.

Gaur egun, legezko goia jo dogu Euskadiko apustu-etxeen kopuruan: 250 apustu-areto eta bingo baino gehiago dagoz erkidego osoan, eta horreetatik erdiak Bizkaian; hau da, Bilbon bakarrik 112 apustu-lokal dagoz. Gainera, 11.351 txanpon-makina dagoz, 2.100 bat apustu-makina, gehienak, esan bezala, tabernetan.

Denpora gitxian kirol apustuek kasinoari, bingoari eta txanpo-makinei lekua irabazi deusie. Arriskua egunean egunean larriagoa da, ludopatiaren aurka borrokatzen daben alkarteek ohartarazten daben moduan. Aitatu ditugun apustu-makinak, txanpon-makinen atzetik, esan bezala, bigarren ludopatia-fabrika dira, Osasun Ministerioak adierazi dauenez. Afekzio hori bereziki mingarria da Bizkaiko biztanle gazteen artean, ludopatiagaz irabazten daben enpresen jomuga errazena bihurtzen dagozalako, gazte-erakundeek salatzen daben moduan. Baina baita be, esan bezala, gatx honek eragindako pertsonen laguntzen deusien alkarteek. Horreek adierazten daben moduan, joko-etxeak, batez be baliabide gitxien daukien gizarte-mailako gazteakaz lotzen dira, hau da, gazte txiroagoakaz eta bizitzan aurrera egiteko aukera gitxien daukenakaz. Jolas-eskaintza gero eta sarriago agertzen da herri-auzoetako ikastetxe eta institutuen inguruetan, eta, ondorioz, ikasleek mendekotasun-arazoak eragin leikezan jarduera hori normalizat eta jolastzat ikusten dabe. Horri gehitzen badeutsagu sarbide-kontrolak oso arinak dirala edo ez dagozala, adingabeak halako leketan egotea ohikoa da, oso ohikoa da. Ludopatia XXI. mendeko heroina bihurtzen doa. Euskadi izan zen 2018an kirol-apustuetan erkidego liderra. Auzo batzuetan, goizetan, atsedendian, nerabeak apustuak egiteko tresnaak daukezan aretoetan eta espazioetan batzen dira. Euskadiko bigarren hezkuntzako hiru ikasletik batek aitortu dau kirol-apustuak egin barri dituala. 25 urtetik beherakoen artean, jokalaria %6tik %25era igaro dira azken urteotan; hala, Espainiako Estatua da ludopatia-tasarik handiena daukan herrialdea 14 eta 21 urte bitarteko gazteen artean.

Pero es imposible poner cifras concretas a la realidad de la ludopatía en Euskadi, precisamente porque el estudio Euskadi y drogas que lleva a cabo el Gobierno Vasco no analiza la adicción al juego, como reivindican los expertos en adicciones en Euskadi y las asociaciones de apoyo a la ludopatía.

Ezinezkoa da jokoak Euskadin daukan eragina behar bezala kuantifikatzea eta, beraz, behar bezala jardutea, Eusko Jaurlaritzaren “Euskadi eta Drogak” aldizkako inkestak ez daualako kontuan hartzen menpekotasun hori. Adikzioetako adituek eta ludopatiari laguntzeko alkarteek hori eskatzen dabe Euskadin. Eta horren aurrean zer? Horren aurrean proposatzen dogu: joko-aretoetan sarrera-kontrolak, kasu askotan bigunegiak edo bapezak dira eta, esan bezala. Azterlan batzuen arabera, Bilbo da estatu osoko hiririk permisiboena adingabeentzat jokoan. Gure ustez, joko-guneak tabernetako barratik kanpo egon behar dira, eta, gainera, gitxienez tabako-makinen antzeko kontrola euki beharko leukee. Jokoaren publizitatean kontrolak jartzearen aldekoak gara. Zati bat ez jagoku guri zuzenean. Baina beste zati bat bai, eta, guri jagokun partean, adibidez, baimenik ez emotearen aldekoak gara Bizkaibusen, adibidez, apustu-etxeen publizitatea jartzeko baimenik ez emotea, edo Aldundiak babestutako kirol-guneetan, adibidez, Mallonako zelaietan, Bilbon, edo, adibidez, San Mames estadioan edo Bizkaia Arenan.

Jokoaren behatokiak bere funtzioa betetea eskatzen dogu. Jokoei buruz egindako azken azterlana 2009koa da, Segurtasun Sailak egin. Eta Eusko Jaurlaritzak joko arduratsua sustatzeko egindako azken kanpaina 2010ekoa da.

Amaitzen noa. Esan dogu badakigula Aldundiari zuzenean eragiten ez deusien gaiak planteatzen ditugula, eta guk nahi doguna da Aldundiak gainerako erakundeei eskatzea hartu dagiezala, bai erakunde horreek honezkero aginduta daukezan neurriak, bai behar diranak, bere eskumenekoak diranak eta behar diranak gure lurraldeari eragiten deusian arazo honi aurre egiteko.

Badakigu, adierazi dogun moduan, Eusko Jaurlaritzak zein zentralak jada aginduta daukezala neurriak, egingo dirala edo aztertuko dirala azaldu dabezanak. Gure PNNn jada urrian aurkeztu genduzan neurri horreetako batzuk. Baina asko aldatu dira gauzak hiru hilabeteotan, eta tira, besterik gabe eskatzen dogu Aldundi honek, bai jagokozan neurriak hartu dagizala, bai beste erakundeei presioa egin degiela agindutako neurri horreek hartzeko.

Espero dogu gaur hemen eztabaida hau aberastuko daben proposamenak entzutea, eta ez bakarrik erantzukizunetatik aldentzea, ea hau legebiltzar handiago edo txikiagoa dan, eta Bizkaiko Aldundi hau gauzak egiten dituan administrazio bat bada, hau bezalako gai garrantzitsu baten frogatu daitela. Izan be, Eraginek dinoan moduan: "Ez da dagoana". Gracias por la atención.

La Sra. **VICEPRESIDENTA PRIMERA/LEHENENGO LEHENDAKARIORDE** andreak: Eskerrik asko. Talde Berezia Bizkaiko Alderdi Popularra taldearen txanda da, Andrade Aurrecochea jauna, zurea da berbea.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Mila esker. Egun on barrero guztioi. Gaur batzar-areto honetara ekarri deuskuenlegez besteko proposamen honek, zalantzarik gabe, gure bizilagunen kezka bat jasotzen dau apustu-etxeen fenomenoari jagokonez. Azken urteetan apustu etxeak Espainiako hirietako auzoetan ohikoak bihurtu dira. Espainiarrek online apustuetan ordaindutako kopurua %49 handitu zan 2017an, ikerketen arabera. Baina, ha ta guzti be, gaiari buruzko estatuko azken legeria 2012. urtekoa da. Autonomia-erkidegoek arautu behar izan dabe fenomeno hori, legeak fenomenoaren boom barriraegokitzeko.

Askok araudi barriak atera dabez era honetako dekretuen bidez: Extremadura, Andaluzia, Balear Uharteak, Murtzia edo Madril. Eta murrizketak jarriz eta adingabeak sartzeko kontrol handiagoa edo kontzentrazio-debekuak jarriz, beste neurri batzuen artean. Eta hau dinot, eskualde mailan araudi nazionalari buruzko kontu teknikoak arautzeko eskumena autonomia erkidegoei jagokelako. Eguneratutako azken erregulazioetako bat Madrilgo erkidegokoa izan da, joan dan maiatzaren hamalauan dekretu bat onartu ebana erkidegoan jokoaren jarduera arautzeko eta eguneratzeko. Barritasunen artean, apustutarako lokal baten atearen eta ikastetxeren baten atearen artean gitxienez 100 metroko distantzia egon beharra nabarmentzen da. Neurri hori Balear Uharteetako, Extremadurako (bikotxa da, 200 metrora) eta Murtziako eskualdeko (500 metrora zabaltzen dau) legedian be jasoten da. Zentzu horretan, orain dala gitxi argitaratu danaren arabera, badirudi Eusko Jaurlaritzak antzeko araudi bat onartu nahi dauela, baina beno, horretaz berba egingo dau gero Euzko Alderdi Jeltzaleak.

Araudi autonomikoak be lokalen metaketa mugatzeko arauak zabaltzen dabilz, batetik besterako hurbiltasun-debekuen bidez; era berean, zehapen-araudia lantzen aurrera doa. Madrilgo erkidegoak 9.000 eurorainoko isunak ezarri ditu adingabe bat lokal baten aurkitu ezkerok; hemen, Euskadin, 4.000 eurokoa da, bertan badago, eta 6.000 eurokoa, jokutzen badago, eta jarduera 6 hilabetez etetea, eta 5 urtera arte errepikatu ezkerok.

Madrilgo Erkidegoan aretoetan eta apustu-etxeetan sarbide fisikoaren kontrola ezarriko dala iragarri dabe, kasinoetan eta bingoetan dagoenaren moduan, gazteak holango lokaletara sartu ez daitezkan.

Ha ta guzti be, orain dala gitxi prensan irakurri ahal izan dogunez, Eusko Jaurlaritzako Joko eta Ikuskizunen zuzendariak egin barri dauen alkarrizketa baten esaten eban aurrez aurreko jokoa mugatzea kaltegarria izan daitekela, jokalaria online jokora joaten bada apustuak 6,5 €tik 15 €ra egiten dauela gora frogatu dalako.



Mozino honetan aipatzen dan online jokora joko dogu. Adituek esaten deuskuelako joko fisikoa baino hobeto araututa dagoala. Azkenengo araudia izan zan online jokoetan puntu es (.es) domeinua erabili beharra. Lehen, apustu-etxeek Espainian atzerriko web-domeinuetako guneetatik jarduteko modua eukiten eben, Espainiako jokalaria atzerriko legeek araututako atarrietara erakarriz. Online jokoaren oraingo legeak puntu es (.es) jokatzeo betebeharra ezartzen dau, atzerriko operadoreak Espainian dauken kokapenagaz jardutera behartzeko. Holan, puntu com (.com) domeinua euen apustu-etxeen erabiltzaile espainiarrak sartzea debekatu zan, eta hori aurrerapauso handia izan zan erregulazioaren kontrolean. Alkarteek ohartarazi dabe, uste danaren kontrara. online jokoaren mugikortasuna aurrez aurrekoa baino hobeto araututa dagoala, eta araudian homogeneotasun handiagoa eskatzen dabe.

Andaluziako federazioek esaten daben moduan, internet bidezko apustuetan dokumentazioa, kreditu-kontu bat eta apustuak egiteko gehieneko muga bat eskatzen dabez. Joko-aretoetan ez dago holangorik. Apustu fisikoetan, gainera, irabazten badozu txartel zuri bat emoten deusue, han pilotu daizun dirua, eta kutxazainera urten behar izan barik, itzultzen ez bazara be.

Publizidadearen aurka, proposamen honetan be aipatzen da, publizidadea kontrolatzeko araudia, arau orokor nazionalak ezartzen dabe. Espainian, oro har, apustu-etxeen eta ausazko beste jarduera batzuen publizidade arautua baimenduta dago, baina publizidadeari eta autokontrolari buruzko lege orokorrak ezartzen dituen mugakaz. Halan be, Europako herrialde batzuek erregimen gogorrago baten alde egin dabe, kasurako Italiak Dignità dekretuaren bitartez, joko eta apustu jardueren publizidadea galarazo egin da; apustu etxeen iragarkien bonbardeoa da arazorik handienetako bat.

Ildo horretan, Madrilgo Asanbleak martian onartu eban Telemadrid irrati-telebista madrildarrak debekatuta daukala online jokoaren, joko-aretoen edo apustu-etxeen publizidadea egitea. Jokoaren legeak Galizian eta Andaluzian be jasoten dau hori. Estatu mailan, ostera, ondino ez dago horren inguruko debekurik. Hasteko, Madrilen bezala, gure Euskal Telebistan online jokoaren edo apustu-etxeen eta abarren publizidadea debekatu daiteke, baina hori ez da Aldundiaren eskumena. Proposamenean fiskalitateari buruz be hitz egiten da, eta aitutzen da zerga-neurriak ezartzea, baita ludopatiari aurre egiteko aurrekontu-partidak gaitzea be. Nik hobeto ikusiko neuke Madrilgo Erkidegokoaren moduko neurriak hartzea, jokoaren gaineko zerga espezifikoaren bilketaren %0,7 ludopatiaren prebentzinorako eta tratamenturako politiketara bideratuz. Azaldutako guztia aztertuta, ondorioa atera daiteke ezer gitxi egin geinkela Batzar Nagusiok edo Aldundiak apustu-etxeen gaiari buruz; izan be, eskumenak nazionalak dira edo Autonomia Erkidegoarenak, eta baliteke gairen baten udalenak izatea be. Guk gaur egun bizkaitarren eretxia batu geinke, eta Eusko Jaurlaritzari eta gure euskal parlamentariei edo diputatu nazionalak helduarazo, modu egokian legeak egin dagiezan. Eretxi bat badakidana, foro horretan honezkero jakitun dagozana. Horregaitik guztiagaitik, eta gaur egiten diran proposamenean erdiak partekatzen ez ditugulako, abstenitu egingo gara. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Tiene la palabra el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Rico Lezama.

El Sr. **RICO LEZAMA** jaunak: Egun on guztioi. Eskerrik asko, mahaiburua andrea. Talde Sozialistak bat egiten dau talde proposamena egin dauan taldeagaz kontrol bako joko arduragabearen balizko ondorioak dirala-ta erakutsitako kezka, eta zentzu horretan prebentzino-, kontrol- eta arautzeo-neurriak hartzen jarraitzeko beharrez, joko arduragabearen eta ludopatiaren arriskuak eragozteko. Gure autonomia-erkidegoaren esparruan ukaezina da azken aldi hainbat aurrerapen egitea lortu dala, eta aurrerapauso horreek Batzar Nagusiotan be esertzen garan indar politiko ezbardinen aho bateko babesagaz egin dira. Holan sortu da Jokoaren Behatokia, dakizuen moduan, Euskadiko egoerari buruzko diagnostiko-

txosten bat egiteko fasean dagoana, edo EITBko Administrazio Kontseiluak jokoaren eta apustuen publizidadea egindako debekua.

Ildo beretik, Eusko Jaurlaritzak, esan bezala, Euskadin jokoaren sektorea berrikusteko eta erreformatzeko asmoa iragarri barri dau, eta prozesu horrek irauten dauen bitartean ez dau kasino, areto edo apustu-etxe barririk zabaltzeko baimenik emongo, ezta lokalak handitzeko edo joko-makinak ipinteko be.

Sozialistok uste dogu helburua argia dala, arriskuak murriztu behar ditugu eta menpekotasun-arazoak saihestu behar ditugu herritar guztientzat, oro har, eta bereziki gazteen eta nerabeen artean. Eta uste dogu helburu horretan erakunde guztiek koordinatuta egon behar dabela, bakotxa bere eskumenen esparruan. Ekimen honetan, alde zuzenetik arauak aldatu barik Batzar Nagusiok jorratu ezin dabezan gaiak eskatzen dira, esate baterako, Estatuko oinarrizko legeria araudi komunean sartzea, eta administrazio eskudunek jada lantzen hasita dagozan gaiak be planteatzen dira: Udalak eta autonomia-erkidegoa.

Baina horrek gogora ekartzen deusku erakundeen arteko koordinazioa eta zeharkakotasuna behar dirala, Garzon ministroak berak orain dala gitxi egindako alkarrizketa baten aipatu eban moduan. Izan be, dakizuen moduan, Sánchez presidentearen gobernuak gai hori bere agendan jarri dau, eta jada iragarri dau gai horretan eskumenak daukezan sektore eta erakunde guztiak alkarrizketak hasi dirala, apustuen eta jokoaren publizidadea arautzeari jagokonez erantzun koordinatu bat emoteko. Arrazoi horregaitik beragaitik, guk ulertu genduan posible zala, oso posible zala ekimen hau erretiratzea, ikusita Sánchez presidentearen gobernuak gai hau lehentasunezko jaso zuela, apustu-etxeen hedadurari eta online jokoaren modalitateari heltzeko beharra jasoz; izan be, onlineko hori jokorako sarbiderik errazena izan daiteke gazteenentzat. Halaber, Garzon ministroak berak sektoreagaz eta autonomiakaz alkarrizketa-aldi bat irekitzeko egindako deia be kontuan hartuta, jardun integrala eta koordinatua garatzeko.

Horregaitik guztiagaitik ekimen hori baztertu egiten dogu formulauta dagoan moduan, ez da planteautako funtsezko gaiagaz ados ez gatozala, ezta gitxiagorik be, hitz egin dugun zeharkako jarduketa koordinatuaren beharrari erantzuten deutso, soil-soilik, eta ziur nago, Escalante jauna, zuk zeuk be ulertuko dozula. Uste dogu hitz egiteko unea dala, estrategia komun eta partekatu hori diseinatzekoa, eta jardun horreek guztiak garatzea ahalbidetuko dauan arau-parapeto bat ezartzekoa. Ziur nago, Escalante jauna, laster onartuko ditugula alkarregaz ganbera honetan bertan neurri zehatzak, Espainiako gobernuak be pentsatzen dabilen plangintza bateratu hori Bizkaira eramateko. Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. La representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Ilardia Olangua, tiene la palabra.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Buenos días, de nuevo. Bueno, muchas de las cosas de los últimos años se han puesto sobre la mesa con la proliferación de establecimientos relacionados con los juegos y las apuestas. Estas casas de apuestas insertan la publicidad en eventos deportivos, sobre todo en retransmisiones deportivas, para animar a los espectadores a apostar. Sistemas de juego adictivos, sin pausa, con bonos gratuitos de entrada y sobre todo con enormes inversiones en su publicidad. Junto a ello, las nuevas realidades y costumbres de nuestra sociedad están incrementando de forma alarmante las adicciones sin sustancia, lo que sin duda nos debe llevar a la sociedad y a las instituciones a tomar conciencia de la gravedad de la situación. Sería un principio la catalogación de la ludopatía como un problema de salud pública. En Bizkaia, por desgracia, no nos libramos de este problema.

Eta, gainera, irisgarritasun handi hori bereziki kezkarria da ahuldade bereziko biztanleria-sektoreei eragiten deutsenean, eta, alde horretatik, haurtzaroa eta nerabezaroa osasuna prebenitzeko eta sustatzeko lehentasunezko biztanleria da. Beraz, agintarien betebeharra da ingurune babesleak sortzea. Beraz, gure esku dagozan eskumen guztiak erabili behar ditugu gure gazterari eragin leien jarduera guztiei muga jartzeko, nortasuna garatzeko eta sendotzeko prozesuan dagoan garai horretan.

El problema de la adicción al juego, el de la ludopatía está ahí, a la vista de todos, pero lo cierto es que no es tal la percepción de la sociedad, más bien podríamos decir que las conductas que implican un riesgo de adicción sin sustancia están normalizadas en la sociedad.

El Gobierno Vasco realizó una encuesta en 2017 y los resultados de esta encuesta demuestran que al juego no se le da la importancia que realmente tiene. No hay percepción de que sea un problema, al menos no se le da la gravedad que tiene, el 24% de las personas encuestadas no considera un problema gastar al menos una vez a la semana o más de 700 € al año en apuestas.

Parece que cuando hablamos de adicciones nos referimos únicamente al consumo de tabaco, alcohol u otras drogas. En este sentido, solo el 54% de las personas encuestadas considera que la adicción al juego conlleva problemas bastante, o muy graves para sí o para las personas de su entorno. Y el porcentaje desciende al 49% entre los jóvenes.

La percepción social varía considerablemente si nos referimos al tabaco, al alcohol o a otras drogas. El 67% sabe que consumir tabaco tiene consecuencias graves, el 63% con alcohol y el 62% con cannabis.

No existe en esta sociedad cualquier percepción de que la adicción al juego es un grave problema. Y eso es muy grave, y sus consecuencias son devastadoras para las personas y para el entorno de quien tiene ese problema.

Langile klasea tentatu egiten da, normalean ezin izaten dauena lan egonkorrik egin, langabezia kroniko handia dagoan ezkerero, lan prekarioetan irabazitakoa arriskatzeko. Ez da harritzekoa errenta gitxien dauen auzo eta herrietan apustu-etxeak egotea ugarien eta ondoriorik negatiboenak izatea. Batez be gazteei eragiten deutse; izan be, espektatibarik eta etorkizun egonkorrik eza da adrenalina dosi azkarretarako lurrik onena, dirua ahaleginik egin barik lortzeko.

Ez da onargarria apustu-etxeek egunez egun beren irabaziak handitzea eta familiei eta gizarte osoari ixtea horretara engantxau diran personen tratamendua osorik ordaintzeko betebeharra. Bidezkoa da, beraz, halako enpresen onurek gizarte osoari egin behar deutsun ekarpena handitzea, jokoarekiko menpekotasuna dauen pertsonak modu eraginkorreatan tratatu ahal izateko, eta mekanismo horreek ikertu eta etorkizunean menpekotasunei aurre hartu ahal izateko. Modu fisikoan edo internet bidez, apustu bakotxaren atzean ezkututzen dana bardina da, sinistarazoten deutsue aberasteko ez dala beharrik egin behar, zure dirua inbertitu zeinkela eta ondo egiten badozu biderkatu egingo dozula. Ipuin neoliberal honek ezkutau egiten dau zu bezalako batek bere dirua galtzen dauela, baita be ezkututzen dau egun baten irabazi dozula baina hurrengoan askoz gehiago galdu zeinkela. Ez da zorte kontua azken baten apustu etxearen jabea izatea irabazten dauen bakarria, matematika kontua da.

Compartimos la Propuesta no de Norma presentada por Elkarrekin Bizkaia, y hacemos nuestra la petición que conlleva, por lo que la misma contará con nuestro voto favorable. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. El representante del grupo Euzko Abertzaleak, señor Atutxa Sainz, tiene la palabra.

El Sr. **ATUTXA SAINZ** jaunak: Muchas gracias, señora presidenta. Buenos días de nuevo.

Gaur planteatzen deuskuzuen Legez Besteko Proposamenari buruz gure jarrera, kasu honetan, Escalante jauna, tamalez, aurkako botoa izango da. Tamalez dinot, bat gatzelako Elkarrekin Bizkaia taldeak planteatzen diran sakoneko gaietako askotan. Eskatzen dituen neurri zehatz batzukaz sortzen da arazoa. Escalante jaunak eztabaida aberasteko eskatu deusku, eta, jakina, gure taldeak ahaleginduko gara horretan, bai horixe.

Eta banan-banan errepatatuz joango naz, zuek zuen Legez Besteko Proposamenean proposatzen dituzuen neurriak.

Lehenik eta behin, joko-jardueri eta apustuei foru-arauek aplikatzen deutsezan zerga-motak berrikustea, ludopatía birgaitzeko eta tratatzeko programak finantzatzeko.

Hemen daukagu lehenengo arazoa. Zergaitik? Joko-jardueren gaineko zergari buruzko Foru Arau hori, Ekonomia Itunaren 36. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak eraentzen dabelako. Araudi komuneko zerga itundua da. Estatu mailan tributu horretan aldatetaren bat badago, zalantzarik txikiena be ez izan, Escalante jauna, hori, aldateta hori Batzar Nagusi honeetara foru-dekretu arauemaile baten bidez etorriko dala, eta horren alde bozkatu beharko dogula, eta alde bozkatuko dogu. Baina ez dago gure esku, ez dago ganbera honen esku. Aldaketa hori egin beharko litzateke, beraz, Gorte Nagusietan, eta ados egongo gara, ados egongo gara.

Bigarren kontua. Zuek planteatzen dozue jokoaren jarduerakaitik diru-bilketa handitu eta ludopatía prebenitzeko programak finantzatzera bideratzea. Daukagu bigarren arazoa. Zerga bati xede finalista bat emoteak kutxa-batasunaren printzipioa urratzen dau, hau da, horrek esan nahi dau zerga-sarrera guztiak funts komun batera doazela. Eta funts horretatik gastu partida desberdinei esleitzen jakez gero, aurrekontuaren arabera. Zuek bilatzen dozuen helburua partekatua izan daiteke, baina ez bidea, ez bidea. Ezin dogu esan zerga hau honetarako izango dala.

Gehiago biltzeko bai, baina gero aurrekontuaren eta gastu-partidaren bidez egin behar da.

Con el fin de frenar la promoción de la ludopatía, no autorizar publicidad o promoción de locales de juego y apuestas en espacios y entidades protegidos con fondos públicos o con la participación de la Diputación Foral,.

El reglamento general del juego del Gobierno Vasco restringe la publicidad y la promoción del juego. Sin embargo, a pesar de ello, nosotros creemos que la Diputación Foral podría repasar caso por caso qué es lo que ocurre en sus instalaciones, y... podemos hacerlo.

C, realizar campañas de sensibilización contra la ludopatía junto con las instituciones que están trabajando en este problema.

No es competencia foral, como saben, entra en el ámbito competencial del Gobierno Vasco y de los ayuntamientos.

En la letra D solicitan la realización de un estudio sobre el estado del juego y las apuestas deportivas en el Territorio Histórico. Como saben, el Gobierno Vasco ha puesto en marcha el Observatorio Vasco del Juego y está realizando un estudio sobre la situación del juego en Euskadi, está a punto de finalizar, está a punto de concluir.

En el punto E se solicita apoyo presupuestario a los programas de prevención y apoyo a la ludopatía que realicen las Asociaciones y Centros de Rehabilitación del Territorio Histórico. Y nuestra respuesta es que no es competencia foral. En la actualidad, la Asociación de Ayuda a los Ludópatas de Bizkaia está recibiendo el apoyo económico del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales y del Departamento de Salud del Gobierno Vasco, así como de algunos ayuntamientos. Esa es la realidad actual.

Arauz besteko proposamenaren bigarren zatian, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen dauen 4/1991 Legea aldatzeko eskatzen dozue edo guk eskatzea gura dozue, populazio-densidade handieneko eremuetan joko- eta apustu-lokalen konzentrazioa mugatzeko, geldiarazteko, eta ikastetxe edo osasun-zentroetatik 300 metro erradialera mugatzeko distantzia.

Puntu horri jagokonez, zuek be badakizue Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak uste dauela kokatzeko askatasunari eta zerbitzuak emoteko askatasunari egindako murrizketak arrazoi honeekaz justifikau behar direla: ordena publikoa, zaurgarriak babestea, osasun publikoa babestea eta, edozelan be, proportzionatuak eta diskriminazino bakoak izan behar direla.

Ondo baino hobeto dakizue, era berean, Auzitegi Gorenak Valentziako Komunitate Autonomikoaren araudi autonomikoa baliogabetu barri dauela, joko-establezimientuen arteko distantziak arautzen zituena, neurriaren proportzionaltasuna behar bezala arrazoitu ez dalako.

Eta zuek jakingo dozuenez, Bilboko Udalaren kasuan, justiziak antzeko neurriak baliogabetu zituen bere Ordenantzetako baten. Gai honetan oso fin jokatu behar dogu, eta oso ondo justifikau behar dogu, oso ondo justifikau behar dogu. Horrek ez dau esan gura ados ez gagozanik holako neurriren bat hartu beharko dala esatean, baina oso ondo justifikau behar dogu; izan be, bistan danez, beste aldean dagozanek, beren interes ekonomiko eta enpresarialak defendatzen dabilzanek, ez deutsee auzitegien aurrean errekurtsoa jartzeari itxiko edozein neurriari, edozein neurriari, oso ondo justifikatzen ez badogu. Esan bezala, oso fin jokatu behar dogu.

Amaitzeko, joko-aretoen ikuskapenak aitatu dozuez, sarbidea mugatzea. Esatea Ertzaintzaren joko eta ikuskizunen unidadeak, udaltzainakaz batera, Euskal Autonomia Erkidegoan 1.200 ikuskapen baino gehiago egin dituela, arau-hausteak hauteman dirala, bi zehapen-espiediente dagozala, 16 adingabe identifikau diralako.

Isunak 4.000 € eta 6.000 € artekoak izan dira identifikatutako adingabe bakotzeko, eta agerikoa da, eta agerikoa da, agintaritzaren eskudunak lan- eta jarduketara-ildo horregaz jarraituko dauela.

Azken batean, Escalante jauna, laburtzeagaitik, mahai gainean jarri deusuguz gainditu beharreko erronketako batzuk, gainditu behar ditugunak, baldin eta, bistan danez, gaiok amaierara eroan gura badoguz, eta alkarregaz gainditu behar ditugu, hau da, gure eskumen-esparruaren ikuspegitik, eta segurtasun juridikoaren ikuspegitik, egiten doguna, eta egiteagaz konforme gagoz, ondo eginda dagoala. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Gracias. Pasamos al turno de respuestas, para ello el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, el señor Escalante Mesón, tiene la palabra.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Hola de nuevo. Argi itxi nahi dogu ez dala txantxa, eta jokoak tratatzen dauenaren bizitza hondatu leikela, Mikel Torres Portugaleteko alkate eta PSEko Bizkaiko buruak joan dan abenduaren hamazazpian esandako hitzak dira.

Gainerako taldeek esku-hartzean egiaztatu ahal izan dogunez, behintzat, badago gai honegazhalako sensibilitadea, gai larria da ta. Txarrena da ez dabela gure ekimena babestuko, izan eitekean, baina ez.

Interbentzinoak ikusita bai, esaera arriskutsuena eta konplikatuena Internet bidezko online jokoa da, baina ez gara horretan benetan sartu, gure eskumenetatik ihes egiten dauelako, eta berez ez dogu ukutu, nahiz eta eskumenekoak ez diran gauzak ukutu ditugun arren, horrek ihes egiten deuskulako.

Andrade jaunari, Talde Popularraren ordezkariari, esan EuroVegasekoaren ostean adibidetzat Madril jartzea pixka bat bitxia dala, baina tira. Esan behar da, era berean, Madril erkidegoa dala, nahi daben guztia arautuko dabe baina, hala ta guzti be, arazoa Bizkaiko lurralde historikoan baino larriagoa da, edo, behintzat, hemen apustu-etxeen aurrean dagoena baino harreman handiagoa dago.

Eta beste alde batetik, Eskumenen gaiaren argumentuagaz erantzutea, uste dot ez gagozala haserre edo Aldundi hau ez dot uste haserre dagoanik ez Eusko Jaurlaritzagaz, ez udalakaz, ez Gobernu Zentralagaz, halan espero dot. Uste dot erakundeen artean zeozelango alkarrizketa egon beharko litzatekela, eta gure kasuan esan nahi dot nire taldeak uste dauela Elkarrekin Unidas Podemos gure espazio politikoa ez dogula erraz jartzen, baina gure espazio politikoa bitarteko bat dala uste dogu, eta ez helburu bat. Eta, beraz, gure kasuan onartzen dogu gure lankideari eta nire kasuan Alberto Garzoni presinoa egin behar jakela agindu dituen neurriak hartu dagizan. Eta, beraz, uste dogu bere garaian ekimena ez erretiratzea, nahiz eta adierazi dan moduan, Eusko Jaurlaritzak eta Gobernu Zentralak agindu ebezan proposatu ditugun neurri horreetako batzuk. Eusko Jaurlaritzak topean egoana mugatu dauela esatea, gitxienez alperrekoa egiten jat. Egia da muga hori handitu eitekeala, baina tira, lizentziak behintzat ez dira handitu, eta murrizketa horri eutsiko jako.

Amaitzeko, erakunde honek adierazitako puntuetako batzuk batzuk behintzat egin leikez, baina ez deusku balio erantzukizunak aldentzea edo puntu batzuetan beste erakunde batzuen menpe dagoelako atxakian ezkutatzea. Baina ez dogu nahi, batez be, horrelako kasuak errepikatzea, apustu-etxeen publizidadea egotea erakunde honi zuzenean jagokozan gauzetan, kasuerako Bizkaibusetan. Besterik ez. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Tiene la palabra el representante del Grupo Mixto Partido Popular de Bizkaia, señor Andrade Aurrecochea.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Lehen esan dodan moduan, nik eskertzen deusat proposamena egin dauen alderdiari batzar-areto honetara ekarri izana gure bizkaitarrak, gure bizilagunak, kezkatzen dituen gai bat. Ez da foru-eskumen bat, hemen esan dan moduan, nik esan dot, eskumen nazionala da, eskualdekoa, udalekoa, forarala zati baten. Baina beno. Interesgarria da batzar-areto honetan hitz

egitea, ikusi daigun zein dan talde bakoaren jarrera danok ezagutzen dogun eta guztiok partekatzen dogun arazo honen inguruan. Jakina, gure gazteek apustuak, online jokoa eta apustu-etxeak beren aisialdi-moduetako bat bezala bereganatu dabelako barria kezkatzeko moduko gaia da, eta danok egin behar dogu zerbait hori eragozteko. Nik uste dot errealidade bat dala, apustu-etxeena, legegileak gainditu dituen online jokoa, horrek guztiak izan dauen abiadura; izan be, estatuko, eskualdeetako eta udaletako erakundeen araugintza-ahalmena gainditu dau. Baina gai interesgarria da gaur Batzar areto honetan danok adosten doguna, gai honen inguruan modu batera edo bestera lan egin behar dala.

Edozein kasutan, adibidez, 2017an Foru Aldundi honek berak On Bizkaia saria emon izana Euskal Kirol Apustuak startupari apustu-ibilbide onenagaitik, eta start up baten ibilbiderik onenari, on line mailako apustuakaz lotutako prozesu guztiak batzen dituelako, ez dau asko laguntzen. Horrek nahaste apur bat sortu leike esaten gabilzanean horren aurka egin nahi dogula. Baina, beste alde batetik, On Bizkaia saria emon geuntsan 2017an aplikazio horri. Esan dodan moduan, nik uste dot asko geratzen dala lantzeko. Alderdi Sozialistako kideak esan dauen moduan be partekatzen dot erakunde guztien artean koordinatuta eroan behar dan gai bat dala, eta maila nazionaletik abiatuta, jaisten joan beharko dogu, apurka-apurka, gure herrietara hurbiltzen joateko, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Tiene la palabra el representante del grupo Socialistas Vascos, señor Rico Lezama.

El Sr. **RICO LEZAMA** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. BNik eskerrak emoten deutsadaz Escalante jaunari adibidetzat Mikel Torresen jarduera jartzearren, nire Alderdiko idazkari nagusi ezeze Portugaleteko alkate be izan zana. Izan be, Portugaleteko alkate gisa erabagi bat hartu dau, arlo horretan eskumena daukan administrazio gisa kanpaina bat garatu dau, hain zuzen be, substantziarik gabeko menpekotasunak deritxenak prebenitzeko, ludopatia kasurako. Eta nik benetan eskertzen deutsut, Escalante jauna, Mikel Torresek Portugaleteko alkate gisa egin dauen jarduera hori adibide bat da beste udalerrri askotan garatu leitekena, eta, batzutan gainera, egin egiten da beste alderdi politiko batzuk gobernatzen egon arren.

Edozein kasutan, zuk jarrera propioa izateko eskubidea aldarrikatzen dozu, baita zure kide dan Garzon jaunari be gai batzuk erreklamatzeko. Joango gara hori fintzen, baina ulertu eizu, esan deutsut, eta barriro esango deutsut, ekimena idatzita dagoan moduan, ez dogula onartzen eta kontrako botoa emongo dogula, hain zuzen be, bat gatozelako Pedro Sánchez jaunaren Gobernuko ministroak, Garzón jaunak, egindako hausnarketagaz. Izan be, gure ustez, gai honek eskatzen dau erakundeak batera jardutea, zentzu berean joatea eta, beraz, bakoitza bere eskumenen esparruan gai guztiok garatzen joatea. Ez ezazu ulertu, Euzko Alderdi Jeltzalearen ordezkariak be esan deutsu, aurkako boto hori gai honen funtsaren aurka doala; are gehiago, nik aurreratzen deutsut, Espainiako Gobernuak erabagiten dauenak alderdi sozialistaren aldeko botoa izango dau, ezin da besterik izan. Eta ulertuko dozu, baina, bistan danez, Garzon jaunak berak esan dau unea dala, joan den astean esan eban, sektoreagaz beragaz hitz egiteko eta gaian eskumenak daukezan gainerako erakundeakaz hitz egiteko tartea zabaltzeko unea dala. Eta hori holan da, ze interbentzio honetan esan deutsudan moduan, nik hainbesteko zehaztasunetan sartu barik baina esan deutsudan moduan, Atutxa jaunak esan dauen moduan, zuk zure lehenengo puntuan planteatzen dituzun gai guztiak edo ez dira Foru Aldundi honen eskumenekoak, edo eskumen izan daitezkeanak araudi komunaren transposizioagaitik dira. Hori lehenengo puntua izango litzateke, jokoaren ganeko zergen arloarena.

Baina nik esango deutsut, zuen ekimenaren aurka bozkatuko dogu, formulauta dagoan moduan, ba Foru Aldundi honek dituan eskumenei erantzuten ez deuselako. Baina igarle egingo dot, nik iragarri egiten deutsut hemendik luzera barik zuk eta nik, Alderdi

Sozialistak, Podemosak, Euzko Alderdi Jeltzaleak eta segurutik ganbera honetako beste talde batzuk gai honi buruz bozkatuko dogula, Gobernuak Espainian lotu dituan politiken translazioa dala eta adibidez. Besterik ez, eta eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, la señora Ilardia Olangua.

La Sra. **ILARDIA OLANGUA** andreak: Muchas gracias. Bueno, quisiera subrayar nuestro mensaje de que nuestra intención no es la vía de la prohibición. Me gustaría que eso quedara claro. Nosotros queremos apostar por el consumo responsable, socializar los riesgos reales de estas conductas, y reducir los riesgos y los daños.

Euzko Abertzaleak taldeko bozeramaileak esan dauenez, Europako Auzitegi Gorenak ezartzen dituen baldintzak aipatu ditu, era horretako lokalak mugatu edo itxi ahal izateko. Hain zuzen be, nire lehenengo interbentzioan aitatu dot erakunde honek eta gobernu ezberdinek emon beharreko lehen pausotako bat ludopatía osasun publikoko arazo gisa katalogatzea dala. Eta, hain zuzen be, horixe da Europako Auzitegi Gorenak horrelako irekierak eta lokalak itxi edo mugatu ahal izateko arrazoi gisa planteatzen dauan argudioetako bat. Hor daukagu era horretako lokalak zabaltzeko edo itxiteko-baimenen murrizketa horri aurre egiteko atea.

El señor Atutxa también ha mencionado que se puede analizar, que se puede analizar caso por caso qué es lo que está pasando en diferentes lugares. En este sentido, creo que esta institución también tiene algo que decir, algo que hacer y sobre todo no hay que buscar mucho, porque los lugares deportivos de la mayor parte de los equipos deportivos subvencionados por este gobierno están llenos de este tipo de publicidad. Está lleno de publicidad de casas de apuestas y plataformas online, y ahí sí que hay algo que hacer.

No permitirlo es una cuestión que se puede promover desde esta casa, que se puede promover fácilmente, además. Porque esa es vuestra responsabilidad y la competencia de la Diputación. Como he dicho en este sentido, esta Institución puede decir y sobre todo hacer lo suyo en la prevención, en esta labor de desaparición de la publicidad de las casas de apuestas de los espacios deportivos y de ocio, donde andan nuestros menores principalmente. Y como para ello se necesitan fuentes de ingresos, la revisión de las normas fiscales propuestas por Elkarrekin Bizkaia es imprescindible, y sobre todo la ludopatía que hay que situar en el tema de las casas de apuestas y de la salud pública, exige un trabajo conjunto entre instituciones. Y en ese sentido nuestro voto será favorable, como ya he adelantado anteriormente. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Y para finalizar el debate, toma la palabra el representante del grupo Euzko Abertzaleak, señor Atutxa Sainz.

El Sr. **ATUTXA SAINZ** jaunak: Muchas gracias, señora presidenta.

Oso labur, Escalante jauna, guk Euzko Abertzaleak taldetik argi itxi gura dogu gai honen aurrean gure jarrera zain egoteko eta alkarlanean joateko izango dala, gauza biak.

Zain egon, ze guk jarduteko gaitasunik ez daukagula gogoratu ditugun esparruetan, zer neurri hartu, jakina, gu prest egongo gara aztertzeke, adosteko eta aurrera eroateko. Hortik dator jarrera hori, esan daigun holan, itxarotekoa.



Eta alkarlana, eta baita jarrera aktiboa be. Ikusiko dogu, denpora gitxi barru, Eusko Jaurlaritzaren menpe dagoan Jokoaren Behatokiaren txostenak argitaratzen danean, ikusiko dogu ze ondorio eta ze gomendio emoten diran hor, eta, bistan danez, txosten horrek zer esaten deuskun ikusita, txosten horretan bertan gomendatuta dagozan arauzko neurriak hartu beharko dira, jokoaren araudia aldatuz.

Publizitatea dla-ta, argi dago beste arazo bat daukagula, Ilardia andrea, erakunde pribadu bati, edozein dala, nahi dozun kirol-kluba, benetan oso zabalduta dago eta, zelan esango deusagu ze publizitate eroan leiken edo ez? Zein babesle euki leiken edo ez? Guk uste dogu badagoala modu bat, bere garaian tabakoaren eta alkoholaren publizitatea mugatzeko legea aldatu zan moduan, egin ahal izango litzateke. Erakundeentzati askoz errazagoa izango litzateke lege hori aplikatzea, gaur egun egon geintezkan egoera baino. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, una vez terminado el debate, se pasa a votar la Proposición No de Norma.

Podemos votar.

El resultado es el siguiente, se han emitido un total de 48 votos, 16 afirmativos, 30 negativos, 2 abstenciones, por lo que no se ha aprobado la Proposición No de Norma.

Quinto punto del orden del día.

El Sr. **SECRETARIO/IDAZKARI** jaunak:

5.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Proposición no de norma [\(R.E.11/E/2019/0002075\)](#)

**Autor:** Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

**Asunto:** La normativa reguladora de Participación Ciudadana y la creación y regulación de Los Consejos Sectoriales de Participación.

**Documento Principal:** [\(R.E.11/E/2019/0002075\)](#), [\(R.E.11/E/2019/000223\)](#)

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del plazo de enmiendas](#) (23A), [Enmiendas: Admisión a trámite](#) (23B)

**Expediente:** [\(11/B/26/0000449\)](#)

5.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta bozkatzea:

**Jatorrizko ekimena:** Arauz besteko proposamena [\(11/E/2019/0002075SE\)](#)

**Egilea:** Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

**Gaia:** Herritarren parte hartzea arautzen dauen araudia eta parte hartzerako Arlo Kontseiluak sortzea eta arautzea

**Dokumentu Nagusia:** [\(11/E/2019/0002075SE\)](#), [\(11/E/2019/000223SE\)](#)

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#) (23A), [Zuzenketa-eskeak: Izapidetzeko onartzea](#) (23B)

**Espediente:** [\(11/B/26/0000449\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Es el turno, por lo tanto, del representante del Grupo Mixto Partido Popular de Bizkaia que ha presentado la iniciativa, el señor Andrade Aurrecoechea.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko mahaiburu andrea. Egun on barriri be. Arauz besteko Proposamen honegaz Alderdi Popularretik herritarren parte-hartzeari buruzko Foru Arau bat egitearen alde egin nahi dogu, gure herritarrek Batzar Nagusiokaz alkarlanean jarduteko eta parte hartzeko modua arautu eta argituko dauena. Guk geuk eta gure bizilagunek parte hartzeko etengabe egiten deuskuezan eskaerei erantzuna emotea litzateke kontua. Parte-hartzea eta demokrazia bakarrik ulertu ezin diran bi errealidade dira. Gizarte bat demokratikoagoa izango da, eskubide-multzo besterenezin bat bermatzeaz gain, herritarrek parte-hartze handiagoa eta kalidade handiagokoa izatea posible egiten badau eta sustatzen badau. Herritarrek parte hartzeko prozesuen azken helburua baldintza sozialak lortzea da, herritar guztiak aukera berberak izan dagiezan gai publikoetan bardintasunez eretxia emoteko, adierazteko eta parte hartzeko. Zalantzarik gabe, herritarren alkarrekin eta taldeen sareak gizarte zibila egituratzeko euki daben eta dauken garrantzia. Horren ondorioz, parte hartzeko modu barriak arautu behar ditugu, herritarrek eta gizarte-erakundeek aukera izan dagien herritarrek kalidadezko alkarriketa bultzatuko dauen gobernu-eredu bat eratzeko, politika publikoen diseinuan eta ebaluazioan parte hartzea erraztuz.

Parte hartzeko eskubidea, hau da, persona guztiak bere kabuz edo bere ordezkarien bidez bere herrialdeko gobernuan esku hartzeko daukan eskubidea, hainbat tresnatan aldarrikatuta dago. Esparru nazionalan, Espainiako Konstituzinoaren 9.2 artikulua berariaz finkatzen dau botere publikoek herritarren parte-hartzea sustatzeko dauken betebeharra, adierazten dauenean botere publikoek jagokela gizabanakoaren eta integratzen dan taldeak benetakoak eta eraginkorrak izatea, haren osotasuna eragozten edo zailtzen daben oztopoak kentzea, eta herritarrek bizitza sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalean parte hartu dagien erraztea.

Gure ekimeneko lehenengo puntuan proposatzen da Foru Aldundiak Herritarren Partaidetzari buruzko Foru Arauaren proiektua aurkeztea. Foru Arauagaz gura doguna da herritarren parte-hartzea modu erreal eta eraginkorrean gauzatzeko esparru bat ezartzea, eta, horretarako, guztiak inplikatu ahal izan daitezkan politika publikoen eta gobernuaren jardueraren garapenean, hau da, beren eguneroko bizitzan eragina dauken erabakiak, lehendik dagozan partaidetza-erakundeetako bat bera be kaltetu barik.

Foru Arauak guztion benetako parte-hartze eraginkorra bultzatu behar dau, gaurko testuinguruagaz eta herritarrek demokrazia gehiago behar dala esanez egiten daben eskaeragaz bat etorritz. Arau horrek herritarren parte hartzeko eskubidea zehaztu eta gauzatu dau, erabagi politiko eta administratiboan guneak zabalduko dabezan mekanismoen bidez. Prozesu parte-hartzailea, funtzio legegilea be inpregnatu behar dauena, herri-ordezkaritzagaz osatzen dana. Demokrazia batean ordezkariak eztabaidatu eta onartu beharko lekiez ordezkariak dabezan personaren behar, eskaera, kezka eta esperientzietan oinarritutako legeak. Hori lortzeko moduetako bat da legeak egin nahi diren gaiei buruzko ezagutza praktiko edo teorikoak daukezan talde eta kolektiboak eta personak sartzea, baina ez soilik legegintza-ekimen baten izapidetze-fasea, baita jatorrian be, legegintza-eduki bat edo beste bat hautatzeko hasierako erabagian.

Eta oso garrantzitsua da legegintza-prozesuan izandako parte-hartze hori legegileari ez ezkutatzea, eta, horretara, saihestu egiten da erakunde honetan Errentaren gaineko Zergari buruzko 13/2013 Foru Araua aldatzen dauen Foru Arauaren proiektuagaz izandako antzeko egoerak gertatzea. Foru Arau hori otsailaren 14an sartu zen Batzar Nagusietan, eta, bertan, dokumentazinoa bidaltzen da. Langileen sindikatu batek proiektua egitean aurkeztutako alegazioak falta dira. Herritarren parte-hartze erreala eta eraginkorra ahuldu egiten da legegintza-prozeduran, herritarrek egindako alegazioetako edozein, Foru Gobernuak bakarrik ezagutzen badau.

Parte-hartze aktibo eta publiko hori garrantzitsua da, era berean, gure ordezkariak beren eretxia helarazteko bitartekorik ez dauken sektoreak baztertzea saihesteko. Eskaera horregaz batera, proposamen bidez, herritarrek parte hartzeko sektore-kontseiluak sortu eta arautu nahi ditugu, udal askotan dagozan partaidetza-organo informatibo, aholku-emaile, kontrol-organo eta proposamenak egiteko organo gisa, herritarrek eta euron erakundeek etengabe parte hartu dagien foru-jardueraren sektore edo arlo bakotxaren kudeaketan.

Euskal Herria Bilduk planteautako zuzenketari jagokonez, bere ekarpena eskertuz zelan ez, ezin izango geunkez onartu, lehenengoak luzatu egiten dituelako guk martxan jartzeko eskatzen ditugun epeal, guk sei hilabete eskatzen ditugu, eta eurek urtebetera luzatzen dabe. Eta, bestetik, proposamenetako baten beharrezko ikusten dabe prozesu parte-hartzaile bat egitea, partaidetzarako kontseilu sektorialak sortzeko eta arautzeko. Guk be hori nahi dogu, lehenbailehen martxan jartzea. Zure ekarpena eskertuz, baztertu egin beharko dogu. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Es el turno del grupo que ha presentado la iniciativa. La representante del grupo Euskal Herria Bildu señora Urkaregi Etxepare, tiene la palabra.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Sí, gracias, señora Presidenta. En la motivación de la Proposición No de Norma presentada por el Grupo Mixto-PP se dice que la importancia de la participación exige que se materialice la respuesta normativa a través de las normas. La respuesta mediante normativa se obtendría a través de la regulación legal a través de una Norma de Participación Ciudadana y de su ejecución a través de la creación y regulación de los Consejos Sectoriales de Participación Ciudadana. Está claro que la palabra "participación" está en boca de todos los grupos políticos. La misma palabra sí, pero detrás hay conceptos muy diferentes de participación.

Mundu guztiak hitz egiten dau PARTE HARTZEAZ, baina errealidadea da, beste batzuetan be ikusi dogun moduan Ganbera honetan, hitz horren atzean oso kontzeptu desbardinak dagozala.

Precisamente por eso, en la anterior legislatura, EH Bildu propuso la constitución de una Comisión de Estudio, teniendo en cuenta la diversidad existente en torno a la participación, con el objetivo de que en el diseño de un modelo propio de participación de la ciudadanía de Bizkaia todos y todas podamos participar y sea un modelo de participación más plural con las aportaciones de todos y todas. La creación de la Comisión de Estudios se aprobó por unanimidad y se constituyó en marzo de 2017. Los comités de expertos comenzaron en mayo, hasta noviembre. El informe final de la comisión de estudio fue debatido y aprobado en octubre de 2018 con los votos favorables de PNV, PSE, PP y Grupo Mixto. EH Bildu y Podemos presentamos sendos votos particulares.

EH Bildu no compartió el último informe presentado por la comisión, en especial las recomendaciones realizadas a la Diputación Foral de Bizkaia, porque eran absolutamente insuficientes, a nuestro juicio.

Aurreko legealdian, urtebete baino apur bat gehiago emon genduan herritarren parte-hartzeari buruz eztabaidatzen EH Bilduk proposatuta sortutako Azterketa Batzordean. Herritarren parte-hartzean adituak diran personen agerraldiak euki genduzan, eta, azkenean, txosten bat egin zan, 2018ko urrian onartu ebena EAJk, PSEk, PPK eta Talde Mistoak. EH Bilduren eta Podemosen kasuan, barriz, boto partikular bana aurkeztu genduan, besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiari egindako gomendioak guztiz eskasak zirala uste gendualako.

Pero el trabajo de la comisión de estudios no era solo hacer ese informe, a través de las aportaciones de los expertos en la comisión, yo creo que todos los grupos aprendimos algo, en algunos casos eran amplios consensos con los presentados, con otros no tanto, pero todos aprendimos.

Agerraldi guztietan eztabaidatzeko gaietako bat Herritarren Partaidetzari buruzko Foru Arau baten beharra edo ez izan zan. EH Bilduk dino Arau hori tresna bat izan daitekeela herritarren parte-hartzea bultzatzeko. Adituen artean ez egoan adostasunik. Batzuek haren beharra defendatzen eben, beste batzuek ohartarazten eben korse estuegia izan eitekeala eta parte-hartzea mugatu eikeala, arautzea zan aldetik. Aldi berean, Foru Arauaren beharra defendatzen ebenek argi euken Arauak berez, ez zituala dagozan arazoak konpontzen, eta ez ebalu besterik gabe parte-hartzea bermatzen. Eta EH Bilduk ideia horregaz bat egiten dau.

Baina, gainera, adostasun puntu bat oso argia egoan: arau bat eukitea baino garrantzitsuagoa da Arau hori egitera eroan ahal gaituan prozesua zaintzea eta mimatzea. Hau da, Arauari berari baino gehiago, Arau hori egiteko prozesuari emon behar deusgatu garrantzia.

Eta horregaitik aurkeztu dogu gure lehenengo zuzenketa.

El Grupo Mixto-PP plantea que "la Diputación Foral de Bizkaia presente en estas Juntas la Norma Foral de Participación Ciudadana antes de junio de 2020".

Esto es, que la Diputación haga la Norma Foral y aquí la debatamos y aprobemos. Por lo tanto, elaborar una Norma Foral de participación, sin participación ciudadana.

Y lo que propone EH Bildu es, en lugar de eso: "Que la Diputación Foral de Bizkaia ponga en marcha un proceso participativo para elaborar una Norma Foral de Participación Ciudadana y presentarla a estas Juntas Generales en el plazo de un año."

Andrade jaunak esan dau ez dauela zuzenketa onartuko, besteak beste, epeak luzatzen direlako. Jakina luzatzen dirala, prozesu parte-hartzaile batek denbora eskatzen dauelako, hain zuzen be hau da batzordean egon zan eztabaidarik handietako bat. Zelan egin herritarren parte-hartzea erakunde baten barruko denpora-mugak kontuan hartuta, eta batzuetan bi denpora horreek uztartzeko ezintasuna kontuan hartuta?

EH Bildurentzat, ordea, kontua ez da Arau bat egitea, Foru Arau hori egiteko prozesu parte-hartzaile bat martxan jartzea baino. Eta hori da gure lehenengo zuzenketa planteatzen doguna.

Y ese fue el primer compromiso que solicitábamos a la Diputación Foral de Bizkaia en la votación particular presentada al Informe elaborado por la Comisión de Estudios: "Poner en marcha un proceso participativo que aclare en qué y cómo quieren participar los ciudadanos y ciudadanas de Bizkaia."

La segunda enmienda corresponde a los Consejos Sectoriales.

El Grupo Mixto-PP plantea que la Diputación Foral de Bizkaia cree y regule los Consejos Sectoriales de Participación Ciudadana.

EH Bildu considera que no podemos proponer, por un lado, una Norma Foral de Participación, y fuera de ella, el Consejo Sectorial de Participación Ciudadana. Estos Consejos deberán estar integrados en esta Norma Foral y por eso planteamos en nuestra segunda enmienda que ese proceso participativo planteado en el primer punto analice como parte de la Norma Foral la posibilidad de crear y regular Consejos Sectoriales de Participación Ciudadana.

Y nos parece muy importante que en ese proceso participativo se hable de los Consejos Sectoriales, porque queremos saber cuáles son los objetivos y las condiciones que plantean la ciudadanía y/o las asociaciones para participar en dichos Consejos.

Talde Berezia-PPk Arauz besteko Proposamenaren justifikazioan hau planteatu dau: "Herritarren Partaidetzarako Kontseilu Sektorialak parte-hartze organo aholku-emaileak, informatiboak, kontrolekoak, aholkularitzakoak eta proposamenekoak izango dira, herritarren parte-hartzea bideratuko dabena, nahiz eta bere esku-hartzean Andrade jaunak eurei jagokezan gai zehatzei buruz eta alkarrekin buruz hitz egin dauden".

EH Bildurentzat parte-hartzeaz hitz egitea ez da aholkuak emoteaz edo proposamenak egiteaz bakarrik hitz egitea; erabakiak hartzerakoan be parte hartzeari buruz hitz egin behar dogu.

Y para ello vemos necesario el proceso participativo y no que lo haga la Diputación Foral de Bizkaia sin contar con nadie, ni la norma foral ni los consejos sectoriales que se creen y se regulen. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Escalante Mesón tiene la palabra.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Muchas gracias de nuevo. Gure aldetik, esan behar dogu daten kalkulu oker batez proposamena zuzendu nahi izan genduala, ideia berez ona dalako. Ondo etorria izan daitela parte-hartzea sustatzea, baina ekimena hobetzeko modukoa zala ikusten genduan, Alderdi Popularraren proposamena. Hasteko, proposamena taldetik Batzordera etortea deigarri egin jakun, eta, lehen be egin dau, parte-hartzea herritarrek edo herriak 4 urtean behin bozkatzea dala itxi dau agirian. Eta hortik dator gure harridura hau aurkeztean, baina, ondo etorria era berean.

Gure aldetik, gai bi igarrii doguz faltan: lehenengoa informazioa da, informazioaren gaia, abiapuntu gisa herritarren ahalduntze-prozesu bat beharrezkoa ikusten dogulako, eta ahalduntze horretarako beharrezkoa da informazioa. Erakunde hau ezezagun handia da herriarentzat, baina, gainera, nahiko iluna da, baita barruan gogozantzat be.

Eta, bestalde, bigarren puntutzat Foru Araua bera jo genduan, gure ustez, modu parte-hartzailean egin beharko litzateke, prozesu parte hartzaile baten emaitza izan beharko leuke, eta holan, EH Bilduk jada adierazi dituen epe batzuk eskatzen ditu, Talde Popularratik proposatzen deuskuezanak baino luzeagoak diranak. Herritarren partaidetzarako arau baterako prozesu horrek ondo funtzionatzea gura badogu, epe luzeagoak behar ditu, eta edo oso azkar eta gaizki daukagu, edo ondo daukagu, eta ba pixka bat luzatuko litzateke. Beraz, EH Bilduk proposatutako zuzenketagaz baterago gatz.

Eta, horregaitik, nahiz eta, esan bezala, ekimenaren asmo onagaz bat egiten dogun, ez dogu ekimena babestuko, asmoa ona izan da be gure erizpideari jarraituta, eskas geratzen dalako, hobetzeko modukoa da. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. La representante del grupo Socialistas Vascon, señora Gil Llanos, tiene la palabra.

La Sra. **GIL LLANOS** andreak: Egun on guztioi. Buenos días a todos y a todas. Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Hasteko, Osoko bilkura honetan barriro be herritarren parte-hartzeari buruz eta parte-hartze hori zelan bideratu aztertuko dogu, gure lurraldean eraginkorra izan daiten. Eta Ganbera honetan behin eta barriro egiten gabilzan eztabaida danez, behin baino gehiagotan entzungo zeustien esaten sozialistok jarrera politiko barri baten alde egiten dogula, herritarrak politika horren erdigunean egongo dirala, eta uste osoz onartzen da demokrazia sendo batek publikoaren kudeaketa irekia, gardena eta parte-hartzailea behar dauela, eta, horretarako, hori posible egiteko tresnak eta prozedurak jartzen ditugu martxan. Besteak beste, gure gizartean dagoan talentu guztia aprobetxatzeko modurik onena dalako. Beraz, herritarren parte-hartzea ikusten da sistema demokratikoaren, jardun politikoaren eta jarduera instituzionalaren funtsezko pieza gisa. Nik uste dot honaino danok gagozalaados, baktoxaren ñabardurakaz.

Hemen ez dago ezer barririk, eta hau aurreko agintaldian eztabaidatu eta adostu genduan. Gertatzen dana da Alderdi Popularreko jaun-andreei ahaztu egiten jakela adostu genduala zelan pasatuko ginan musetatik antzerkira, edo teoriatik praktikara; beraz, gauza batzuk gogoraraziko deusuedaz.

Lehenengoa, eta nireztat funtsezkoa, beste leku batzuetan ondo funtzionatzen ebanaren esperientziak esaten euskun parte-hartzea ez dala inprobisatzen, hausnarketa, metodologia eta planifikazioa eskatzen dituela. Horregaitik 2016ko ekainean, Urkaregi andreak esan dauen moduan, aho batez onartu genduan partaidetza aztertzeko batzorde bat martxan jartzea, urtebete baino gehiago igaro ondoren, eta dozena bat aditu baino gehiagoren parte-hartzeagaz eta ganbera honetako talde guztien ekarpenakaz, ondorioen txosten bat egin genduan.

Era berean gogoratzen deusut, batzuri dana ahazten jakie eta, eztabaida nagusietako bat parte-hartzea araupetu behar zan ala ez izan zala, eta gehingoaren ondorioa hori baztertzea izan zan. Izan be, Urkaregi andreak esan dauen moduan, arau batek, berez, ez dau parte-hartzea bultzatzen; are gehiago, ondo gogoratu dauen moduan, aditu batzuen ustez, burokratizatu edo okertu egin leikie. Horregaitik, beste bide bat hartu genduan, gure parte-hartze eredu propioa zehazteko aukera emongo euskuna, eta bide horretan aurrera egiteko gomendioen dekalogo bat egin genduan. Eta logikoena litzateke eztabaidetan atzera egin beharrean gomendio horreen betetze-maila ikustea, era berean ebaluatzeko Bizkaiko Foru Aldundiak herritarren parte-hartzeagaz daukan konpromiso-maila, eta ganbera honek herritarren parte-hartzeagaz daukana.

Laburpena egingo deusuet. Aldundiak Aldunditik sustatutako partaidetza-esperientzien mapa bat egitea eskatu genduan, saguaz, zuek ikusi zeinkie Bizkaia.eus web-orrian klik eginez, sei jarduera-ardatzeko partaidetzaren mapa aurkituko dozue, nik irakurtzeko esango neuskizue.

Herritarrek parte-hartzea sendotzearen alde egiteko be eskatu genduan, erakundeen kalitate demokratikoa hobetzeko, eta aurrera egiten gabilz, eta egunez egun partaidetza eraikitzen goaz jada sortuta dagozan sektore-kontseiluen bidez, gobernu ireki gisa parte hartzen dugun foroetan, eta horrez ganera, herritarren parte-hartzea hobetzeko esperientzia

eta gomendio barriak emoten dabean foroetan parte hartzen dogu, eta gero gure eguneroko zereginean sartzen dogu.

Jokabide-kode bat diseinatzea eta ezartzea be eskatu genduan, eta jokabide-kode hori, gomendio horren espiritua, bateraezintasunen eta interes-gatazken arauan jasota dago.

Parte-hartzeko plan bat egitea be eskatzen zan, eta parte-hartze plan hori 2019an amaitu da, orain ebaluazinoa egiten dago, eta Bizkairako parte-hartze plan barria bultzatzekotan da.

Parte-hartzea eta haren ebaluazinoa erraztuko dabean mekanismoak garatzea be eskatzen zan. Ba web-orrian ikusiko dozue badagoala Bizkaia irekiari eta partaidetzari buruzko atal bat, eta hor dago informazino guztia eta herritarrek parte hartzeko eskubidea baliatzeko gaitasuna.

Parte-hartzeko moduan ekarriko dabean tresnak izatea be eskatzen genduan; izan be, gaur egun baliabideen gida bat lantzen gabilz, eta parte hartzeko prozesuak zelan gauzatu, Aldundiko langileen prestakuntzarako zereginean parte hartuko dabean baliabideen gida bat.

Eragile sozialakaz, enpresakaz, erakundeakaz eta kolektiboakaz alkarlana indartzea be eskatzen zan, eta hemen pixka bat gehiago geldituko naz, ze nik uste dot hau oso interesgarria dala. Izan be Alderdi Popularraren proposamenaren eta zuzenketen arabera, orain bat-batean parte hartzeko kontseiluak lehenengoz aurkituko balebez moduan da. Ba guk orain dala bi hamarkada baino gehiago aurkitu genduzan, eta honezkeroko 38 partaidetza-kontseilu dagoz martxan eta une honetan beste partaidetza-kontseilu bat dago sortzeko, Bizkaiko Emakumeen Partaidetzarako Kontseilua, laster agertuko dana, eta hasieratik emakumeek parte hartuta eta eurak ordezkatzan dabean kolektiboakaz batera prestatzen dabilena, modu parte-hartzailean funtzionau dagian.

Ordezkaturako taldeen parte-hartzea bermatzeko neurriak be eskatzen ziran, eta martxan jarri diran neurrietako bat zuek be ikusi zeinkie Bizkaitarren Sarearen bidez, persona eta erakunde boluntarioak ekarteko ahalegina eginaz, erakundeetatik sortutako partaidetza-ekimenetan parte hartzeko. Era berean, erakundeen arteko lan-ildoak eta alkarriketa aztertzea eskatzen zan esperientzia pilotuak garatzeko, eta Eusko Jaurlaritzagaz, udalakaz eta Aldundiakaz lanean gabilz gobernu irekia eta parte-hartzailea egiteko konpromisoetan.

Era berean, publizidade aktiboa, irisgarritasuna eta ulergarritasuna handitzea eskatzen zan, eta horretarako Bizkaia gardena ataria irakurtzera gonbidatzen zaituet; beraz, Talde Sozialistarentzat hori da muineko gaia, eta horren gainean jarri beharko genduke eztabaida. Adostutakoa betetzen doan, parte-hartzean benetan aurrera egiten goazen, tresna eta mekanismo gehiago behar ete diran, proiektatu genduan funtzinoa betetzen ete dogun, hau da, aurrera egiteko hobetzen lagunduko deuskun ebaluazino bat egin daigun, eta ez daiguzan proposatu hasierara itzultzen gaituen gaiak eta eztabaidak.

Horregatik, Alderdi Popularraren ekimenaren aurka bozkatuko dogu, ze aurreko eztabaidan esan neban moduan, parte-hartzean eta gizarte aktibo, inplikatu, koinplikatu, erantzunkide eta kultural bat eraikitzeke daukan gaitasunean sinesten dogu. Hori da gizartea eregiteko modurik onena, herria eregitekoa, eta aurka bozkatuko dogu, norabide horretan aurrera egiten jarraitu nahi dogulako, eta ez atzera egin. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias la representante del grupo Euzko Abertzaleak, señora Edesa Gómez, tiene la palabra.

La Sra. **EDESA GÓMEZ** andreak: Muchas gracias, señora presidenta, buenos días a todos.

Talde Berezia-Popularrak proposamen bat ekarri dau, Diputazioari eskatzeko ganbera honetan aurkeztu daijala herritarren parte-hartzeari buruzko foru-arau bat, eta partaidetzarako goi-mailako kontseiluak sortzeko eta arautzeko. Eta Bilduk zuzenketa bat aurkeztu dau, proposatzeko arau horren iraupenaren prozesua partaidetza-prozesu baten bidez egitea, eta badirudi Talde Berezia-Popularrak ez dauela onartuko.

Urkaregi andreak eztabaidan zehar gogoratu dau aurreko legealdian herritarren parte-hartzeari buruzko azterketa-batzorde bat sortu zala, eta hile batzuk eztabaidatu ondoren, talde batzuk proposatuta gaian adituak agertu ondoren, ondorioen txosten bat idatzi zala, eta txosten horretan, laugarren puntuan, gomendio batzuk jarri zirala. Zuek ezagutzen dozuez, dokumentu hori danon eskura dago, eta danok daukaguz gomendioak, eta danok gura dogu betetea. Bada, Aldundi hau Ganbera honek markatutako ibilbide-orri hori jarraitzen dabil, Bizkaiko Batzar Nagusiek parte hartzeari buruz adostutakoa betetzen dabil, eta uste dot horixe nahi dogula danok. Normalean Aldundiari eskatzen jako Ganbera honetan adostutakoa beteteko, eta horixe egiten dabil. Dekalogo bat da, hamar gomendio, eta horreetatik batzuk bete dira honezkerok, eta beste batzuk gauzatzen gabilz.

Gil andreak ekintza horreen garapena zerrendatu dau, gomendioei erantzuten deuten ekintzak. Ez ditut errepikatuko, baina bai balioan jarri, Diputazio hau burutzen dabilen ekintzak dira eta benetako herritarren parte-hartzea lortzeko oinarriak jartzeko gakoa dira. Ikusi zeinkienez, Aldundia bere beharra egiten dabil, ganbera honek agindutako beharra, ganbera hau osatzen daben taldeek hainbat hiletan egindako lanaren emaitza diran beharra, uniformea eta gomendioak, eta zalantzarik gabe, hori balioan jarri behar dogu, eta aprobetxau egin behar dogu, ze hori izan zan ponentziaren helburua. Zuk zeuk eskatu zenduan Urkaregi andrea, ponentzia hori sortzeko, eta helburua betetzen gabilz. Eta ponentzia horreetan berba egin zan, bai, berba asko egin zan Foru Arau bat egiteari edo ez egiteari buruz, herritarren parte-hartzea arautzeari edo ez arautzeari buruz, eta ondorioa askoz harago joan zan, arau bat egitetik askoz harago doa, eta konfiantzaren eta gardentasunaren bidez arautu behar dan prozesu bat zokoratzetik. Gure taldetik ulertzen dogu eztabaida benetakoa dala, zer parte-hartze mota nahi dogun erantzun behar dauela eta zelan heldu behar dogun herritarren benetako parte-hartze horretara, eta hainbeste zentratu barik Foru Arau bat behar dan ala ez.

Eta, horregaitik, ponentzian agertu ziran adituen gogoeta batzuk gogoratu gura dodaz, nire ustez oso garrantzitsuak diralako eta kontuan hartu beharko geunkezalako eta eztabaidan zehar be gogoratu. Antxon Gallegok esan eban: gai honi buruz Foru Arau bat onartzeak ez dau erakundeetan parte-hartzearen kalidade demokratikoa zehazten edo baldintzatzen. Eta Juanjo Alvarezek esaten ebana be gogoratu nahi dot, esaten eban: erregulazinoa edo normatibizazinoa, batzuetan, parte-hartzea bahitzen eta burokratizatzen dauen kortse bat da. Eta gaineratu eban: arrakastaren gakoetako bat herritarrengan konfiantza sortzea da, eta, norabide horretan aurrera egiteko, funtsezkoa da integridadea - gardentasuna binomioa.

Nik uste dot Aldundia klabe horretan dagoala, herritarren parte-hartzea sendotzeko klabe horretan dagoala. Eta gure ustez hori da bide zuzena, eztabaida ez dagoalako hainbeste Foru Arau bat egin behar dan ala ez, eta horregaitik, proposamenaren aurka bozkatuko dogu. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Pasamos al turno de respuesta. Tiene la palabra el señor Andrade Aurrecoechea.



El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko presidente andrea. Batzarkide guztioi eskerrak emon gura deusuedaz Alderdi Popularrak egin dauen proposamen honi egingeuzuezan ekarpenakaitik, nahiz eta benetan sentitzen dogun ez babestea parte hartzeko Foru Arau hau. Guk, esan dodan moduan, indarrean dagoan legeriaren arabera, Foru Aldundiari eskatzea gura dogu hasi dagizala herritarren partaidetzarako Arau hau arautzeko izapideak, argitu deigula zelan, noiz eta non ezarri behar dan parte-hartzea, eta ez daigula ezarri behar mekanismo bakotxean, lege baten edo batzorde baten aurrera egiten dogun bakotxean, ba herritarren partaidetzarako erregimen hori.

Danok bat gatzela emoten da, Foru Arau hori sortzeko izan ezik. Ze esan da hemen batzorde bat egon zala eta erabagi zala ezetz, ez zala Foru Araua sortuko. Gure ustez, agirian geratu da gaur egun dagoanak ez dauela balio, lehen adibide bat jarri dot: PFEZaren lege barrian ez da auzo-ekarpenen barri eman, baina gehiago behar da, gure ustez gaur egun Foru Arau hori behar da, aurrera egin behar da. Ordezkaritza-erakundeak osatuko dabezan herritarren partaidetzarako modu zuzenak bultzatzea lehen mailako gizarte-eskaera bihurtu da, eta, horren ondorioz, beharrezkoa da partaidetza-bideak eta gaur egun ditugun partaidetzarako modu zuzenak zabaltzea. Gizarteak, herritarrek adierazitako eskaria jasoz, estatuko eta nazinoarteko erakunde eta foro garrantzitsuenek babestuta, eta gure funtsezko testu juridikoetan idazpena eta justifikazino osoa daukala.

Botere publikoek konpromisoa hartu beharko leukie herritarrek bizitza politikoan parte hartzea errazteko betebeharraren aurrean, eta konpromiso horren helburua izan beharko litzateke bide materialak ezartzea, eraginkor bihurtzeko behar dan informazioa zabaltzea, ezagutza eta motibazioa emotea, eta personei aukera emotea adierazteko, sortzeko, antolatzeke eta prozesuetan esku hartzeko gaitasunak eta aukerak zabaltzeko, batez be beren bizitzan funtsezkoa eta garrantzitsua dana. Nire lehennengo interbentzinoan Espainiako konstituzinoaren erregulazioak aipatu dodaz, parte hartzeko eskubidearenak, baina nazinoarteko hainbat tresnatan be aldarrikatuta agertzen dan eskubide bat da, kasurako Europar Batasunaren itunaren 10.3 artikuluan, herritar orok Batasuneko bizitza demokratikoan parte hartzeko daukan eskubidea aldarrikatzen dauena, eta erabagiak ahalik eta modu irekienean eta hurbilenean hartzeko eskubidea. Europako Batasuneko itunaren 41. artikulua be jasotzen dau administrazino onerako eskubide hori. Baina ez dago hain urrin joan beharrik. Orain dala gitxi, Gipuzkoako Foru Aldundiak berak 2018ko azarotik dauka herritarren parte-hartzeari buruzko azaroaren 12ko 5/2018 Foru Araua. Bertan, gauza interesgarriak dagoz, besteak beste, herritarren partaidetzarako Foru Batzorde bat sortzea, herritarren partaidetzarako gizarte kontseilua eratzea, partaidetzarako herri erakundeei jarduerak sustatzeko diru laguntzak ezartzea, eta herritarrek parte hartzeko erregimen osoa zehatz-mehatz arautzea. Araudi hori, dinodan moduan, 2018ko azaroan onartu eben PSOEk, EAJk, Podemosk eta Alderdi Popularrak, Euskal Herria Bilduk izan ezik, hau da, Gipuzkoako ordezkariak osoak babestu eban Foru Arau hori, herritarren parte-hartzeari buruzko Foru Arau bat ezarri ebana Gipuzkoan, eta badirudi han gure alderdikide politikoek uste ebela beharrezkoa zala Arau hori, Araua ez zala kortse bat, gaur goizean hemen esan izan dan moduan. Eta nik dinot, zergaitik nahi dabe Gipuzkoan Foru Arau bat eta Bizkaian ez? Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Tiene la palabra la representante del grupo Euskal Herria Bildu, señora Urkaregi Etxepare.

La Sra. **URKAREGI ETXEPARE** andreak: Gracias señora Presidenta. Como he dicho en el primer turno, para EH Bildu, es mucho más importante poner en marcha un proceso participativo que tener la norma. Y eso ha sido lo que nosotros hemos planteado en nuestra primera enmienda.

En nuestra opinión, hablar de participación y decidir cómo va a ser esa participación, los que tienen que participar, es decir, sin tener en cuenta a la ciudadanía y sus opiniones, nos parece un poco absurdo. Porque desde el principio tenemos que impulsar la participación ciudadana, en nuestra opinión.

Pero, dicho esto, y en ese sentido vemos con pena que el Grupo Mixto Popular no va a aceptar nuestra enmienda, tenemos que decir que también lo que hace la Diputación es regular algo de participación sin tener en cuenta a los que tienen que participar. Y digo eso porque, tanto por parte del PNV como por parte del PSE, han ensalzado lo que está haciendo la Diputación. Y debo decir que, aunque nosotros no compartimos el último informe que salió de aquí y las recomendaciones que se aprobaron, tengo que decir que esas recomendaciones no se están cumpliendo.

Eta Gil andreami irakurriko deusatzat, ze berak gomendioak irakurri deuskuz, baina gomendioez gainera xedapen gehigarri bat egoan, bigarrena, esaten ebana: Batzar Nagusiek lan-proposamen bat aurkezteko eskatzen deute Bizkaiko Foru Aldundiari, irizpen honetan jasotako gomendioei erantzuteko, osoko bilkuran onartu eta hiru hilabeteko epean. Ez dakit, igual gobernuko kide diran pertsonen edo alderdien artean ezagutuko dabe lan-asmo hau, baina EH Bilduk behinik behin ez. EH Bilduk ez dau ezagutzen eta ez dago web orrian argitaratuta. Zuk planteatu dozuzan gaietako batzuk, hain zuzen be, partaidetza-mapa hor dago. Baina kontua da gomendioak egin baino lehen egoala, Aldundia bere airera doalako eta nahi dauena eta nahi dauen moduan egiten dauelako, ez herritarrak, ez ganbera hau kontuan hartu barik.

Por otra parte, jokabide-kode bat edo integritate instituzionaleko sistema bat diseinatu eta ezartzea, eta herritarrek hori ebaluatzeko eta jarraipena egiteko behar diran tresnak garatzea. Beno, esan behar da hori Bateriaezintasunen Foru Arauan jasota dagoala, eta gogoratu gura deusatz baita be Foru Gobernuak, hau da, zuek, PSOEek eta Euzko Alderdi Jeltzaleak, zuzenketa bat egin zenuela esanez epe baten jokabide-kode bat garatuko zenuela, baina hori be ez da bete. Baina tira, hemen gauza asko idazten eta onartzen dira, betetea beste kontu bat da.

Eta, jakina, parte-hartzearen gai honetan, nik askotan esan dodan ondorio beragaz jarraitzen dot, danok hitz egiten dogu parte-hartzeaz, baina oso kontzeptu desbardinak ditugu, eta hemen berbaz egon naiteke ez dakit zenbat denporan, bai Gil andreak esandakoaz, bai Edesa andreak esandakoaz; izan be, ez dot inondik be ikusten Aldundia parte hartzeko plan bat garatzen dabilenik, ez parte-hartzea sustatzen dabilenik, ez beste ezer egiten dabilenik.

Zeozertan ibiliko da, esan dau Gil andreak, eta horregaz geratu naz, 38 kontseilu sektorial. Baina esan egin beharko deustazu zeintzuk diran, ze ez Gardentasunean, zuk oso ondo dakizu ni beti Gardentasuna plazan sartzen nazela, ez beste inon, inon bez, nik 38 partaidetza-kontseilurik ez dot inon ezagutzen. Gero, kontseilu horrek baloratu egin geinkez, baina adineko pertsonen kontseilua ezagutzen dot, jakina badakit emakumeen partaidetzarako kontseilua egiten doala, eta ez dakit besterik ahazten jatan, baina ez dot besterik ia ezagutzen. Eta, jakina, 38ra arte asko ahaztu behar jataz.

Entonces, creo que aquí vamos a perder la oportunidad de volver a hacer otro debate en torno a la participación. Y creo que es importante, como he dicho, el concepto de participación es muy, muy diferente al nuestro, y sería positivo, por lo menos, poner encima de la mesa lo que todos pensamos, y lo hicimos en la comisión de estudio. Lo hicimos pero luego, en las conclusiones y en las recomendaciones eso no se materializó, y entonces, yo creo que volveremos a perder esa oportunidad.

Sin embargo, nosotros no vamos a votar en contra, a pesar de no aceptar la enmienda, porque nosotros siempre hemos defendido que estaría bien contar con una Norma

Foral de Participación Ciudadana, aunque no coincida con el camino que ha planteado el Grupo Especial-PP.

Y, por cierto, en la Comisión de Estudios no se acordó que no hubiera Norma Foral, EH Bildu dijo que estaba dispuesto a que eso no apareciera entre las recomendaciones, si hacíamos otras cosas, porque, como he dicho antes, es más importante que la Norma Foral impulsar un proceso participativo.

No vamos a votar en contra pero tampoco vamos a votar a favor, porque el procedimiento que se plantea es simplemente instar a la Diputación Foral de Bizkaia a que elabore una Norma Foral y cree consejos sectoriales, y si no estoy en absoluto de acuerdo con lo que hace la Diputación como digo, pues que diga a la Diputación que haga una Norma Foral, pues bueno, creemos que no sirve para nada, y por nuestra parte nos vamos a abstener. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Tiene la palabra el representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, señor Escalante Mesón.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Gracias de nuevo. Gure aldetik, eztabaidari gehitzekorik ez daukagu, informazioaren garrantzia azpimarratzea baino ez. Gure ustez gardentasuna ez da web-orri bat izatea bakarrik, ze azken finean, Bizkaiaren zati handi batek ez dauka Interneterako sarbiderik, dala arrazoi ekonomikoakaitik, dala kontu teknikoakaitik. Eta, beste alde batetik, eten digitala dago.

Eta gero, beste alde batetik, zalantza daukagu Bizkaian zenbat jentek ezagutzen dituan prozesu horreek, eta ezjakintasun horrek erakusten dau parte-hartzearen aldeko apustua egiten dan ala ez, besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. La representante del grupo Socialistas Vascos, señora Gil Llanos, tiene la palabra.

La Sra. **GIL LLANOS** andreak: Hemen barriro.Ni izan naz boligrafoagaz. Bigarren interbentzino hau lehenengo interbentzinoa amaitu dodan moduan hasiko dot, talde bezala berretsiz herritarren parte-hartzeagaz daukagun konpromisoan. Izan be, sinestu egiten dogu bai horretan bai herritar aktiboagoak eta publikoagazko erantzunkideagoak eregiteko daukaen gaitasunean, eta horregaitik jarraitu gura dogu aurrera egiten eta hobetzen orain arte egin dogun horretan; beraz, ez dogu jarraituko proposamena egin dauen taldeak, Talde Popularrak, markatutako bidetik, orain arte eregitakoa alde batera ixtea litzatekeelako, eta gure ustez, bape pisuzko arrazoi barik. Eta ez deus ukatuko Talde Popularrari bere gaitasuna eta jarrera aldatzeko daukan eskubidea. Eta hori esaten dot gero guri immobilistak ez deitzeko.Baina bai eskatuko deutset koherentzia, ez jatalako serioa eretxiten egin daben amnesia ariketa.

Begira, aurreko agintaldian, gogoetan urte bat emon genduan batzorde horretan, gai horretan zuen bozeramailea, hain zuzen be, zuen Taldeak Osoko bilkurakn ondorioak onartzeaz gainera, urtebete beharren emon eta gero, esaten eban parte hartzeko espazioak zabaldu behar ditugula, araudia egin behar dan ala ez ikusi baino lehen. Eta horretan oinarrituta, ebaluazino horretan, jakin behar dogu lan-espazio horiek zabalduz joan behar dogun. Horrek ez dauka zerikusi handirik gaur zuek hemen proposatzen dozuengaz.Eta esaten eban: Talde Popularrarentzat funtsezko bi kontu ziran nolabait parte-hartzearen arloan aztergai ziranak, edo kezka ziranak.Bata zan ILP eguneratzea eta ikustea zelan dinamizatzen genduan Batzar Nagusiotan bertan daukagun taldea, Herritarren Kexa eta Iradokizunen

Batzordea deitzen dana. Baina parte-hartzearen arautzearen gaia ez eben babesten inondik be, eta, gainera, bildur naz gaur hona ekarri deuskuzuen proposamen hau Andrade jaunak urriko osoko bilkuran izan eban biztualdiaren ondorioa ete dan, PIGRUBari buruz eztabaidatzen hasi eta esan ebanean "plenoetara amaieran parte-hartzearen dauken ekimenak baino ez datoz".

Ba nik iragarten deusuet parte-hartzeari buruzko ekimen bat aurkeztuko dodala. Diskurso haretan zuk pixka bat nahasten zeduzan parte-hartze politikoa herritarren parte-hartzeagaz, eta gaur barriro egin dozu. Ze herritarren partaidetzarako arau bat izan edo ez izan, ez dauka eraginik zuk esaten dozun herritarren alegazinoei buruzko txostena espedientean sartzeko, espedientean agertzen ez dala-ta esaten dozuna. Nik, une honetan, ez dakit espedientean dagoan ala ez, baina horrek ez eban partaidetza-arau bat ahalbideuko. Eta gogorarazten deusut, gainera, gogoeta horretan bertan esaten zenduala "urrezko aukera bat alferrik galdu genduan Ganbera honetako erregelamendua egin genduan, eta Ganbera honek egiteko daukan eztabaida herritarren parte-hartzearena da". Garai haretatik ezer gertatu ez balitz moduan, legegintzaldiko lau urte igaro ez balira moduan, eta gaietan aurrera egiten jarraitu ez balitz moduan.

Baina une horretara atzera joteagaz batera, zuek, hain zuzen be parte-hartze politikoa arautzen eban Araudiaren Batzorde haretan, ez zenduen inolako neurririk proposatu parte-hartze politikotik herritarrentzako espazioak zabaltzeko. Kexen eta iradokizunen batzorde bat badago, EH Bilduk proposatu ebalako da, eta Alderdi Sozialistak zuzendu eban, eta transakzional batera heldu ginan. Batzar Nagusi honeetako araugintzan parte-hartzea badago, Alderdi Sozialistak proposatu ebalako da, eta herritarren alegazinoak badagoz erakunde honetako aurrekontuetan, batzorde hori aprobetxatuz, Alderdi Sozialistaren proposamena izan zalako, eta gero, jakina, batzordeko kideek babestuta.

Beraz, Andrade jauna, nik uste dot zu eztabaida alborantza erooten zabilzala, eta eztabaida alboratzeaz gain ez dituzula etxeko lanak egin, eta ez dozula ikusi erakunde honetan lau urteotan zer aurreratu dogun.

Eta denpora barik geratzen noa Urkaregi andreari erantzuteko. Gainera, egia da partaidetza-eredu desbardinak ditugula, eta hori agirian geratu zan herritarren partaidetzarako batzordean hausnarketa egin genduan. Baina barriro esango deusuet, taldeak banandu ginduzana ez zan izan herritarren parte-hartzea araupetzea, taldeen artean aho bateko adostasuna egoan partaidetza-espazioak sortzeko, eta gogoratu gura deusuet talde guztiek partekatzen ebela ideia bat, parte hartzen parte hartuz ikasten da.

Parte-hartzea prozesu bat da, eta, beraz, nik uste dot une honetan nahiago dodala Bizkaian partaidetza-espazioak ugaritzen jarraitzeko denbora emotea eta abian ditugun prozesuetatik ikastea, partaidetza-arauari buruzko partaidetza-prozesu baterako denpora emotea baino. Askoz be aberasgarriagoa egiten jat egiten gabilzana eta darabilgun norabidea, eta barkatu. Honezkero denborea pasasu dot. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Para terminar el debate, tiene la palabra la representante del grupo Euzko Abertzaleak, señora Edesa Gómez.

La Sra. **EDESA GÓMEZ** andreak: Muchas gracias señora presidenta. Andrade jauna, Gil andreak esan deusun moduan, zure orduko taldeak, Talde Popularrak, gomendioen alde emon eban botoa, eta dokumentua dokumentu positibo eta adostutzat baloratu eban. Eta garrantzitsuena, orduan ez zenduen inondik be arreta jartzen parte-hartzea arautzean, horregaitik harritzen nau gaur proposamen honegaz etortzea.

Escalante jauna eta Urkaregi andrea, zuek, Talde Popularrak ez bezala, gomendio horreen aurka emon zenduen botoa, bai, baina zuen boto partikularretan ez egoan alde handirik, ez egoan alde handirik txostenagaz. Eta zuek gainera, Urkaregi andrea, zuek aitortu egin zenduen, zeozelan txosten horretan jasota egozala zuek egindakoproposamen gehienak. Beraz, nik uste dot gehiago izan zala argazki horretan gu topatzeko beldurra, benetan egon eitekezan desbardintasunak baino. Ze nik uste dot dokumentu adostua izan zala eta talde guztien hausnarketak neurri handi baten jasoten ebena. Eta bai, ados nago, parte-hartzeaz kontzeptu ezbardinak ditugula uste dot.

Nik uste dot argi dagoala herritarren parte-hartzea administrazio baten ez dala neurtzen Foru Arau bat daukalako edo ez daukalako. Nik uste dot hori finkatzeko beste aldagai asko dagozala, eta, beraz, parte-hartzearen balorazino bat egitea, gobernu batek horri buruzko araudia daukan edo ez kontuan hartuta, parte-hartzearen balorazino murriztailea dala emoten deust. Eta beno, amaitzeko, nik uste dot gomendio horreetan zentratu behar dogula, uste dot balioa emon behar deusagula aurreko legealdian egin zan lanari, talde guztiok parte hartuta egin genduan lanari, eta ildo horretan urratsak emoten jarraitu daigun. Aldundia lanean dabil, Batzar Nagusiok agindutako urratsak garatzen dabil, eta bide onetik goazela uste dot. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Gracias, y finalizado el debate, someteremos a votación la proposición no de norma.

Podemos votar.

El resultado es el siguiente, con un total de 49 votos, 2 a favor, 31 en contra y 16 abstenciones, por lo que no se aprueba la Proposición No de Norma.

Y sexto punto del orden del día.

Eta gai-zerrendako seigarren puntua.

El Sr. **SECRETARIO/IDAZKARI** jaunak:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

**Iniciativa Originaria:** Proposición no de norma ([R.E.11/E/2019/0002259](#))

**Autor:** Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

**Asunto:** Programa de Atención Psicológica de Intervención Familiar en supuestos de maltrato y agresiones sexuales de la Diputación Foral de Bizkaia.

**Documento Principal:** ([R.E.11/E/2019/0002259](#)), ([R.E.11/E/2019/0002339](#))

**Boletines:** [Admisión a trámite y apertura del](#)

6.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta bozkatzeara:

**Jatorrizko ekimena:** Arauz besteko proposamena ([11/E/2019/0002259SE](#))

**Egilea:** Duque Santacoloma, Izaskun (EHB)

**Gaia:** Tratu txarrak edo sexu-erasoak izaten direnean familian esku hartuz laguntza psikologikoa emateko Bizkaiko Foru Aldundiaren Programa

**Dokumentu Nagusia:** ([11/E/2019/0002259SE](#)), ([11/E/2019/0002339SE](#))

**Aldizkariak:** [Izapidetzeko onartzea eta](#)

[plazo de enmiendas](#) (26A), [Enmiendas:](#)  
[Admisión a trámite](#) (26B)

**Expediente:** [\(11/B/26/0000518\)](#)

[zuzenketa-eskeak aurkezteko epea zabaltzea](#)  
(26A), [Zuzenketa-eskeak: Izapidetzeko onartzea](#)  
(26B)

**Espediente:** [\(11/B/26/0000518\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Es el turno de de la juntera que ha presentado la iniciativa. Señora Duque Santacoloma tiene la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Gracias, hola de nuevo. Sabemos que la propuesta que traemos hoy a esta sesión es un tema complejo y sensible. Por eso, tal y como manifestamos al gobierno, nuestra intención es llegar a un acuerdo más amplio y no es nuestra intención utilizar este tema para la confrontación política, por lo que nos alegramos de que hoy hayamos alcanzado un acuerdo con el gobierno, el Partido Socialista y el PNV y además hemos decidido aprobar la enmienda que nos han presentado en su totalidad.

En el día de hoy y en todos los plenos hablamos muchas veces sobre los repartos competenciales, pues bien, la propuesta que traemos hoy aquí es claramente una competencia que corresponde a esta Cámara, el Observatorio de Violencia Machista de Bizkaia, y no quiero perder aquí la oportunidad de tomar el testigo de Arantza y pedimos nuevamente que se cambie el nombre del Observatorio, porque ese fue el acuerdo que alcanzaron ustedes. En este Observatorio de la Violencia Machista de Bizkaia se recogen diversos informes, y cada año el Observatorio presenta su memoria. Y hemos estado analizando los datos que se suceden en estas memorias e informes, y las recomendaciones que se persiguen. Hemos recibido algunos datos en torno a dos servicios que están en las competencias de la Diputación y les voy a leer:

El 70% de las mujeres acogidas en el servicio de acogida de urgencia en 2018 habían nacido en el extranjero, desde 2004 el perfil de la mujer usuaria de este servicio ha variado en función de su lugar de nacimiento.

Bizkaiko gizartea soziologikoki asko aldatu da azken urteotan, eta horren froga dira txosten horreetan jasoten diran datuak; esaten neban moduan, indarkeria matxista jasan daben emakumeei laguntzeko larrialdi-zerbitzuan jaso dabe emakume horreen ia %70 atzerritarrak dirala. Baina zerbitzu horrek, soziologia barri horri aurre egiteko, 50 hizkuntza desbardineta artatzen ditu emakumeok, eta, gainera, memoria horreek eta txosten horreek adierazten deuskue azken urteotan gehien eskatu edo erabili diran hizkuntzak arabiera, txinera, ingelesa, errumaniera eta serbiera izan dirala.

Por otro lado tenemos el servicio de atención psicológica. En cuanto al lugar de nacimiento de las mujeres usuarias del servicio, las nacidas en el extranjero suponen casi el 23%. En el servicio de atención psicológica que ofrecen los ayuntamientos, sin embargo, el porcentaje aumenta ligeramente hasta el 35%.

Esaten neban indarkeria matxista jasan daben emakumeei arreta psikologikoa emoteko zerbitzua, jatorriari erreparatzen badeutsagu, Aldundiak artatzen dauen zerbitzua %23, ia %24 dala; udalerrietatik eskaintzen danean, ostera, zerbitzua %35eraino hazten da. Horrek erakusten deusku Aldundiak zerbitzu hori deszentralizatzeko eta udaletara, eskualdeetara eta herrietara jaisteko erabakia hartu ebanean asmatu egin ebala. Izan be, agerikoa da auzotarrengandik hurbilago dagoan zerbitzu baten emakumeak be atzerritik datozela, erosoago sentitzen diralako laguntza horreetara joateko orduan edo laguntzak eskatzeko orduan.

Y con esta propuesta nuestra intención, como hemos dicho, es profundizar en las mejoras de estos servicios. Estos informes nos dicen que, atendiendo a los datos que reciben, creemos que tenemos un gran reto para hacer frente a estos cambios sociológicos. Y por eso nuestra propuesta es profundizar un poco en las lenguas que se ofrecen en la atención psicológica y ampliar este servicio. Tal y como se recoge actualmente en los pliegos de este servicio, el servicio se presta también en euskera, inglés, castellano y en lengua de signos. Nosotros lo que proponíamos era ir un poco más allá, y teniendo en cuenta lo que se recoge en estos informes, y si el idioma más utilizado es el árabe, nuestra propuesta era que el árabe también se recogiera en los nuevos pliegos. Sabemos, justo hace meses que la nueva licitación, la prórroga creemos que está en marcha. Y, como he dicho, no es nuestra intención hacer corriendo esta propuesta y de cualquier manera, sino profundizar en el servicio y plantear mejoras, mejoras efectivas de verdad. Por eso, viendo que el tono en las negociaciones con el gobierno era bueno y que había un compromiso firme, que compartía los mismos objetivos que EH Bildu, hemos aceptado hacer una pequeña mejora en los pliegos de este año, siempre y cuando en los próximos años, como he dicho, se extienda este servicio en las lenguas que ofrece o a más idiomas.

También, en este proceso, hemos realizado un ejercicio de lectura en esos análisis e informes que realiza el Observatorio, y nos hemos dado cuenta de que en ocasiones ante la potencialidad del Observatorio en cierta medida la información que recibimos de los pueblos y mancomunidades es precaria, por eso proponíamos homogeneizar la información que recibimos del Observatorio y de las Mancomunidades y de los municipios para mejorar las evaluaciones y diagnósticos que realizamos.

No sé cómo voy en el tiempo...

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Continúe por favor..

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Les he traído estos dos informes como les comentaba, es decir, la memoria que hace el Observatorio año tras año, y quizás sea más cuantitativa, pero luego ya tenemos este informe para las recomendaciones realizadas por la Diputación, y como he dicho, las propuestas que he traído no nos las hemos inventado, porque yo creo que si compartimos este informe de recomendaciones, si estamos de acuerdo con este informe de recomendaciones, si analizamos las recomendaciones que se hacen, las propuestas que traemos hoy aquí también se recogen, por lo que esperamos que el acuerdo sea lo más extenso posible. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Gracias. Han presentado enmienda los grupos Socialistas Vascos y Nacionalistas Vascos, por lo tanto, ahora es el turno del grupo Socialistas Vascos. Señora Gil Llanos, suya es la palabra.

La Sra. **GIL LLANOS** andreak: Kaixo guztioi barriro, eskerrik asko, mahaiburu andrea. Beste behin be, Batzar Nagusiotan desbardintasunik handienetako bategaz zerikusia daukan gai bat jorratuko dogu: emakumeen aurkako indarkeria gauzatzeko legitimatuta dagoala uste dauen kultura matxista batetik sortzen dana, emakumeak izateagaitik. Eta legez besteko proposamen honetaz esan behar dudan lehenengo gauza da sozialistok bat gatzela hori bultzatzen daben kezka eta arrazoiakaz, eta, ziur nago, indarkeria matxistaren biktimekiko enpatiaz sortu dala, eta beraz, erantzun onenak bilatzeko betebeharra daukagula, eurei laguntzeko eta bizi daben mina eta sufrimendua larriagotu ez daiten.

Eta horregaitik aurkeztu dogu zuzenketa bat EH Bilduk egin euskun proposamenari, hasierako proposamenaren ikuspegia hobetzeko asmoagaz. Izan be, ikusi daigun, ze esparrutan mobiduten gara? Aterki orokor gisa, genero indarkeriaren aurkako babes integraleko neurrien lege organikoa daukagu, hor biktima emakume eta adingabeen eskubide gisa jasotzen da gizarte laguntza integralerako eskubidea, eta horrek, besteak beste, arreta psikologikoa dakar beragaz. Eta legeak adierazten dau horretarako antolatzen diran zerbitzuek printzipio honeei erantzun behar deusiela: etengabeko arreta, premiazko arreta, prestazinoetan espezializazioa, eta diziiplina anitzeko arreta profesionala.

Eta gero Euskadin badaukagu emakumeen eta gizonen bardintasunerako legea, esaten deuskuna euskal administrazio publikoek bermatu egin behar deusela indarkeria matxistaren eta sexu-erasoen biktimei laguntza psikologikoa, preminazkoa, doakoa, espezializatua, deszentralizatua eta eskuragarria izateko eskubidea. Eta hori da, lehen esan dodan moduan, gu gabilzan lege-esparrua.

Baina hori guztia baino lehen, eta hau dinot justuak izan gaitezkan eta Foru Aldundiak gatz honegaz daukan konpromisoari balioa emon deiogun. Izan be, Bizkaiko Foru Aldundiak 1992an jarri eban abian tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetan familian esku hartzeko arreta psikologikoko zerbitzu espezializatua, eta, proposamen-egileak, Duque andreak, ondo esan dauen moduan, 2006an deszentralizatu zan zerbitzu hori, eta ordutik holan dabil, deszentralizatuta. Eta baliabide horrek programa bi ditu, bata helduentzako programa klinikoa deitzen doguna, alde batetik biktimei zuzendua, indarkeriaren eta sexu-erasoen ondorio psikologikoak gainditzeko; eta, bestetik, tratu txarrak emoten dabezanei zuzendua, jokabide horreek desagertzeko haien bultzadak kontrolatzeko.

Eta adingabeentzako programa kliniko bat, katarsi emozionala lortzeko, birbalioztatze kognitiboa egiteko eta indarkeriaren biktima diran adingabeek jasandako ondorio psikologikoak gainditzeko estrategia espezifikoa abian jartzeko.

Gaur egun, eta lehen esan dodan moduan, 7 arreta-gune dagoz Bizkaian, eta 19 psikoterapeuta, eta ideia bat egiteko, 2018an, memorian ditugun azkenengo datuen arabera, 1.525 pertsonari emon deusie arreta, horreetatik %90 emakumeak. Eta hizpide dogun gaian, proposamen-egileak emon dituan datuak, proposamenean be jasota dagozanak, esan behar da indarkeria matxistaren biktima diran emakumeen %23,7 eta sexu-erasoen biktima diren emakumeen %34,5 atzerrian jaiotako dirala. Azken datuetan atzerriko 27 herrialdeetakoak euki ditugu. Baina zer egin behar dogun aurreikusteko eta, batez ere, asmatzeko, garrantzitsuen da ikustea zelan eboluzionatzen doazen, hain zuzen be, biktimen jatorria adierazten daben datuok, eta ikusten doguna da tratu txarrak jasan dabezkan atzerriko jatorriko emakumeen kopurua etengabe hazten doala; 2007tik hona bikoiztu egin da atzerriko jatorriko emakume artatuen kopurua. Eta ikusten dogu, era berean, biktima horreetako gehienak Latinoamerikako herrialdeetatik datozela, baina hazten doala batez be arabiar jatorriko biktimen kopurua.

Beraz, kontua da, labur eta gane-ganetik deskribatu dodazan datuokaz, zer egin behar dogu biktima diren emakume horreen arreta hobetzeko? Ba nire ustez, kontuan hartzen badogu hizkuntzak aukera emoten deuskula sentitzen doguna adierazteko, igarten doguna deskribatzeko, nahi doguna eta komunikatzen duguna eraikitzeke, argi dago ahalegina egin behar dala atzerriko herrialdeetan jaiotako emakume biktimei errazago jartzeko arreta psikologikoko baliabide espezializatua hizkuntza-terminoetan eta termino idiomatikoetan eskuratzeko aukera. Eta, gainera, zerbitzu horrek behar dau bai ala bai da segurtasuna, konfiantza, konfidentzialtasuna eta intimitatea. Lehen esan dan moduan, aurtengo abenduaren 14an barritu zan ZUTITU erakundeagaz daukagun kontratua; besteak beste, euskera-, gaztelania- eta ingeles-zerbitzua eskaintzeaz gain (nahitaezkoa zan lizitazioan), frantsesa eta zeinu-hizkuntza be eskaini dira. Horrez ganera, zerbitzuak beste itzulpen-tresna bat erabilten dau hizkuntza-oztopoak gainditzeko, Dualia tresna, arlo horretarako guztiz egokia. Beraz, proposatzen doguna da gai honetan aurrera egiten jarraitzea, eta hurrengo lizitazioerako,



zuzenketaren bidez proposatzaileak ondo adierazi dauen bezala, gehien eskatzen diran hizkuntza-eskakizunen balorazioa handitzea, holan, lehen aitatu doguzan hurrekotasun eta konfidentzialtasun beharrezko horreek handitzeko, eta baliabide askoz malguagoa eta artatutako herritarren beharretara egokitua lortzeko.

Eta zuek planteautako bigarren gaiari buruz, emakumeen aurkako indarkeriari buruzko datuen erregistroa modu homogeneoan egiteari buruz, honezkero egin egiten danez, proposatzen doguna da hobetzeko ildo bat, egiten dan horretan jarraitu baina hobetuta. Eta ikusiko dogu; behatokia 2003an sortu zan, eta bere helburuen artean eukan informazino-sistema bat eraikitzea, gure lurraldean emakumeen aurkako indarkeriaren behaketa, azterketa eta jarraipena egiteko gaitasuna izango dauena, eta informazino hori baliagarria izango jakuna, besteak beste, gure politika publikoek arlo horretan dauken eragina eta eraginkortasuna baloratzeko. Eta, gainera, behatokiaren funtzinoen artean dago, hain zuzen be, zuek hobetzeko esakatzen dozuena, hain zuzen be, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan zerbitzu desbardinek erabilten dabezan adierazleak eta informazino-sistemak hobetzeko proposamenak egitea. Eta konpromisoa hartzen dogu bide horretan hobetzen jarraitzeko. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Tiene la palabra la representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Urquieta Zuzaeta andrea, zeurea da berba.

La Sra. **URQUIETA ZUZAETA** andreak: Gracias, señora Presidenta, buenos días de nuevo, a todos. En Bizkaia, desde 1992, y así lo han mencionado también la señora Duque y la señora Gil, la Diputación Foral ofrece un servicio de atención psicológica con intervención familiar en casos de maltrato o agresiones sexuales.

Este servicio se prestaba en Bilbao, pero en 2006 se inició un proceso de descentralización y en diez años, actualmente, se presta en 7 zonas del territorio. Esto ha hecho que la población tenga mucho más fácil recibir este servicio de psicología y la reforma que se ha hecho en la estructura del programa ha supuesto un aumento de las horas de prestación en más de una ocasión, a la vista de que la demanda iba aumentando año a año, como demuestran los números que se recogen en las memorias del Observatorio de la Violencia.

Behatokia 2003an Foru Dekretu bidez sortutakoa Aldundi honegaz, Batzar Nagusi honeetan garatutako ponentzia baten ondoren. Beraz, esan geinke erratzeko bildurrik barik, aitzindariak izan garala holako tresnak sortzen, datuetan, frogatan oinarritutako neurriak ikusarazten eta hartzen laguntzen dabenak.

Behatokiaren helburu nagusien artean honeek nabarmenduko doguz: indarkeria-egoeren errealidadea eta bilakaera ezagutzea, eta, holan, emakumeen aurkako indarkeriaren arloan zerbitzuek erabilten dabezan adierazleak eta informazino-sistemak hobetzeko gomendioak eta proposamenak egitea.

2004. urtetik behatokiak, besteak beste, arlo polizial, judicial eta sozialeko informazinoa eta datuak bateratzen ditu, holan indarkeria matxistaren problematikara hurreratzea erraztu egiten da, erakundeek egindako jarduerak aztertuz.

EH Bildu taldeak, behatoki honetatik ateratako txostenetan oinarrituta, proposamen hau aurkezten dau. Eskertzen dogu bultzada-lana, eta uste dogu bere erreferentziak errealidade hau monitorizatzeko, aurre egiteko, eta, beraz, hobetzeko sortu dan tresna honen errekonozimendua dakarrela.

EH Bildu taldeak bigarren atalean egiten dauen proposamen hori, datu bilketa hobetzeko, behatokian hasieratik gertatzen dan dinamikaren parte da, eta aldian-aldian hobekuntzak egin izan ditu lurraldeko 100 eragile informatzailerri baino gehiagori informazioa batzeko fitxetan edo galdetegietan.

Ildo horretan, gure zuzenketa bide horretan urratsak emoten jarraitzeko beharra aitortzera dator, nahiz eta behatokiaren lanagaz zerikusirik ez daukan errealidadea dala azpimarratu.

Zentzu berean jaso dogu legez besteko proposamenaren lehenengo puntua. Horretara, proposatutako gaiak sartzan ahalegindu gara, funtsean, gure zuzenketa, adierazitako zentzuan ibilteko, administrazio publikoek aurrerapen horreek bideratzeko daukiezan tresnen errealidadetik abiatuta, zerbitzu horren erabiltzaileen profilen bilakaerari erantzuteko, Duque andreak bere proposamenean adierazi dauen moduan, eta, gainera, datuak emon dauz, hizkuntza-gaiei garrantzia handiagoa emonez pleguetan.

Holan, Gil andreak esan dauen moduan, gehien eskatzen diren hizkuntzen hizkuntza-eskakizunen balorazioa areagotzea proposatzen dogu, gaztelaniaren, euskararen eta ingelesaren eskakizunaz gain, azken aldian zerbitzuetara heltzen dan errealidadeari hobeto erantzuteko, eta atzerriko herrialdeetan jaiotako emakumeak arreta psikologikoko baliabide espezializatu horretara errazago heltzeko ahalegina areagotzea, traba egin leikien oztopoak kenduta.

Udal-autonomia errespetatuz, espero dogu behatokian eta kide anitzeko beste organo batzuetan daukan inplikazioagaitik eredugarria izatea, betiere erakunde bakotxaren autonomia ahalik eta gehien errespetatuz. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Gracias. Tiene la palabra el señor Andrade Aurrecoechea, del Grupo Mixto Partido Popular Bizkaia.

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Ni bat nator proposamengileagaz gizarte-laguntzak eskatzen dabezan personei behar bezalako laguntza emon behar jakola, eta pozgarria da Osoko Bilkuren areto honetan entzutea Aldundiak sektore honetako esparru guztietan egiten dauen ongia. Orduan, tira, bat gustura joaten da, jakinda danok ze ondo egiten ditugun gauzak. Baina proposamenaren helburua da, besterik gabe, hurrengo lizitazioan hizkuntza-eskakizun barriak sartzea. Zalantza batzuk sortzen jataz, proposamena egin dauenak frantsesa eta arabiera sartzea proposatu dauelako. Lizitazio horretan, frantsesa ez da agiri gure zerbitzuen eskatzaileek erabilten daben hizkuntza dala. Ostera agertzen dira txinera, errumaniera eta serbiera. Zuek gaur egiten dozuen proposamenean, ordea, arabiera sartzeko eskatzen dozue. Ez dakit zergaitik, datu horreek falta dira, beharbada zuk datu gehiago daukazu, zehatzagoak eta horreen araberahizkuntza horreek dira erabilienak, zuk ezetz uste dozu, baina tira.

Gu ez gatoz bat hizkuntza-eskakizunetan sartzeko eskaera horregaz; ze gure ustez, kontratu barrietan hizkuntza horreek hizkuntza-eskakizunetan sartzek beragaz ekarri leike tokiko edo inguruneko enpresak urruntzea, gure lehiaketetan aurkezteko gai ez diralako, holango personak falta dituelako, zuek eskatzen dituzuen hizkuntza-maila horreek berraztertzekoak, eta ulertzen dot 50 hizkuntzako itzulpen-maila txarra izatea, txostenetan esaten dan moduan, nik ulertzen dot nahikoa izan daitekeela. Nire ustez, 50 hizkuntza 5 baino gehiago dira, eta ez dot uste beharrezkoa danik gehitzea. Beharbada bai, Euzko Alderdi Jeltzalearen zuzenketa agertzen zan moduan, baloratu eta barnatzea etorkizuneko lizitazioetan kontuan hartzeko balorazio gisa. Eskatzea gehiegi iruditzen jat.

Eta bere bigarren proposamena, zehatzagoa, sistema homogeen bat ezartzea, nik uste dot nozenoz esan dodala hemen, ez dakit betetzen dan ala ez, ez dot benetan ezagutzen batzuek baietz esaten dabelako, beste batzuek ezetz. Sistema homogeen bat hain zentzunezko gauza bada, gaur goizean esan dodan moduan, balorazio-sistema homogeen bat egotea eta denek parametro berberak hartzea definitzeko, zentzubakokeria da hori ez betetzea.

Gu abstenitu egingo gara dikotomia horregaitik, ulertzen dot gauza bat egin behar dala, bestea ez, eta beraz abstenitu egingo gara. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Gracias. Tiene la palabra la representante del grupo Elkarrekin Bizkaia, Sra. Cabornero Alor.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Muchas gracias, señora presidenta, y buenos días a todos y a todas. Andrade jauna, itxi zuzentzen zure hitzaldiko lehenengo berbak, ze gizarte-laguntzei buruz zabilzanean, ez gabilz gizarte-laguntzei buruz, prestazioei eta eskubideei buruz baino. Horregaitik da garrantzitsua ulermena eta komunikazinoa. Indarkeria matxista giza eskubideen urraketa bat da, mundu osoan zabaldua dagoana, emakumei eragiten deuskun diskriminazioaren ondorioz, gure bizitzako esparru ezbardinetan, eta ez dau bereizten ez klase sozialik, ez mugarik, kulturarik, jatorririk ez adinik. Europako funtsekin finantzaturako ikerketa batek salatzen dau dana korapilotzen dala biktimak ez dauenean hizkuntza menperatzen informatzeko, komunikatzeko, laguntza eskatzeko, bere egoera azaltzeko edo salaketa jartzeko. Alkarrizketa eta komunikazino egoki batek bizitza bat baino gehiago salbau leike. Gure lurraldeko emakume migratzaileek kolektibo zabala, anitza eta heterogeneoa osatzen dabe.

Hainbat herrialde eta kulturatatik etorrira, jatorrizko herrialdetik urtetea erabagi dabe hainbat arrazoiengaitik, eta azpimarratzekoa da ze egoera larrian dagozan, baliabide propiorik ez daukelako, sare sozial edo familiar sendorik bez. Horri hizkuntza-arazoak gehitu ezker, arriskua egon daiteke laguntza espezializatua ez eskatzeko edo menderatze- eta indarkeria-harreman batetik urtetea ez erabagiteko.

Gure lurraldean hainbat lege eta zerbitzu ditugu indarkeria matxistaren biktima diran emakume guztiei babesa emoteko, baina hizkuntza txarto ulertzeak, gaztelania, euskara edo ingelesa ondo ulertzen ez dabelako edo berba egiten ez dabelako, hainbat egoera sortu daitezke: diagnostiko txar bategaitik behar daben laguntza ez jasotea; eragiten deuten indarkeria egoerari amaiera emoteko ekintzak abiaraztean etsitzea; edo esku-hartzea atzeratzea, egoera ondiko okerrago bihurtuz, eta egon daitekeen biktimizazio-prozesua larriagotuz.

Amnistia Internazionalen "Zein justizia espezializatua" izeneko txostenaren ondorioek agirian itxi dabe sisteman gertatu daitekezan jardunbide akastunek ondorio kaltegarriak sortu leikezala emakumeengan, eta horrek ekarten dauela indarkeria matxisten biktima diran emakumeek sisteman konfiantza galtzea. Dinamika hori gelditzeko, Amnistia Internazionalak proposatzen dau, besteak beste, arreta berezia jartzea langileen prestakuntzan, funtzionarioen eta profesionalen espezializazinoa eta etengabeko prestakuntza bermatuz. Eta biktimek komunikazinoan oztoporik ez daukela ziurtatzeko. Gainera, 2 edo 15 hizkuntza hitz egitea nahikoa ez izateaz gainera, komunikazino-arazoak kudeatzeko tresnak eta baliabideak behar dabez, eta hitzezkoak ez diran komunikazino-mekanismoetan espezializatu behar dira, eta baita be aparteko gainerako zailtasunak daukezan indarkeria matxisten biktima diran emakumeakaz tratatzeko trebetasuna.

Eta arauz besteko proposamen honek guztiz beharrezkoak diran beste hizkuntza batzuk barruan hartzen baditu be, bistan da eta zerbitzuak komunikazino-teknikak baditu, kasurako entzumen-desgaitasuna dauken emakumei eraginkortasunez laguntzeko zeinu-

hizkuntza. Gure ustez alde batera itxi dira beste teknika batzuk, beste desgaitasun-mota bat dauken emakumeakaz komunikatzeko uneari aurre egin ahal izateko, adibidez desgaitasun psikikoa dauken edo beste modu bateko adimen-desgaitasuna dauken emakumeakaz komunikatzeko. Izan be, desgaitasuna dauken emakumeek handicap bikotxa dauke, ze beste edozein emakumek moduan oztopoak izateaz ganera, beren egoerari aurre egin behar deutse beste oztopo batzukaz, berariaz eragiten deusienak komunikazio-modu irisgarririk ez daukelako.

Europako emakume desgaituen manifestuak eta "Emakume desgaituen aurkako indarkeriaren aurpegi ezkutua" azterlanak ziurtatzen dabe desgaitasunen bat dauken emakumeek –adibidez, muga fisiko handiko emakumeak, komunikazio-zailtasun handiak daukezan emakumeak, ikasteko eta ulertzeko zailtasunak daukezan emakumeak edo nahasmendu mentalen bat dauken emakumeak– arrisku edo probabilitate handiagoa daukela indarkeria-motaren bat jasateko.

Uste dot danok jabetzen garela indarkeria matxisten biktima diran emakume guzti-guztien bizitzak hobera egin leikela arreta egokia jasotzen badabe, eta, horretarako, komunikazioa erraztu behar dala, informazioa transmititu behar dala, behar bezala ulertu dagien, Gizarte Zerbitzuek, kasu honetan Bizkaiko Foru Aldundiko Arreta Psikologikoko Programak, arreta, diagnostikoak eta kalidade- eta eraginkortasun-erantzunak emon deiezan.

Izan be, hizkuntza ondo ulertzen badogu edo transmititzeko eta komunikatzeko gai bagara, orduan bakarrik izango gara gai gure pentsamentua osotasunez adierazteko, inguratzen gaituena, gertatzen jakuna, sentitzen doguna edo behar doguna bere neurrian ulertu eta azaltzeko.

Elkarrekin Bizkaiak beti babestuko, lan egingo dogu eta ahaleginak batuko ditugu politika eta zerbitzu publikoak eraikitzeko, aurrera egiteko, hobetzeko eta bermatzeko, zeharkako ikuspegi intersektional batetik, diskriminazioak edo desbardintasunek sortu leikezan desbardintasunei heltzeko. Eskerrik asko, besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Gracias. Pasamos al turno de respuestas. Para eso, señora Duque Santacoloma, tiene la palabra.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: Gracias. Bueno, para hacer un poco de memoria quiero recordarles, Arantxa me ha ayudado a refrescar la memoria, que el proyecto del Observatorio está en marcha hoy en día gracias a una propuesta realizada por Euskal Herritarrok en esta Cámara, y aparte de eso, yo estaba pensando cuál iba a ser la excusa del Partido Popular para no votar a favor de nuestra propuesta, y ha sido bastante, bueno, ya veremos cómo son las siguientes excusas, pero la de hoy no me ha parecido muy buena.

Pero volviendo a nuestra propuesta, y para aclarar sus inquietudes o dudas, si han mirado la licitación, me imagino que sí, se habrán dado cuenta de que se solicitaba el euskera, el castellano y el inglés que se recogía en los requisitos, y luego, como complemento, la empresa que actualmente presta este servicio también lo hace en francés y, como se ha mencionado, en lengua de signos. Pues como lo propuso como mejora, por eso nosotros en la propuesta recogida ya sabíamos que al menos esa empresa, y en la medida en que es una empresa de aquí, puede ofrecer ese servicio en esas lenguas, proponíamos un avance. Y como es la lengua árabe la más utilizada, tal y como se recoge en estos informes, hemos propuesto eso. Además, quiero recordarles que para las mujeres africanas el francés y el inglés son lenguas coloniales y que su lengua materna no es el francés ni el inglés, y si para muchas es árabe, nos

parecía de justicia que pudieran ofrecer en su lengua materna un servicio tan cercano y tan sensible.

Luego quiero recordarles también, Begoña ha hecho una mención, a veces me cuesta tratarle de señora. Ha situado un poco el marco normativo, y ha mencionado la ley de igualdad. Gizonen eta emakumeen arteko bardintasunari buruzko 2005eko legea, Aldundi honek 2018an onartu eban denporatik hurren dagoan Foru Araua, eta gero gogoratu nahi genduan, baita be, bardintasunerako lurralde-sarearen erregelamendua onartzen dauan Foru Dekretuaren proiektuaren aurrerapena. Eta zergaitik dinot hau? Ba dekretu-aurrerapen baino ez badaukagu be, aurrerapen horretan uste dot baliagarri izan geinkela edo beste tresna bat izan daitekeela, behatokia edo txostenak eta memoriak diran moduan, esan dodan moduan sakontzeko eta hobetzen joateko.

Aurrerapen horretan, arau-esparrua pixka bat markatzen dauela esaten da, y se dice establecer medidas de fomento para que los ayuntamientos y demás entidades locales dispongan de medios materiales, económicos y humanos que les permitan desarrollar programas y actuaciones diseñadas para la consecución de la igualdad de mujeres y hombres.

En definitiva, lo que va a hacer esta red de igualdad es coordinar todos los recursos, los que tiene la Diputación, puede ser el Observatorio, o este tipo de servicios de atención psicológica, los Ayuntamiento, los técnicos de igualdad, la Mancomunidad, como he comentado antes, y mejorar en esa coordinación. No queremos cuestionar el trabajo que actualmente realizan profesionales y trabajadores pero sabemos que el día a día y la realidad administrativa es muy compleja a veces y en las memorias, a pesar de que el portavoz del Partido Popular está sorprendido, hay algunos desfases en cómo se recogen esos datos. Yo creo que en ese proceso de homogeneización todavía podemos hacer grandes mejoras y espero que en esta legislatura esta red de igualdad, que todavía está a punto de desarrollarse, ayude en este trabajo.

Y luego quería hacer otra mención, en este informe de recomendaciones de mejora en torno a la actuación institucional en materia de violencia contra las mujeres en Bizkaia, a las propuestas o recomendaciones que se citan, para explicar a los miembros del Partido Popular que no es una propuesta que yo haya inventado, sino las recomendaciones que se recogen en los informes de recomendaciones que hace la Diputación Foral. Y, por ejemplo, la recomendación sobre la atención, en lo que concierne al servicio de atención, dice: garantizar que los recursos y servicios de atención especializada perduren en el tiempo y estén estables, para lo cual debemos asignar los medios materiales y humanos necesarios.

También menciona que garantizar una atención adecuada en los recursos para las víctimas con necesidades especiales, y tal y como ha mencionado el miembro de Elkarrekin Podemos, no es solo lengua, sino también ofrecer un servicio de calidad a las mujeres con diversidad funcional.

Entre otras recomendaciones también en atención psicológica, y esto es lo que nosotros queríamos hacer hoy en este servicio, se dice que se facilite el acceso a la terapia psicológica a las víctimas con necesidades especiales, barreras lingüísticas, etc.

Por lo tanto, en esa memoria elaborada por el Observatorio y antes...

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Perdone, señora Duque Santacoloma, vaya terminando por favor.

La Sra. **DUQUE SANTACOLOMA** andreak: El Observatorio también nos dice, como he mencionado antes, que cuando descentralizamos los servicios y bajamos a los pueblos mejoramos la calidad y en el servicio que ofrecemos, por lo tanto, podemos mejorar, podemos profundizar en esa descentralización, dedicar más horas a los pueblos, ofrecer más idiomas, y, como he dicho, también tenemos margen de mejora en ese proceso de recogida de datos, gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Gracias, la representante del grupo Socialistas Vascos, señora Gil Llanos, tiene la palabra.

La Sra. **GIL LLANOS** andreak: Oso labur, ze tribunara etorri naznahiago dodalako aurrez aurre ikustea eserlekutik baino, baina bi ohar egiteko besterik ez. Lehenengo eta behin, eskerrak eman gura deusadaz proposamena egin dauenari, bere proposamenaren tonu konstruktiboa eta prozesu honetan zehar alkarrizketarako izan dauen harrera. Horri eskersortu da gaur landu dogun zuzenketa onartzea. Eta, horregatik, Andrade jauna, zuk zure abstentzinoa arrazoitzeko komentatu dozuna, ba esan behar deusut atxakia hutsa iruditzen jatala, ez ditut errepikatuko Duque andreak emon deusuzan argibideak eta azalpenak. Baina gaur hemen onesten dana da, hain zuzen be, zuk balioan jarri dozuna, esan dozu: ez gatzoz bat zure proposamenagaz, baina zentzuzkoagoa iruditzen jaku Gobernuaren zuzenketari egindako proposamena hizkuntza-eskakizunen balorazinoa, gaur hemen onesten dana, eta, beraz, nik uste dot, birpentsau egin beharko zeunke argumentua.

Eta esan, Andrade jauna, umiltasun erabatekoenetik, tonu barregarraigaitik esaten dot, hemen gauzak bikain egiten dirala, eta umiltasun absolututik dinotsut nahiko ondo egiten ditugula. Baina hobetzeko bide bat dagoala ikusten dogunean erronka onartzen dogula, gaur Euzko Alderdi Jeltzalea, Alderdi Sozialista, EH Bilduk alkarregaz egin dogun lanean ikusi dan moduan. Arlo publikoan gabilz, uste dogu politika publikoak ebaluatu egin behar dirala eta hobetu. Eta hori da guztiok aberasten gaituena, hobetzeko eta aurrera egiteko asmo hori; beraz, beste barik, eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Gracias. La representante del grupo Nacionalistas Vascos, señora Urquieta Zuzeta, es la suya.

La Sra. **URQUIETA ZUZAETA** andreak: Gracias de nuevo, señora presidenta. Datuak erregistratzeko sistema homogéneo bat ezartzea eta zerbitzu honen erabiltzaileen perfilen bilakaerari erantzuten saiatzea, hizkuntzari jagokonez, Andrade jauna, zerbitzu honetan aplikatzen diran lan-ildo batzuk dira, Indarkeriaren Behatokiaren beraren gomendioen eta hobekuntza-proposamenen pean. Funtzionatzen dau, bai, baina aurrera egiteko eta hobetzeko proposamenak jasotzeko prest gagoz. Ez dogu ulertzen zergaitik, Duque andreak eta Gil andreak esan deusuen moduan, zuen abstentzinoaren zergaitia; izan be, iruditu jaku onartzen dozula bozkatuko dan zuzenketak, behin EH Bilduk onartuta, hobeto jasotzen dituala zuk zeuk partekatzen zenduzan aldarrikapenak.

Bueno en el turno anterior ha quedado claro que todos los grupos compartimos en esta Cámara lo que dice la proposición no de norma, y sí que nos encontramos con razones para impulsar medidas de mejora, de empatía con las víctimas y de alivio del sufrimiento que reciben. Los datos así lo predicen, es un servicio cada vez más utilizado, desgraciadamente, pero el objetivo de todos es que este servicio sea cada vez más adecuado, cada vez más especializado y cada vez más accesible. Gracias.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Gracias. El representante del Grupo Mixto Partido Popular Bizkaia, el señor Andrade Aurrecoechea, tiene la palabra

El Sr. **ANDRADE AURRECOECHEA** jaunak: Bai, eskerrik asko, mahaiburu andrea. Gaurko goiza amaitzeko be. Erreferentzia egiten genduanean, igual txarto ulertu jat, nik esaten neutsunean gizarte-laguntzak, nik esaten neutsunean danok behar dogula gure laguntza, Aldundiaren laguntza, zeren nik ulertzen dot genero-indarkeriaren gaian ezeze jentea bere hizkuntzan tratatu behar dala danean, arlo guztietan, daukezan eskubide guztiak ezagutu ahal izan dagiezan, eta pentsatzen dot holan egingo dala Aldundi honetan.

Proposamen zehatzari jagokonez, behin betikoa hobea da, baina ez gatoz bat, eta barrero dinot, ez dot ulertzen zergaitik, lehenengoarabiera bakarrik sartzen da eta ez da esaten txostenetan esaten dan bezala txinera, errumaniera eta serbiera be gehien erabilten diran hizkuntzak dirala.

Barrero dinot, hizkuntza barriak eskatzea, eta kasu honetan arabiera bakarrik, ez dot ulertzen beste hizkuntzak zergaitik geratzen diran kanpoan. Aldatu egin leike, bertoko edo gure inguruko enpresak Aldundi honen lizitazioetan parte hartu ahal izatea, eta hori, nire ustez, txarra litzateke guretzat.

Eta, nire ustez, posible da lizitazio barri hori eraginkorra danerako, gure artean bizitzera datozen pertsonen jatorria aldatzea, eta hori bera gertatu da, azken aldi aldatu da, izan daiteke, hizkuntza jakin batzuk mugatzea nire ustez pleguetan, gobernu-taldeari ondo iruditzen jako, ba ondo irudituko jake, baina, nire ustez, 50 hizkuntza erabilgarri dituen itzulpen-sistema immigrazioaren balizko bilakaerei irekiago egiten gaituela.

Eta bigarren puntuari jagokonez. Zati hori da proposamenean bat egiten ez dodana, eta uste dot mugatu egingo dituala gure enpresariak, gure ekintzaileak eta ni, ez ditu batuko.

Eta bigarren zatia, eskakizunak homogeneizatzearena, nik ez dot uste esann dodanik ezer asmatu dozula, datuak ez ditudala ezagutzen esan dot, zuk baietz esan dozu, ba nik uste dot zentzuzko gauza bat dala homogeneizatzea, zati hori partekatzen dot eta horregaitik abstenitu egiten gara eta ez dogu proposamenaren alde bozkatzen. Baina nik ez dot uste datuak asmatu dituzula esan dodanik, orduan zati hori hain da zentzuzko, egiten ez bada, aspaldi egon beharko zann egiten. Baina, tira, imajinatzen dot bilakaera etengabea goazenez eta garaian garaikora egokitzen goazenez, egin egingo dala eta laster dana homogeneizatuta ikusiko dogula. Mila esker.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Gracias. Y para terminar con el debate, la representante de Elkarrekin Bizkaia, la señora Cabornero Alor, tiene la palabra.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Muchas gracias de nuevo señora presidenta. Labur-labur. Elkarrekin Bizkaia taldetik esker ona, ñabardura bat eta hausnarketa bat egin nahi dogu. Eskertzen eta babesten dogu zuzenketa, eta alde bozkatuko dogu, gai sumeak jartzen ditualako mahai gainean, baina, aldi berean, oso esanguratsuak. Hala nola indarkeria matxisten biktima diran emakumeen eskubideak urratzea eragin leiken komunikaziorik eza edo txarra. Eta zerbitzu batzuk estaltzeko eskubidea bere irismenetik kanpo gera daiteke, aurreko

esku-hartzean adierazi dogun moduan. Era berean, asko pozten gara zuzenketa honek konpromisoa eta babesa lortu ditualako, ez osotasunarena, baina bai, behintzat, gehiengoarena.

Aurreko esku-hartzean ihes egin deustan ñabardura dala-ta, uste dot gerentzia honek oso joera nabarmena daukala beti bere gobernu-ekintzetatik bularra ateratzeko. Eta zehazki 2. puntuaz nabil, garatzen jarraitzeko esaldia esaten dauenean. Gure eretxian, zeezagaz ados zagozanean, babestu egiten dozu, eta aurrera atera. Ez da beharrezkoa.

Eta hau gaur liskarrerako gaia izaterik gura ez badot be, uste dot ahalegindu behar dogula eta espero dut etorkizunean halan izatea, emakumeenganako indarkeriei buruzko guztia Batzar Nagusiotan aho batekotasunaren ildoan jarraitzea, horren trukean indarkeria matxistak borrokatzeko eta desagerrarazteko ahalegin hutsa dagoala, indarkeria horien biktima diren emakumeen bizitza hobetzeko. Izan be, alkarregaz eta norabide berean arraunean egitea, indarkeria matxista ahalik eta gehien alboratu arte borrokatzeko politikak landu, emon eta hobetzeari jagokonez, ahaleginaren, gure betebeharrak politikoaren eta gure betebeharrak moralaren bidetik goazelako sintoma da.

Eta, amaitzeko, azken gogoeta bat partekatu gura neuke Wittgensteinen esaldi ospetsu bat gogoratuz, honen antzeko zeozer dinoana: "Hizkuntzaren mugak dira nire munduaren mugak"; beraz, uste dot gaur, ekimen honeguz, zuzenketa honeguz, danok asmatzen dogula eta honeguz indarkeria matxista jasaten daben emakume askoren mugak zabaldu geinkezala. Esan dodan moduan, alde bozkatuko dogu. Eskerrik asko, besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA/LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias. Una vez finalizado el debate pondremos a votación, como se ha dicho, la enmienda de totalidad. Esperaremos a que todos estemos sentados. Podemos votar.

El resultado es el siguiente, se han emitido 49 votos; a favor 47; en contra no ha habido ningún voto negativo; 2 abstenciones. Por lo que se ha aprobado la Proposición No de Norma.

Y agotado el orden del día, se levanta esta Junta General. Que tengan todos y todas un buen día.

Batzarra amaitu da 13ak eta 59 minutuan.

Se levanta la Sesión a las 13 horas y 59 minutos.